# GIPUZKOAKO TOKIKO IRAUNKORTASUN-POLITIKEN DIAGNOSTIKOA

EMAITZEN DOKUMENTUA

# 2018



Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokia
Observatorio de la sostenibilidad de Gipuzkoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

# GIPUZKOAKO TOKIKO IRAUNKORTASUN-POLITIKEN DIAGNOSTIKOA

EMAITZEN
DOKUMENTUA

**2018**

2019KO MAIATZA

## PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMEN
ZUZENDARITZA NAGUSIA

GIPUZKOAKO IRAUNKORTASUNAREN BEHATOKIA

## LAGUNTZA TEKNIKOA

Dokumentuaren idazketa eta
laguntza teknikoaren koordinazioa.

Edurne Simón
Leire Garmendia

## Lantalde teknikoa

Edurne Simón
Gema Martín
Leire Garmendia
Monika Rubio
Oihane Arruabarrena
Rosa Aurkia

ELKARREKIN 21

laia Ingurumen Zerbitzuak

Martina Maiz 3, 3. Bulegoa
20.200 Beasain
laia@laiacoop.net
943 164 172

izadi21

Astigarragako bidea 2, 2. Solairua, 9. Bulegoa
20180 Oiartzun
info@izadi21.eus
943 492 215

## PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN ESKUALDEAK, UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK ETA UDALAK

### UDALERRIAK

**UROLA GARAIA**
Ezkio,
Itsaso,
Legazpi,
Urretxu,
Zumarraga.

**BURUNTZALDEA**
Andoain
Astigarraga
Hernani
Lasarte-Oria
Urnieta
Usurbil

**BIDASOA-TXINGUDI**
Hondarribia
Irun

**DEBABARRENA**
Deba
Eibar
Elgoibar
Mendaro
Mutriku
Soraluze

**DEBAGOIENA**
Antzuola
Arrasate-Mondragon
Bergara
Elgeta
Eskoriatza
Leintz-Gatzaga
Oñati

**DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN**

**GOIERRI**
Altzaga
Arama
Ataun
Beasain
Gabiria
Gaintza
Idiazabal
Itsasondo
Lazkao
Legorreta
Mutiloa
Olaberria
Ordizia
Ormaiztegi
Segura
Zaldibia
Zegama
Zerain

**OARSOALDEA**
Errenteria
Lezo
Oiartzun
Pasaia

**TOLOSALDEA**
Abaltzisketa
Aduna
Albiztur
Alegia
Alkiza
Altzo
Amezketa
Anoeta
Asteasu
Baliarrain
Belauntza
Berastegi
Berrobi
Bidania-Goiatz
Hernialde
Ibarra
Ikaztegieta
Irura
Larraul
Leaburu-Txarama
Lizartza
Orendain
Orexa
Tolosa
Amasa-Villabona
Zizurkil

**UROLA KOSTA**
Aia
Aizarnazabal
Getaria
Orio
Zarautz
Zumaia

**UROLA ERDIA**
Azkoitia
Azpeitia
Beizama
Errezil
Zestoa

### UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK

Behemendi
Debagoienako Mankomunitatea
Debegesa
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Goieki
Goimen
Iraurgi Berritzen
Oarsoaldea
Sasietako Mankomunitatea
Tolomendi
Tolosaldea Garatzen
Uggasa
Urkome
Urola Kostako Mankomunitatea
Urola Erdiko Mankomunitatea



**José Ignacio Asensio Bazterra**

INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DIPUTATUA
*DIPUTADO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS*

Gipuzkoako iraunkortasuna sustatzeko tokiko kudeaketa publikoak bizitasun handia ageri du oraindik ere. Erraz asko ikus daiteke hau iraunkortasunarekin lotutako alor ugarietan garatzen den udal jardun zabal eta anitzari esker.

Legegintzaldi hasieran argitaratu nuen “TOKIKO AGENDAREN 15 URTE GIPUZKOAN: TA21 berritu baterako gakoak garapen iraunkorrerako gobernamendu-eredu gisa”. Dokumentu haren xedea zen tresna honek Gipuzkoan izandako bilakaera eta guztiok haren ezarpenerako burututako ahalegina ikusgarri egitea, TA21aren erabateko garapena baldintzatzen duten egoerak eta faktoreak nabarmentzeaz gain. Harrezkeroztik, Departamenduko Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokiak lanean jarraitu du Gipuzkoan burututako iraunkortasunerako kudeaketa publikoaren inguruko informazio objektiboa biltzeko, interpretatzeko eta zabaltzeko.

Ildo horretatik, orain aurkeztu nahi ditut “2016-2018 Gipuzkoako Tokiko Iraunkortasun Politiken Diagnostikoaren” emaitzak. Analisi honetan berriz ere gogora ekarri da sektore anitzeko tokiko ekintza iraunkorraren irudia: Tokiko Agenda 21, ingurumenaren aldagaia barne duen udal plangintza estrategikoa eta Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren plangintza. Halaber, bertan aztertu dira ere gure lurraldeko trantsizio ekologikoan eragin handia duten beste gai askoren izaera sektorialeko plangintza, hala nola iraunkortasun energetikoa, mugikortasun iraunkorra eta erosketa berdea, besteak beste. Era berean, diagnostiko honetan balioetsi dira udal plan eta politika hauek duten gaitasuna Nazio Batuetako Erakundeko 2030 Agendan ezarritako Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko lagungarriak diren eraldaketak sustatzeko, bereziki ingurumen xedeekin zerikusi gehien duten helburuen kasuan. Azkenik, azterlanean barne hartu da ere udal plan eta politika hauek EAEko 2050 Klima Aldaketaren Estrategiarekin (Klima 2050) eta 2050 Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako Gipuzkoako Estrategiarekin (Gipuzkoa Klima 2050) duten lerrokatzea. Diagnostiko xehatu honetan lortutako informazioari esker indargune, aukera, gabezia eta behar ugari antzeman ahal izan dira tokiko iraunkortasun politiken plangintzan eta exekuzioan. Ondorioz, departamenduaren eta udalen eta erakundeetako erakundeen arteko lankidetzarako esparru berriak aurkituko ditugu aurrerantzean.

Edonola ere, oso esanguratsua da kontsulta egin zaien udal eta eskualdeko erakunde ia guztiek emandako erantzun bikaina. Erakunde hauetako erantzule politiko eta teknikari guztiei eskerrak eman nahi dizkiet benetan diagnostiko honen prestaketan emandako laguntzagatik, eta baita gure lurraldean iraunkortasuna batera bultzatzeko egiten duten ahaleginagatik ere.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ORAIN INGURUMENA

**GIPUZKOAKO TOKIKO IRAUNKORTASUN-POLITIKEN DIAGNOSTIKOA**

EMAITZEN DOKUMENTUA

**2018**


**1 Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokiaren aurkezpena** ........ **6**

**2 Diagnostikoaren helburuak** ........ **8**

**3 Metodologia** ........ **9**

**4 Aztertutako udalerriak eta sailkapena** ........ **11**

**5 Diagnostikoaren emaitzak** ........ **13**

- **5.1.** Tokiko Agendak 21 programen egoera ........ **13**
- **5.2.** Planifikazioa eta konpromisoak ........ **22**
- **5.3.** Ekarpena arloka ........ **25**

**6 Gipuzkoako lurralde historikoko udal-politiken ekarpena Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Estrategiaren (GKAE) xedeei eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren Helburuei (GIH)** ........ **51**

**7 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren ekintzek Klima-Aldaketaren Aurkako Gipuzkoako Estrategiaren xedeei (KAAGE) eta Agenda 2030en Garapen Jasangarriaren aldeko Henburuei (GJH) egindako ekarpena** ........ **85**

**8 Ondorioak** ........ **91**

**9 Bibliografia** ........ **95**

**Eranskina. Jardunbide egokien kasuak** ........ **96**



# 1 GIPUZKOAKO IRAUNKORTASUNAREN BEHATOKIAREN SARRERA

***Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokia*** Departamendu programa bat da, Gipuzkoako garapenaren iraunkortasunaren inguruan informazio objektiboa jasotzeko, interpretatzeko eta zabaltzeko xedea duena. Horretarako, Tokiko Agenda 21aren (TA21) eta iraunkortasunerako kudeaketa publikoaren egoeraren jarraipena egiten du, lurraldean jarduten duten erakundeek, eta bereziki tokiko administrazioek, erabiltzen eta probatzen dituzten forma, bide eta tresna guztiak barne hartuta. Horrek barne ditu, lehenik, sektore anitzeko tokiko ekintza iraunkorra, Tokiko Agenda 21ari dagokionez, ingurumenaren aldagaia barne duen udal plangintza estrategikoari dagokionez eta Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren plangintzari dagokionez ere. Halaber, gure lurraldeko trantsizio ekologikoan eragin handia duten beste gai askoren izaera sektorialeko plangintza ere aztertzen du, hala nola energia iraunkortasuna, mugikortasun iraunkorra eta erosketa berdea, besteak beste. Horrez gain, Behatokiaren ardura da ere udal plan eta politika hauek duten garapen iraunkorra ahalbidetzen duten eraldaketak sustatzeko gaitasuna balioestea. Eraldaketa horiek nazioarteko programetan ezarritakoak izan daitezke, 2030 Agendan esaterako, edo erkidego eta foru esparruko klima aldaketaren aurkako borrokarako estrategietan ezarritakoak, lurraldeko iraunkortasun erronka nagusiei aurre egiteko sektore anitzeko ekintza definitu eta bateratzen dutenak. Horri guztiari esker, Behatokiak bere tresnak eta irizpideak hobe definitzea lortzen du, bere gainerako funtzioak bete ahal izateko, esaterako: TA21aren garapena mantendu eta sustatzea, TA21aren koordinatzaile sareari eta lurraldeko gainerako iraunkortasunerako eragileei sostengua ematea, tokiko ekintzan iraunkortasuna sustatzen duten ekimen orori sostengua ematea eta irizpidea eskaintzea –betiere amaierako xedea argi duten metodologia guztiak onartuta–, tokiko eta foru mailako ekintzaren arteko koherentzia mantentzeko lotune gisa jardutea eta, azken batean, iraunkortasunerako lurraldeko ekintza zuzentzea.

Zehazki, eta legegintzaldi hasieran argitaratu zen *“TOKIKO AGENDAREN 15 URTE GIPUZKOAN: TA21 berritu baterako gakoak garapen iraunkorrerako gobernamendu-eredu gisa”* dokumentuan definitutako Behatokiaren ildo estrategikoei dagokienez, **“2016-2018 Gipuzkoako Tokiko Iraunkortasun Politiken Diagnostiko”** honek erantzuna eman nahi die, neurri handiagoan edo txikiagoan, jarraian adierazitako beharrei:

1. **TA21aren jatorrizko helburuen babesa eta metodologien aberastea.**
   Eta batik bat:
   1.2. TA21aren prozesuen eta Gipuzkoako bestelako esperientzia independenteen azterketa: tokiko gobernamendurako jardunbide egokien hautaketa.

2. **TA21aren sistemaren karakterizazio eta diagnostikoa Gipuzkoako esparru barruan eta emaitzen argitalpena.**
   Eta batik bat:
   2.1 Gipuzkoako TA21 Behatokiaren legegintzaldiko txosten instituzionala prestatzea eta argitaratzea.

2.4 Plangintza sektorialaren eta zeharkako plangintzaren alorreko gabeziak aztertzea, tokiko, eskualdeko eta foru esparruko mailan.
2.5 Bestelako gabeziak aztertzea.
2.6 TA21aren desberdinak diren baina harekin bat datozen udal plangintzarako eta partaidetzarako beste prozesu eta organo batzuk antzematea eta aztertzea. Sinergiak aurkitzea, ezaguerak partekatzea eta gobernamendurako metodologiak etengabe hobetzea, betiere Gipuzkoako garapen iraunkorra sustatzeko xedearekin.

**3. TA21aren giza baliabideei sostengua emateko baliabideak.**
Eta batik bat:
3.1 TA21aren koordinatzaile sarearen eta iraunkortasunerako bestelako eragileen egoera aztertzea eta haren jarraipena egitea. Sarearen arazoak eta beharrak aztertzea eta laguntzarik jasotzen ez duten lurraldeko eremuak antzematea.
3.3 TA21aren koordinatzaile sarea eta iraunkortasunerako bestelako eragileak pixkanaka Behatokiaren lanean integratzea –inplikazio aktibo eta ikusgarria–.

Era berean, aipatu beharra dago lan honi esker argitalpen honen esparrutik haratago doan datu base zabala sortu dela. Datu base hori aurrerantzean erabiliko da Behatokiaren jardunari norabide berria emateko (ebaluazio programa, dirulaguntzen ildoak, web plataforma, besteak beste), tokiko ekintzaren eta foru ekintzaren iraunkortasunerako jardunaren koherentzia hobetzeko eta baita lotuta dauden Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren beste programa sektorial batzuei irizpidea eskaintzeko ere (klima aldaketa, energia iraunkorra, hondartza-itsasertzaren kudeaketa integratua, ingurumen inpaktua, hiri hondakinak, Gipuzkoa Naturaldia).

Azkenik, eta aurkezten ari garen diagnostikoaren xede barruan ez egon arren, dokumentua aberasteko baliagarritzat jo da, eragile instituzionalen ingurumenaren eta iraunkortasunaren alorretako ekintza bateratuaren irudia osatze aldera, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia une honetan burutzen ari den jarduna aztertzea, bertan ere lan egiten ari baitira klima aldaketaren aurkako borrokan eta Garapen Iraunkorreko Helburuen alde. Alderdi hau 7. kapituluan aurki daiteke.



# 2

# DIAGNOSTIKOAREN HELBURUAK

2018an zehar diagnostiko bat egin da tokiko iraunkortasun-politiken eta politika horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri eta eskualdeetan klima-aldaketaren kontrako borrokari eta garapen iraunkorrari egin dieten ekarpenaren inguruan.

Diagnostiko honen helburu nagusia izan da garapen iraunkorraren kontuetan eta, bereziki, klima-aldaketaren kontrako borrokan gehien eragiten duten jarduketa-eremuetan, bai emisioak arintzeari dagokionez bai horien ondorioetara egokitzeari dagokionez dauden politikei buruzko ikuspegirik ahalik eta osoena lortzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri eta eskualde bakoitzarentzat.

Horretarako, iraunkortasunerako toki-plangintza bai multisektorialean (Tokiko Agenda 21, ingurumen-aldagaia integratzen duten udal-plan estrategikoak, klima-aldaketaren kontra borrokatzeko planak) bai sektorialean (energia-iraunkortasun planak, erosketa berdea bultzatzeko planak, mugikortasun iraunkorreko planak, etab.) ardaztu da azterlana.

Halaber, modu iraunkorrean garatzeko eta klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ingurumen-helburuak lortu ahal izateko beharrezkoa den eraldaketa sustatzeko plan eta politika horiek duten ahalmena baloratu du diagnostikoak, eta baita Euskal Herriko Klima Aldaketaren Estrategia 2050ean eta Gipuzkoako Klima Aldaketaren kontrako Borroka Estrategia 2050ean (aurrerantzean GKAE) zehaztutako helburuekin nola dauden lerrokatuta ere.

Diagnostikoan lortutako informazioari esker, indarguneetako, aukeretako, gabezietako eta beharretako asko identifikatu dira tokiko iraunkortasun-politikak planifikatzeko eta gauzatzeko orduan, eta hori lagungarria izango da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eta Udal eta eskualdeen arteko lankidetza-lerro berriak identifikatzeko eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren laguntza-politikak tokiko iraunkortasunari egokitzeko.




# DIAGNOSTIKOA EGITEKO METODOLOGIA

Hurrengo lerrotan, garapen iraunkorraren aldeko politikei eta horiek klima-aldaketaren kontrako borrokari egin dioten ekarpenari buruzko diagnostikoa egiteko erabili den metodologia eta egin diren lanak azaltzen dira.

## I. FASEA

Iraunkortasunari, informazio-iturrien identifikazioari eta udalerrietan lanak biltzeko programazioari dagokienez, udalerrien eta eskualdeen karakterizaziorako beharrezkoa den informazioa zehazten duen fasea da. Egungo informazioa duen hasierako datu-base bat sortu da, eta udalerrien hasierako karakterizazio bat egin da. Halaber, inkesta bat egin da udaletan informazioa jasotzea errazteko. Inkestak alderdi hauei buruzko informazioa lortzeko beharrezkoak diren galderak ditu:

1. **Udal-politika orokorra garapen iraunkorraren eta klima-aldaketaren kontrako borrokaren inguruan:**
   a) Tokiko Agenda 21 programan, iraunkortasunari buruzko plan estrategikotan, Klima-aldaketaren kontra borrokatzeko Planetan eta bestelakotan oinarrituta dagoen iraunkortasunerako plangintza edo prozesu estrategiko bat dagoen edo ez.
   b) Aipatutako plan eta prozesu estrategikoen iraunaldia eta dinamismoa: iraunaldia, integrazio-maila udal-kudeaketan, ebaluazioa eta segimendua, emaitzen kontuak ematea, etab.
   c) Garapen iraunkorraren inguruan udalerriak hartutako konpromisoak: Aalborg-eko Gutuna, Euskal Adierazpena, Udalsarea 21, Compact of Mayors, etab.

2. **Klima-aldaketaren kontrako euskal estrategian eta Gipuzkoako estrategian finkatzen diren bederatzi helburuak lor daitezen lagunduko duten udal- eta eskualde-politikak (2016.-2017.-2018. urteetan egindako jarduketak eta hartutako neurriak hartu dira aintzat).**

3. **Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak garapen iraunkorraren eta klima-aldaketaren kontrako borrokaren kontuetan udalei laguntzeko abiatu dituen programen erabileraren eta eraginkortasunaren inguruan udal-arduradunek duten iritzia.**
   - Sentsibilizazio eta parte-hartze programak.
   - Tokiko Ekintza Planak ebaluatzeko eta programatzeko Zerbitzua (erabilera eta emaitzen aplikazio praktikoa, hobekuntza-alderdiak, etab.).
   - Udalei zuzendutako diru-laguntzak: eraginkortasuna, gabeziak, epeak, finantza daitezkeen jarduketa-eremuak, etab.

## 2. FASEA

Antolatutako elkarrizketei esker, Gipuzkoako Lurralde Historikoa osatzen duten udalerrietako iraunkortasun-politikak karakterizatu ahal izateko udalerrien eta eskualdeen informazioa bildu dugu. Datuak eskuratzeko elkarrizketa egiteko hitzordua adostu aurretik, Ingurumen Zuzendaritza Nagusitik gutun formal bat bidali zaie udal-arduradunei ekimenaren eta informazioa jasotzeko helburuaren berri emanez.

Laguntza teknikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 89 udalekin harremanetan jarri arren, ezin izan du bildu 3 udalerriren (Elduain, Gaztelu eta Aretxabaleta) informazioa, eta horiek diagnostikotik kanpo geratu dira. Informazio gehiena udal-arduradunekin adostutako elkarrizketa baten bidez lortu da. Laguntza teknikoak modu alternatiboak eskaini ditu inkesta osatzeko: e-maila, telefonoa, bideokonferentzia.

Inkestak osatu ondoren, udalei itzuli zaizkie bildutako informazioa egiaztatzeko eta inkestan eman ezin izan duten informazioa osatzeko.

Beste iturrietako bat eskualde-erakundeak (eskualdeetako garapen agentziak, hondakinak kudeatzeko mankomunitateak, landa-garapen agentziak, etab.) izan dira, hala nola: Behemendi, Debegesa, Goieki, Goimen, Iraurgi Berritzen, Sasietako Mankomunitatea, Debagoienako Mankomunitatea, Urola Kostako Mankomunitatea, Urola Erdiko Mankomunitatea, Oarsoaldea, Tolomendi, Tolosaldea Garatzen eta Uggasa.

Erabilitako beste iturri batzuen artean daude, besteak beste, udalen, garapen-agentzien, hondakinak kudeatzeko mankomunitateen, landa-garapen agentzien, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren, IHOBEren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren web-orriak.

## 3. FASEA

Inkestetan jasotako informazioa datu-base batera irauli da informazioa aztertzea errazteko. Udalen eta eskualdeen politiketatik abiatuta, lerrokadura-taula bat osatu da klima-aldaketaren kontra borrokatzeko estrategietan finkatutako xede bakoitzari eta garapen iraunkorraren helburu bakoitzari udalerriek egiten dioten ekarpena neurtzeko.




# AZTERTUTAKO UDALERRIAK ETA SAILKAPENA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriak oso desberdinak dira, eta garapen iraunkorraren alde eta klima-aldaketaren kontra borrokatzeko politikei ekarpenak egiteko orduan dituzten baliabideak aldatu egiten dira horien tamainaren arabera. Horregatik, aztertutako udalak 3 taldetan sailkatu dira biztanle-kopurua kontuan hartuta.

Hau da sailkapena:

**UDALERRI TXIKIAK**
(1.000 biztanletik behera)

**UDALERRI ERTAINAK**
(1.000 eta 7.000 biztanle artean)

**UDALERRI HANDIAK**
(7.000 biztanletik gora)

Biztanle-kopurua kontuan hartu da, datu horrek bakarrik udalerri bakoitzak izan ditzakeen baliabideei (udal-langileak, zerbitzuak herritarrei, etab.) buruzko informazioa soilik ematen baitu. Sailkapen honekin emaitzen irakurketa zuzenagoa da, alderaketak, printzipioz, antzeko baliabide pertsonalak eta ekonomikoak dituzten udalerrien artean egiten baitira.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 86 udalerritatik lortu da informazioa.

Udalerrien sailkapena eskualdetan bereizi da eta honako hau da:

**UDALERRI TXIKIAK**
(≤1.000 biztanle)
**31 udalerri**

| ESKUALDEA | UDALERRIA |
|---|---|
| TOLOSALDEA | ABALTZISKETA |
| | ADUNA |
| | ALBIZTUR |
| | ALKIZA |
| | ALTZO |
| | AMEZKETA |
| | BALIARRAIN |
| | BELAUNTZA |
| | BERROBI |
| | BIDANIA-GOIATZ |
| | HERNIALDE |
| | IKAZTEGIETA |
| | LARRAUL |
| | LEABURU-TXARAMA |
| | LIZARTZA |
| | ORENDAIN |
| | OREXA |
| GOIERRI | ALTZAGA |
| | ARAMA |
| | GABIRIA |
| | GAINTZA |
| | ITSASONDO |
| | MUTILOA |
| | OLABERRIA |
| | ZERAIN |
| UROLA GARAIA | EZKIO |
| | ITSASO |
| UROLA ERDIA | BEIZAMA |
| | ERREZIL |
| UROLA KOSTA | AIZARNAZABAL |
| DEBAGOIENA | LEINTZ-GATZAGA |

**UDALERRI ERTAINAK**
(1.000 eta 7.000 biztanle artean)
**31 udalerri**

| ESKUALDEA | UDALERRIA |
|---|---|
| TOLOSALDEA | ALEGIA |
| | ANOETA |
| | ASTEASU |
| | BERASTEGI |
| | IBARRA |
| | IRURA |
| | AMASA-VILLABONA |
| | ZIZURKIL |
| GOIERRI | ATAUN |
| | IDIAZABAL |
| | LAZKAO |
| | LEGORRETA |
| | ORMAIZTEGI |
| | SEGURA |
| | ZALDIBIA |
| | ZEGAMA |
| BURUNTZALDEA | ASTIGARRAGA |
| | URNIETA |
| | USURBIL |
| UROLA ERDIA | ZESTOA |
| UROLA KOSTA | AIA |
| | GETARIA |
| | ORIO |
| OARSOALDEA | LEZO |
| DEBAGOIENA | ANTZUOLA |
| | ELGETA |
| | ESKORIATZA |
| DEBABARRENA | DEBA |
| | MENDARO |
| | MUTRIKU |
| | SORALUZE |
| TOLOSALDEA | TOLOSA |

**UDALERRI HANDIAK**
(+7.000 biztanle)
**24 udalerri**

| ESKUALDEA | UDALERRIA |
|---|---|
| GOIERRI | BEASAIN |
| | ORDIZIA |
| BURUNTZALDEA | ANDOAIN |
| | HERNANI |
| | LASARTE-ORIA |
| UROLA GARAIA | LEGAZPI |
| | URRETXU |
| | ZUMARRAGA |
| UROLA ERDIA | AZKOITIA |
| | AZPEITIA |
| UROLA KOSTA | ZARAUTZ |
| | ZUMAIA |
| DONOSTIA-SAN SEBASTIAN | |
| OARSOALDEA | ERRENTERIA |
| | OIARTZUN |
| | PASAIA |
| BIDASOA-TXINGUDI | HONDARRIBIA |
| | IRUN |
| DEBAGOIENA | ARRASATE - MONDRAGÓN |
| | BERGARA |
| | OÑATI |
| DEBABARRENA | EIBAR |
| | ELGOIBAR |

**OHARRA:** *Garrantzitsua da esatea Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-udalerri txikien erdia Tolosaldean biltzen dela eta horren atzetik Goierri dagoela txikienetakoak diren lau udalerrirekin. Udalerri ertainen eta handien banaketa orekatuagoa da.*



# 5

# DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

## **5.1.** TOKIKO AGENDAK 21 PROGRAMEN EGOERA

Tokiko Agendak 21 Programen egoera ezagutzeko garaian, 2016. urteko “TOKIKO AGENDA 21 PROGRAMAREN 15. URTEURRENA GIPUZKOAN” memoria instituzionalean erabilitako irizpide berak (aldaera baten batekin) hartu dira kontuan, non aipatutako programaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Sailari lotutako tokiko iraunkortasun-prozesuen azken 15 urteetako ibilbidea jasotzen zen.

Adierazleak zehazteko beharrezkoa izan den informazioa iturri desberdinetatik dator. Oraingoan, Tokiko Agenda 21 (aurrerantzean, TA21) programa udalerri bakoitzean koordinatzeaz arduratzen diren pertsonek eman digute beharrezko informazioa. Ekintza-planak ebaluatzeko foru-programek eta TA21ak garatzeko diru-laguntzen urteko dialdiak, halaber, informazioa eman digute. Aldi berean, beste iturri batzuetara jo dugu, hala nola IHOBE-ra (e-MUGI21 tresna izatea eta Udalsarea 21ekoa izatea). Horrela, lurraldean dauden 89 udalerrietatik elkarrizketatutako 86 udalerrietan A21aren egoera zein den hobeto ezagutu dugu eta informazio gehiago eskuratu dugu.



Gogorarazi behar dugu “Tokiko Agenda 21 Programaren 15. urteurrena Gipuzkoan” memoria idaztean erabilitako irizpide berak baliatu ditugula. Dena den, “Tokiko Ekintza Planaren (aurrerantzean, TEP) ezarpen-maila”ren adierazlea alde batera utzi dugu eta “eMugi21 programaren instalazioa eta erabilera eraginkorra” moldatu dugu. Oraingoan, ez da kontuan hartu TEParen ezarpen-maila, informazio horren iturria 2016ko ebaluazio-programaren emaitzei dagokielako (TEPen garapen-maila 2015erako ebaluatu zen), eta ez litzatekeelako informazio eguneratuta izango. Halaber, MUGI21 programaren instalazioari buruzko adierazlea aldatu dugu, gaur egun TEP onartu duten udalerri guztiek badutelako eMUGI21 programa, eta aipatutako TEPa kudeatzeko tresna erabilgarria ote den jakin nahi dugulako.

Hauek dira TA21en egungo egoera aztertzeko kontuan hartu diren adierazleak:

**Plangintza-adierazleak**
- TEPen onarpen-urtea.
- TEParen zenbakia: lehen, bigarren edo hirugarren belaunaldikoa.
- TEPa berraztertzeko prozesuen garapena.
- Planak berraztertzeko edo eguneratzeko prozesuetarako diru-laguntza eskaera.

**Kudeaketa-adierazleak**
- TA21a koordinatzeaz arduratzen den teknikaria edukitzea.
- Udalsarea 21eko izatea.
- eMUGI21 programa informatikoaren instalazioa eta erabilera.
- TEParen gauzatze-mailaren urteko ebaluazioa.
- TEPean finkatzen diren ekintza zehatzak gauzatzeko diru-laguntza eskaera.

**Parte-hartzeari eta kontuak emateari buruzko adierazleak**
- TA21ari lotutako parte-hartze egitura aktiboak.
- TA21aren dokumentuen argitalpena udal web-orrian.
- TEPen gauzatze-mailaren ebaluazioaren emaitzen argitalpena.

Hurrengo atalean, adierazle bakoitzari dagozkion emaitzak aztertu ditugu:

## 1. PLANGINTZA-ADIERAZLEAK

### TEParen onarpen-urtea

TEParen onarpen-urteari buruzko informazioari dagokionez, ezin izan dugu datua lortu udalerrien %8an. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien %45ek 2006. eta 2007. urteen artean onartu zuten beren TEPak. Bi urte horietan onartu zituzten TEPak udalerri ertain eta handi gehienek, horien artean, gehienak Tolosaldea eta Goierri eskualdetako udalerriak izanik. 2012. urtetik aurrera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak beren TEPak berraztertzen hasi ziren, eta gehienek TEP berriak egin dituzte tokiko iraunkortasun-erronka berriei erantzun ahal izateko.




**_1. grafikoa - TEPEN ONARPEN-URTEA_**



Kasu batzuetan, TEPak diseinatu egin dira, baina azkenean ez dira onartu (Aian, Lasarte-Orian eta Azkoitian, adibidez).

2018an, Hondarribiako eta Pasaiako Udalak murgilduta egon dira beren TEPak idazten (Hondarribiaren kasuan, II. TEPa izango da, eta, Pasaiaren kasuan, I. TEPa).

## Planaren zenbakia (belaunaldia)

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen plan gehienak lehen belaunaldikoak dira (%64). Bigarren belaunaldiko planak udalerrien %24an daude, horien artean gehienak Tolosaldea eta Goierri eskualdetako udalerriak izanik.Hirugarren eta laugarren belaunaldiko planak udal handietakoak dira soilik.

Aztertutako udalerrien %5ean, ezin izan dugu jakin lehen, bigarren edo hirugarren belaunaldiko planak ote diren.

**2. grafikoa - TEP ZENBAKIA**




## Planaren berrikuspena eta berrikuspenerako diru-laguntza eskaera

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien %36k soilik berrikusi dituzte beren TEPak, horietatik %9a udalerri txikiak eta %6a ertainak izanik (udalerri txikien %26 eta udalerri ertainen %16).

Udal batzuek TEPa berrikusteko diru-laguntza eskatu zuten uneren batean, baina azkenean ez zuten prozesua osatu (Zizurkil eta Elgoibar, esaterako).




## 2. KUDEAKETA-ADIERAZLEAK

TA21a koordinatzeaz arduratzen den teknikari bat edukitzea eta Udalsarea 21ekoa izatea tamainari eta, ondorioz, udalak dituen bitartekoei proportzionalak dira. **Elkarrizketatu ditugun 86 udalen erdiek** toki-iraunkortasuneko **teknikari arduradun bat dute eta udalerrien %72 Udalsarea 21eko kide dira**.



**eMUGI21** tresnaren erabilpenari dagokionez, diferentzia txikiagoa da, udalerri txikien eta ertainen %13k soilik erabiltzen baitute; udalerri handien %67k, berriz, instalatuta dute, eta beren TEPak kudeatzeko eta horien segimendua egiteko erabili ohi dute.

**TEParen gauzatze-mailaren ebaluazioa** urtero egin da 2016. urtera arte. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien %43k beren TEPa ebaluatu dute noizbait. Adierazle honetan ere desberdintasunak daude udalerrien artean; udalerri txikien %39k beren TEPa ebaluatu dute; soilik udalerri ertainen %29k, berriz, ebaluatu dute. Udalerri handien artean, udalen %67k ebaluatu dituzte beren TEPak.

Interesgarria da aipatzea Debabarrena eta Goierri eskualdeetako kasuak. TA21eko eskualdeko ekintza-panak dituzten arren, soilik Debegesa eskualdeko garapen-agentziak ebaluatu zuen eskualdeko TEParen gauzatze-maila foru-zerbitzu horren azken edizioan.

Udalerri guztien erdiak baino gehiagok (%58) **eskatu diete** (azken 3 urteetan) **diru-laguntzaren bat Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari**: udalerri handien, ertainen eta txikien %75ek, %55ek eta %48k, hurrenez hurren. Adierazle honek erakusten du nola udalerrien tamaina diru-laguntzak eskatzeko eta ondoren kudeatzeko gaitasunarekin lotuta dagoen, udalerri ertainen eta txikien arteko desberdintasuna bereziki handia ez den arren.

***3. grafikoa - KUDEAKETARI LOTUTAKO ADIERAZLEAK***



## 3. PARTE-HARTZEARI ETA KONTUAK EMATEARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Udalerrien tamaina erabakigarria da berriro ere parte-hartzeari eta komunikazioari buruzko adierazleetan. Esan behar dugu **TA21ari lotutako parte-hartze prozesuen** kopurua Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan oso txikia dela (%9), eta horietako gehienak tamaina handiena duten udalerrietan izaten direla (%17).

Bestalde, udalerri guztien %38k udal web-orrian argitaratzen dituzte TA21arekin zerikusia duten dokumentuak. Udalerri handi gehienek argitaratzen dituzte (%71), ertainek ez bezala (%23). Udalerri txikiek interesa erakusten dute dokumentu horiek publikatzeko (%29).

**TEPen gauzatze-mailaren ebaluazioaren emaitzen argitalpenarekin**, proportzioa mantentzen da, baina neurri txikiago batean, guztira udalerrien %29arekin.Beren TEPa ebaluatu duten udalerri-kopurua txikiagoa denez, txikiagoa da ere emaitza horiek argitaratzen dituzten udalerrien kopurua.

***4. grafikoa - PARTAIDETZARI ETA KONTU-EMATEARI LOTUTAKO ADIERAZLEAK***




Adierazle horiei guztiei esker, TA21en egoera Gipuzkoan zein den jakin ahal izan dugu. Egindako diagnostikoak aukera ematen du TA21ak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri bakoitzean duen iraunaldi-mailaren ikuspegi bat izateko.

Ohartarazi nahi dugu diagnostikoaren atal honetan egin dugun balorazioak ez duela prozesuaren kalitatea udalerri bakoitzean zehatz-mehatz aztertzen, baizik eta udal-kudeaketan TA21a eta TEPak dauden ala ez zehaztera mugatzen da.

## TEPen EGOERA

2015eko egoera eta gaur egungoa nahiko antzekoak dira. Soilik zertxobait (%1) txikitu da TA21 ez duten udalerrien kopurua (%4tik %3ra igaro da), eta arinki gutxitu da beren TA21a indarrean ez duten udalerrien kopurua (%36tik %35era igaro da) eta beste puntu bat TA21a teorikoki indarrean izan arren, aktiboki kudeatzen ez duten udalerrien kasuan (%17tik %16ra). Hala ere, neurri berean handitu da (teorikoki, kudeatu ez arren) beren TEPak indarrean dituzten udalen kopurua eta eguneratuta dituztenena eta aktiboki kudeatzen dituztenena.




Udal bakoitzak TA21aren garapenean eta, zehazki, onartutako iraunkortasunerako TEParen ezarpenean eta segimenduan duen inplikazioak desberdina izaten jarraitzen du. Esan behar dugu udalerrien herenek zaharkitua dituztela beren TEPak, eta udalerrien %19an indarrean daudela, baina ez direla aktiboki kudeatzen.

**5. grafikoa - TA21EN EGOERAREN BILAKAERA**




Tamaina desberdineko udalerrien arteko diferentzia argia da. Bitarteko gehiago dituzten udalerri handien erdiek aktiboki kudea ditzakete beren TEPak, ez ordea bitarteko gutxiago dituzten udalerriek. Udalerri txikien ia erdiek ez dute indarrean TA21a, eta %6k ez dute oraindik hasi TA21eko inolako prozesurik. Udalerri ertainen artean, antzeko zerbait gertatzen da, TA21a teorikoki indarrean duten udalerrien kopurua handiagoa izanik (%26).

**6. grafikoa - TA21EN EGOERA, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA**



## **5.2.** PLANIFIKAZIOA ETA KONPROMISOAK

Atal honetan kontuan hartu dira udalerriek eta eskualdeek hartu dituzten iraunkortasun-planak eta -konpromisoak, TA21eko planak ez direnak, zehazki, udal batzuek garatutako tokiko iraunkortasunaren ikuspegi osoa duten plan estrategikoak eta klima-aldaketaren kontra borrokatzeko planak. Halaber, Lurraldeko udalerriek garapen iraunkorraren inguruan hartutako konpromisoak aztertu dira.

### Klima-aldaketaren kontra borrokatzeko planak

Oraingoz udalerri gutxik onartu dute klima-aldaketaren kontrako plan edo estrategiaren bat, eta kasu guztietan, iraunkortasun-prozesu estrategikotan ibilbide luzea izan duten udalerri handiak dira. Hauek dira klima-aldaketaren kontra borrokatzeko plan edo estrategiaren bat duten udalerriak (udalerri handien %29 dira):

- Tolosak eta Zarautzek "Klima-aldaketaren kontra borrokatzeko udal-programa" bat dute.
- Legazpik "klima-aldaketaren kontra borrokatzeko udal-programa" (2008-2014) berraztertu du eta, ondorioz, "Legazpi Klima 2030 plan estrategikoa" (2017-2030) onartu du.
- Urretxuk badu klima-aldaketaren kontra borrokatzeko (arintzeko eta egokitzeko) udal-programa bat 2017-2030 aldirako, eta Zumarragak, helburu berdinarekin, "Klima-aldaketaren kontra borrokatzeko ekintza-plana (2017-2030)" diseinatu du.
- Donostiak bere "Klima-aldaketaren estrategia" (2018) eta "Klima-aldaketara egokitzeko plana" (2017) egin ditu "Klima 2050 Ekintza Planaren" barruan.
- Errenteriak "Klima-aldaketara egokitzeko plana (2018-2030)" onartu du.

### Garapen iraunkorrerako beste plan estrategiko batzuk

Udalerri batzuek, hala nola Orexak, Mutiloak, Antzuolak, Zumaiak eta Errenteriak iraunkortasun-irizpideak dituzten plan estrategikoak garatu dituzte TA21en prozesuen metodologia ofiziala ez den metodologia alternatibo bat erabiliz. Hau da, udal horiek, azken urteetan, hausnarketa estrategikoak egin dituzte herriko sektore nagusien ekarpenei esker, baina plan estrategikoak idazteko garaian, ez dute Udalsarea 21ek EAEko TA21ko planak berrikusteko finkatu duen metodologia jarraitu. Hala ere, plan horiek tokiko iraunkortasunaren aldagai desberdinak dituzte.

## Konpromisoak garapen iraunkorraren inguruan

TA21eko lehen TEPa onartuta duten ia udalerri guztiek sinatu dute Aalborg-eko gutuna (Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien %88). Udalerri gehienek ez dituzte sinatu, ordea, Aalborg-eko konpromisoak.

Klima-aldaketaren kontra borrokatzeko estrategiaren bat duten udalerriek hartu dituzte neurri handi batean energia-eraginkortasuna bultzatzeko eta klima-aldaketaren kontra borrokatzeko irizpideak dituzten konpromisoak, hala nola “Compact of Mayors” (udalerrien %9) eta “Covenant of Mayors” (udalerrien %3).




*Irudia: www.globalcovenantofmayors.org*

2017an, Udalsarea 21eko udalerrietako (Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien %72) ordezkariek “Euskal Adierazpena” eta “2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa” izenpetu zuten; izan ere, 2017ko apirilean antolatutako Herri eta Hiri Iraunkorren Konferentzian egin zen Udalsarea 21eko Batzorde Exekutiboan, sareko kideen konpromiso horiekiko atxikipena onartu zen.

**7. grafikoa - GARAPEN IRAUNKORRARI LOTUTAKO KONPROMISOAK**



Udalerrien %19 tokiko garapen iraunkorrarekin lotutako beste konpromiso bati atxiki zitzaien, esate baterako:

- Orendainek, 2017an, nabarmentzeko moduko 2 konpromiso hartu zituen: "Guztion onerako ekonomia" eta bere atxikipena "Transition town" izeneko udalerrien sareari.
- Udalerrien zati garrantzitsu batek "Alkateen itunerantz zuzenduz" ekimena izenpetu du: Amasa-Villabonak, Astigarragak (2014), Beasainek (2014), Ordiziak (2014), Legazpik (2013), Azpeitiak (2013), Eibarrek (2017) eta Elgoibarrek (2016).
- Oñatik eta Donostiak 2010ean eta 2016an hurrenez hurren egin zuten bat "Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Munduko Itunarekin".




*Irudia: www.Udalsarea21.net/Argitalpenak*

Nabarmendu behar dugu elkarrizketatutako udal askok ez dutela hitzarmen edo konpromiso horien onarpenaren berri, bereziki "Euskal Adierazpenaren" eta Euskadiko 2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren onarpenarena.

## 5.3. POLITIKAK ETA EKARPENA ARLOKA

## ENERGIA

### A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

#### UDAL-ESPARRUA

Azken urteetan Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri askok energia-plan desberdinak garatu dituzte. Batzuk udal-planak dira eta beste batzuk eskualde-planak.Energia Iraunkorrerako Ekintza Planak dituzten 7 udalerri daude: Errenteria, Oñati, Donostia, Irun, Hondarribia, Hernani eta Usurbil. Astigarragak eta Elgoibarrek ere badituzte energia udal-planak, baina ez daude Alkateen Itunaren sinadurari lotuta. Beste udal batzuek plan zehatzagoak egin dituzte herriko argiak edo udal-instalazioak planifikatzeko asmoz: esaterako, Beasainek, Lazkaok, Azpeitiak edo Pasaiak. Esan behar dugu Tolosaldea edo Goierri eskualdeetan, adibidez, udal txikiek oro har udal energia-planik ez dute arren, eskualde mailako energia-planetan azaltzen direla.

Udal-araudiari dagokionez, Pasaiak eta Andoainek ordenantza bana dute herriko argien inguruan; Donostiak eraikinetan energia-eraginkortasuna bultzatzeko ordenantza bat du eta Usurbilek energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarritan inbertitzera zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen araudi bat du.

#### ESKUALDE-ESPARRUA

Tolosaldeak, Goierrik, Debabarrenak, Urola Garaiak, Oarsoaldeak eta Urola Erdiak eskualde-plan energetikoak egin dituzte beren garapen-agentzien bidez. Beterri-Buruntzaldeak eta Debagoienak ere lan egin dute energia kontuetan, baina batez ere gizarteari eta/edo enpresei begira.

## B / JARDUKETAK

**8. grafikoa - ENERGIAREN ARLOAN GAUZATUTAKO JARDUERAK 2016-2018 (%)**



## UDAL-ESPARRUA

Udalerri txikien (%61), ertainen (%84) eta handien (%100) artean gehien garatu den jarduketa-mota da herriko argietan kontsumoa optimizatzea, batez ere egungo argien ordez, eraginkorragoak diren LED motako argiak jartzeari lotutako neurriak.

Jarraian, bai udalerri txikietan bai ertainetan (%39 eta %65 hurrenez hurren) udal-eraikinetan energia-kontsumoa optimizatzera bideratutako jarduketak daude, eta sentsibilizazioa eta prestakuntza energia kontuetan (%65 eta %26 hurrenez hurren).

Tamaina ertaineko udalerrien kasuan, udal jabetzako eraikinak eta instalazioak energia berriztagarriez hornitzeko inbertsioek ere garrantzia izan dute 2016-2018 urteetan, halako udalerrien %26ak garatu baititu.

Udalerri handietan, gehien garatzen den bigarren jarduketa da sentsibilizazioa (%75) eta udal-eraikinetan optimizazio energetikorako inbertsioak (%75).



### ESKUALDE-ESPARRUA

Eskualdeetako garapen-agentziek garatu dituzten jarduketei dagokienez, nabarmentzeko modukoa da horietako gehienek energia berriztagarrien ahalaren azterlanak edo azterketak egin dituztela: Tolosaldea Garatzenek, Iraurgi Berritzenek, Tolomendi-Goimenek, Debegesak edo Uggasak garatu dute jarduketa-mota hori.

Bestalde, eskualde guztiek egiten dituzte bai herritarrak bai eragile publikoak kontzientziatzera eta trebatzera zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak; eta udalerri gehienetan dagokion garapen-agentziak zuzentzen duen sistemaren bat (modulu informatikoak) jarri da energia-kontsumoaren segimendua eta kontrola egiteko.

Uggasak, Iraurgi Berritzenek eta Debegesak zenbait ikuskapen energetiko ere egin dituzte beren eraginpean dauden udalerrietan.

Garapen-agentziek eskualdetan egin dituzten jarduketak, Tolosaldea, Urola Erdia eta Debabarrena (Debegesa) eskualdeen kasuan, zuzenduta egon dira, batetik, energia berriztagarrien ahala aztertzera, eta bestetik, energia kudeatzeko eta aurrezteko sentsibilizazio-, prestakuntza- eta/edo laguntza-kanpainetara. Debegesak, berriz, herriko argien eta udal-instalazioen ikuskapenak eta diagnostikoak egin ditu Debabarrenan.

## MUGIKORTASUNA

## A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

### UDAL-ESPARRUA

Eskualde txikien artean soilik Tolosaldeko udalerriek dute Mugikortasun Plan bat (Udaltalde 21 Ernioaldeako kide ziren udalerriek beren bizikleta bidezko mugikortasun-plana dute 2008. urteaz geroztik, eta ondoren, 2012an, Tolosaldea Garatzenek eskualde osorako idatzi zuen mugikortasun-plana –“Tolosaldeko bizikleta bidezko mugikortasun-plana”–). Kategoria horretako udalerri batek berak ere ez du indarrean mugikortasun iraunkorrari buruzko araudi espezifikorik.

7.000 biztanle arteko udalerriei dagokienez, herenak baino gutxiagok dute mugikortasun-planen bat (Mutriku, Eskoriatza, Villabona, Zizurkil...). Usurbilek bizikletentzako eta oinezkoentzako plan bat du. Bestalde, Astigarraga Hiri Mugikortasun Plana idazten ari da. Tamaina ertaina duten 31 udalerrietatik lauk dute zirkulazioari buruzko araudi espezifiko bat.

Mugikortasun Plan bat duten udalerri handiak, hau da 7.000 biztanletik gorako udalerriak dira Beasain, Andoain, Hernani eta Zarautz. Kategoria honetan Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plan bat duten 6 udalerri nabarmentzen dira: Legazpi, Zumarraga, Azpeitia, Donostia, Irun eta Oñati. Errenteriako Udalak bizikletentzako eta oinezkoentzako plan bat du. Hondarribiako Udala Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana idazten ari zen diagnostiko hau idazten ari ginenean. Udalerri handien %54ek badute trafikoari buruzko ordenantza motaren bat.




### ESKUALDE-ESPARRUA

Soilik bi garapen-agentziek diseinatu dituzte eskualdetarako mugikortasun-planak. Tolosaldea Garatzenek eskualde mailan bizikleta sustatzeko plan bat du 2012. urteaz geroztik; Debabarrenak, berriz, Debegesak koordinatzen duen mugikortasun-plan bat du 2005. urteaz geroztik.

## B / JARDUKETAK

**9. grafikoa - MUGIKORTASUNAREN ARLOAN GAUZATUTAKO JARDUERAK 2016-2018 (%)**



### UDAL-ESPARRUA

Udalerri txikien %35ek oinezkoen mugikortasuna hobetzera bideratutako jarduketak egin dituzte: oinezkoentzako ardatzak sortu, kaleak oinezkoentzat egin, etab. %23k neurriak abiatu dituzte baserri-aldetako eta herri-gunean ez dauden auzoetako garraio publikoa hobetzeko. Jarraian, udalerri txikietan garatu diren proiektuak arlo hauetan ardaztu dira: hobari fiskalak (%23), bizikleta bidezko mugikortasunaren hobekuntza (%19), eta sentsibilizazioa eta prestakuntza (%10).

Udalerri ertainei dagokienez, gehien garatu diren jarduketak udalerri txikietan gauzatu direnen antzekoak dira. Udalerri ertainetako udalen %55ek mugikortasunari lotutako hobari fiskalak aurreikusten dituzte, %52k ekintzak gauzatu dituzte oinezkoen mugikortasuna hobetzeko, %32k bizikleta bidezko joan-etorriak errazteko eta %13k mugikortasun iraunkorrago bat sustatzeko sentsibilizazio-kanpainak egin dituzte.

Udalerri handiek sentsibilizatzeko (%71), bizikleta bidezko mugikortasuna hobetzeko (%58) eta oinezkoen mugikortasuna hobetzeko (%54) ekintzak egin dituzte batez ere. 7.000 biztanletik gora dituzten udalerrien %42k garraio publikoaren erabilera herritarren artean sustatzeko ekintzak abiatu dituzte. Udalen %83k hobari fiskalak aplikatzen dituzte arlo horretan.

Oro har, garapen-mailarik handiena izan duten ekintzak izan dira hobari fiskalekin zerikusia dutenak (udalerrien %51k aurreikusten dituzte horiek beren ordenantzetan), oinezkoen mugikortasuna sustatzeko jarduketak (%48) eta bizikleta bidezko mugikortasuna hobetzekoak (%36).



### ESKUALDE-ESPARRUA

Eskualdetako garapen-agentziek garatzen dituzten jarduketei dagokienez, nabarmendu behar dugu bai UGGASAk bai Tolosaldea Garatzenek eskualde mailan Europako Mugikortasunaren Astea antolatzen dutela edo udalei hori antolatzen laguntzen dietela.

## HONDAKINEN PREBENTZIOA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

### A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

#### UDAL-ESPARRUA

Atal honetan, beren udalerrientzat ordenantza espezifikoak onartu dituzten udalerriak baino ez dira kontuan hartu, aintzat hartu gabe Mankomunitateen ordenantzak (hurrengo puntuan aztertu ditugu).

1.000 biztanlera arteko udalerrien artean, soilik Adunako Udalak (etxeetako eta saltokietako hondakinak kudeatzeari buruzko udal-araudia) eta Leintz-Gatzagako Udalak (konpostaje komunitarioari buruzko araua) dute hondakinei buruzko ordenantza propioa.

Hondakinei buruzko berezko araudia egin duten udalerri ertainetako udalak San Marko mankomunitatea osatzen dutenak izan dira: Usurbil, Lezo, Urnieta eta Astigarraga. Ibarrak, Tolosaldeko mankomunitatekoa izan arren, etxeetako eta saltokietako hondakinak biltzeari eta tratatzeari buruzko ordenantza propioa du ere.

Zestoako Udalak eta Usurbilgo Udalak hondakinak kudeatzeko planak dituzte. Azken honek hondakinak prebenitzeko plan bat du (Usurbil Zero Zabor, 2017-2023).

7.000 biztanletik gora dituzten udalerrien %54k hondakinen kudeaketari (bilketa, tratamendua, konpostajea, etab.) buruzko araudi zehatza dute. Zehazki, San Marko mankomunitatea osatzen duten udalerriek (Hernani, Errenteria, Donostia, Pasaia...). Errenteriako eta Donostiako udalek hondakinak prebenitzeko udal-planak dituzte.

#### ESKUALDE-ESPARRUA

Gainerako udalerriek mankomunitateen barruan garatutako ordenantzak jarraitzen dituzte: Bidasoa-Txingudi, Debabarrena, Debagoiena, Sasieta, Tolosaldea, Urola Kosta eta Urola Erdia. Urola Kostako mankomunitatea eskualdeko Hondakinen Prebentzio Plana berraztertzen ari da.

## B / JARDUKETAK

*10. grafikoa - HONDAKINEN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ARLOAN GAUZATUTAKO JARDUERAK 2016-2018 (%)*




### UDAL-ESPARRUA

Udalerri txikietan garapen-mailarik handiena duten jarduketa-eremuek zerikusia dute biohondakinen kudeaketarekin (%90) eta sentsibilizazioarekin (%87). Tolosaldea Garatzen ekonomia zirkularrari buruzko diagnostiko bat egiten ari da Tolosaldeko udalerrietan, udalerri txikien %55 izanik.

Udalerri ertainek biohondakinen kudeaketara (%81k), sentsibilizaziora (%77k) eta hondakinen gaikako bilketa-sistemen eraginkortasuna ebaluatzeko eta handitzeko neurrien ezarpenera (%58) bideratutako ekintzak gauzatu dituzte batez ere.

7.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez, sentsibilizatzeko (%88) eta hondakinen gaikako bilketa-sistemen eraginkortasuna ebaluatzeko eta handitzeko neurriak inplementatzeko jarduketak (%67) eta materia organikoa kudeatzeko ekintzak nabarmentzen dira (%58).




## ESKUALDE-ESPARRUA

Mankomunitate guztiak herritarrei, enpresei eta/edo saltokiei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina desberdinak egiten ari dira gaikako bilketa-tasak edo horren kalitatea hobetzeko asmoz. Eskualde gehienetan, azken urteetan, hobekuntzak egin dira etxeetako eta saltokietako hondakinen gaikako bilketa-sisteman.

Halaber, hobari fiskal orokortuak daude hondakin organikoak biltzeko edukiontzia erabiltzen duten edo konpostaje-sistemari (indibiduala, komunitarioa, etab.) atxikitzen zaizkien familientzat.

# URA ETA IBAIKO EKOSISTEMAK

## A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

### UDAL-ESPARRUA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek ez dute ez uraren ziklo osoari ez ibaiko ekosistemen babesari lotutako plan espezifikorik. Dena den, udalerri askok arlo horiei lotutako ekintzak dituzte beren TA21 ekintza-planetan, energia iraunkorrerako ekintza planetan, klima-aldaketaren kontra borrokatzeko planetan eta plan estrategikoetan.

Uraren zikloari buruzko araudiari dagokionez, 1.000 biztanletik beherako udalerrietan, soilik Adunako Udalak du uraren zikloarekin zerikusia duen alderdi bati lotuta dagoen araudi propioa (hodi biltzailera doazen isurketak arautzen dituen erregelamendua). Tamaina ertaineko udalerriei dagokionez, 6 udalek (Eskoriatza, Lezo, Orio, Urnieta, Zaldibia eta Zestoa) dute ura kudeatzeko ordenantza bat.

Bestalde, 12 dira uraren zikloa edo hodi biltzailera doazen isurketak kudeatzeko ordenantzaren bat duten udalerriak (Zumaia eta Eibar, besteak beste).

Halaber, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kide diren udalerriek –udalerri gehienek, Bidasoaldeak eta Añarbeko Urak hartzen dituen eskualdeek izan ezik– uraren ziklo osoari lotutako zerbitzuak jasotzen dituzte.



## B / JARDUKETAK

*11. grafikoa - URARI ETA EKOSISTEMA HIDRIKOARI LOTUTAKO JARDUERAK 2016-2018 (%)*




### UDAL-ESPARRUA

Udalerri txiki gehienek, zehazki %71k ur-horniketa eta -saneamendua hobetzera bideratutako inbertsioak egin dituzte. Jarraian, udalerrien %13k ur-sistemen egoera hobetzeko azterlanen edo jarduketaren bat egin dute, eta baita instalazio publikoetan kontsumo hidrikoa optimizatzera bideratutako jarduketa espezifikoak ere. Nabarmendu behar dugu, halaber, %87k enpresen isurketak kontrolatzeko eta kudeatzeko neurriak hartu dituztela Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez.

Udalerri ertainetako ia udal guztiek –udalerrien %94k– egiten dituzte hobekuntzak horniketa- eta saneamendu-sarean. %32k ur-sistemekin zerikusia duten azterlanak egin edo hobekuntzak abiatu dituzte, eta %29k ibaiak edo errekak garbitzeko eta aisiarako eremuak egokitzeko jarduketak gauzatu dituzte. Bestalde, ia udal guztiek (%97) isurketak kontrolatzen dituzte ura kudeatzeko erakunde publikoen bidez: Añarbeko Urak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.

7.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez, guztiek batez ere ura kudeatzen duten erakunde publikoen bidez kontrolatzen dituzte ibilguetara egiten diren isurketak. Ur-kanalizazioak hobetzeari dagokionez, udalen %67k azpiegiturak hobetzera bideratutako jarduketaren bat egin dute. Udalerri handietan asko garatu diren beste jarduketa batzuk dira udaleko eta udalerriko instalazioetako ur-kontsumoan eraginkortasuna hobetzera bideratutako neurriak (%63), ibaien garbiketak eta aisiarako eremuen egokitzapena, eta uraren ziklo osoaren inguruko prestakuntza (%58).

## ESKUALDE-ESPARRUA

Eskualdeeko garapen agentziei dagokienez, bai Tolosaldea Garatzenek bai Goiekik baterako jarduketak egin dituzte ibai-ekosistemak leheneratzeko (espezie exotiko inbaditzaileak kendu eta kontrolatu, etab.).

Debegesak, URArekin batera, Deba eta Ego ibaiak leheneratzeko eta garbitzeko zenbait jarduketa egin ditu.



## NATURA-INGURUNEA ETA LANDA-INGURUNEA

### A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

#### UDAL-ESPARRUA

1.000 biztanlera arteko udalerrien barruan, Itsasok eta Itsasondok Paisaiaren Ekintza Planak dituzte. Araudiari dagokionez, 31 udalerritatik 5ek arauak dituzte natura-ingurunearen eta/edo landa-ingurunearen alderdi desberdinak arautzeko.

Aztertu ditugun udalerri ertainetako 31 udalerrietatik 7k ekintza-planak dituzte natura-ingurunea eta landa-ingurunea hobetzeko (aipatutako udalerrietako 3k ibai-ekosistemei lotutako Ekintza Planak dituzte: Usurbilek, Debak eta Mutrikuk). Udalerri ertainetako 6 udalek natura-ingurunean baimenduta dauden erabilerei buruzko arau espezifikoak dituzte.

7.000 biztanletik gorako udalerrietan, natura-inguruneari eta landa-inguruneari eragiten dieten plan espezifikoak (9) eta araudi espezifikoa (10) dituzten udal gehiago daude. 9 udaletatik 3k –Errenteriak, Tolosak eta Oñatik– ibaiko paisaia babesteko planak dituzte.



### ESKUALDE-ESPARRUA

Debegesa eskualdeko garapen agentziak Deba ibaiaren Paisaiaren Ekintza Plana diseinatzeko lanak koordinatu ditu Deba eta Mutrikurako.

Landa Garapen Agentziei dagokienez, gehienek landa-garapena sustatzeko eta lehen sektoreko jarduerak dinamizatzeko planak edo programak dituzte, esaterako Tolomendik, Behemendik, Goimenek eta Urkomek.

## B / JARDUKETAK

*12. grafikoa - NATUR ETA LANDA-EREMUAN GAUZATUTAKO JARDUERAK 2016-2018 (%)*



## UDAL-ESPARRUA

Udalerri txikien artean, mugikortasunaren hobekuntza landa-ingurunean da gehien garatzen den jarduera, zehazki, kasuen %77an. Udalerrien %42k tokiko produktuak sustatzera bideratutako ekintzak gauzatzen ditu, eta soilik %26k egin dituzte natura- eta landa-ingurune kontuetan sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak.

Udalerri ertainetan, txikietan bezala, udalek gehien gauzatzen dituzten jarduerak dira mugikortasuna hobetzea (%81), tokiko produktuak sustatzea eta fauna eta flora inbaditzailea errotik kentzea (%48). Laugarren lekuan, tamaina horretako udalerrien %42k egiten dituzten natura- eta landa-ingurunea babesteko azterlanak egongo lirateke.

Udalerri handietan, landa-ingurunean mugikortasunaren eta irisgarritasunaren hobekuntzak jarraitzen du izaten udalek (%67) gehien garatutako jarduketa-mota, aurreko udalerriek baino gutxiago garatu arren. Udalen %58k natura-ingurunea aztertzeari eta babesteari lotutako jarduketaren bat egin dute; eta %50ek sentsibilizazio-ekintzak gauzatu dituzte.

## ESKUALDE-ESPARRUA

Landa Garapen Elkarteei dagokienez, guztiek egiten dituzte tokiko eta hurbileko produktuen kontsumoa bultzatzeko jarduerak ekimen desberdinen bidez, eta baita beren eraginpeko esparruan lehen sektorearen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako jarduketak ere: azokak, kanpainak, tokiko produktuen eta ekoizleen gidak, diagnostiko eta azterlan desberdinak, “Bertatik Bertara” eta “Beterri Km0” proiektuei eta “Jan Tolosaldea” eta “Eskola Jangela” ekimenei esker.



## ADMINISTRAZIO BERDEA

### A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

#### UDAL-ESPARRUA

Lurraldeko udalerri bakar batek ere ez du indarrean Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea arautzen duen plan espezifikorik. Esan behar dugu, 2010ean, Tolosaldeko udalerriek, Tolosaldea Garatzenekin eta Tolomendirekin batera, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen aldeko konpromisoa izenpetu zutela, zeinak Administrazio Berdeari buruzko 5 arlo zehatz dituen. Dokumentu horren iraunaldia amaitu arren, hori sinatu zuten udal batzuek bertan finkatutako irizpideak eta prozedurak aplikatzen jarraitzen dute.

Udalerri handietako udalek Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari buruzko helburu eta ekintza zehatzak dituzten planak dituzte, horietako 3k modu ordenatuan eta sistematikoan egin arren: Donostiak (TA21en 3. TEPa), Errenteriak (2009an onartutako “Udal ingurumen-estrategia”) eta Legazpik (“Erosketa publiko etikoa gauzatzeko ekintza-plana (2009-2012)”, zeinak gizarte-justizia, ingurumen eta bidezko merkataritza irizpideak biltzen dituen).

#### ESKUALDE-ESPARRUA

Arlo honetan batera lan egin den eskualde bakarra Tolosaldea izan da; Tolosaldea Garatzenen eta Tolomendi Landa Garapen Agentziaren koordinaziopean, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen aldeko konpromisoa idatzi zuen.



## B / JARDUKETAK

**13. grafikoa - ADMINISTRAZIO BERDEAREN ESPARRUAN GAUZATUTAKO JARDUERAK 2016-2018 (%)**




### UDAL-ESPARRUA

Erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak sartzeari dagokionez, gehienek aztertu dugun aldian (2016-2018) jarduketak egin dituzten arren, oraingoz ez da irizpide horien aplikazioa sistematizatu.

Udal gehienek, txikiek, ertainek edo handiek, ingurumen-irizpideak dituen bulego papera erabiltzen dute; eta toki-erakunde asko, halaber, ingurumen-klausulak sartzen ari dira pixkanaka erosketa eta kontratazio batzuetan. Udal bakar batek ere ez ditu modu orokortuan sartzen irizpide horiek baldintza-agiri guztietan.

Bestalde, Donostia eta Eibar jada atxiki zaizkio Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programari.



## ESKUALDE-ESPARRUA

Arestian aipatu dugun moduan, Tolosaldea Garatzenek, eskualdeko 19 udalekin eta Tolomendirekin batera, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen aldeko konpromisoa onartu zuen 2010ean. Dokumentuaren helburua da, erosketa eta kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak sartzeko orduan, Tolosaldeko udalerriei orientatzea.

## FISKALITATE BERDEA

***14. grafikoa - UDALERRIAREN TAMAINAREN ETA EZARRITAKO HOBARI FISKALAREN ARABERAKO UDALERRIEN EHUNEKOA (2016-2018)***



## UDAL-ESPARRUA

Fiskalitate berdearen barruan, udal-ordenantza fiskaletan dauden hobariak dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri gehienetan zabalduen dagoen tresna. Zehazki, batez ere energiaren (Lurraldeko udalen %67), mugikortasunaren (udalen %52) eta hondakinen (Gipuzkoako Lurralde Historikoaren %37) arloetan aplikatzen dira. Ehuneko horiek proportzionalki mantentzen dira udalerrien tamainaren arabera.

Badira ingurumenarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten arlotan aplikatzen diren beste hobari fiskal batzuk, udalerri hauetan ikus daitekeen moduan:

- **Arrasate:** %100eko hobaria nekazarien azokan postu baten erabileraren gaineko tasan.
- **Astigarraga:** %95eko hobaria Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergan, ustekabeko egoera edo ezbehar baten ondorioz jasandako kalteak (hala nola suteak, leherketak edo uholdeak, uhaldiak, traganarruak, ekaitzak, etab. bezalako kalteak sortzen dituen edozein fenomeno meteorologiko) konpontzera zuzendutako lanetarako.
- **Mutriku:** %100 arterainoko hobaria udal-lizentziak lortzeko tasetan hondamen-gertaera batek guztiz edo partzialki suntsitutako eraikinak berreraikitzeko.
- **Donostia - San Sebastián:** Hobariak hirigintza-lizentziak lortzeko tasetan, baldin eta eskatzaileek naturak edo zoriak modu saihestezinean eragindako istripuren bat (suteak, terrorismoko ekintzak, uholdeak...) jasan badute.



- **Usurbil:** Hobaria Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ingurumena kudeatzeko sistemak dituztela egiaztatzen duten enpresentzat.

Aldi berean, ingurumen-salbuespenak ere fiskalitate berdearen beste tresna mota batzuk dira, adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

- **Astigarraga, Donostia eta Irun:** Motel hazten diren espezi jakinak landatzen dituzten pertsonak salbuetsita daude Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaintzetik, baldin eta aprobetxamendu nagusia zura edo kortxoa baldin bada, eta zuhaiztiaren dentsitatea dena delako espeziearenarena denean. Halaber, baso-administrazioak onartutako antolamendu-proiektuei edo plan teknikoei lotuta dauden basoberritzeak edo arboladi-masen leheneratzeak egiten diren mendien azalera ere salbuetsita dago zerga hori ordaintzetik.

### ESKUALDE-ESPARRUA

2017. eta 2018. urteetan, Tolosaldea Garatzenek azterlan bat egin zuen energiaren arloan, fiskalitate berdearen inguruan, eskualdeko udaletan, eskualdeko energia planaren baitan.



## KLIMA-ALDAKETA ETA ARRISKU NATURALAK

### A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

#### UDAL-ESPARRUA

Bai udalerri txikitan bai ertainetan ez dute klima-aldaketaren inguruko inolako planik eta/edo araudirik egin. Dena den, egia da bi udalerrik badutela suteen prebentzio eta alerten plan bat.

Hauek dira klima-aldaketaren aurka borrokatzeko plan bat idatzi duten udalerri handiak (7.000 biztanletik gora): Errenteria, Donostia, Legazpi, Tolosa, Urretxu, Zarautz eta Zumarraga. Azpimarratu behar dugu horietako bik udal-ordenantzak dituztela gaiari buruz: Tolosak eta Legazpik.

Gainerakoek klima-aldaketaren aurka borrokatzeko edo horren ondorioak arintzeko plan espezifikorik izan ez arren, udal batzuek erronka horri aurre egiteko helburuak eta ekintzak gehitu dizkiete beren plan estrategikoei edo TEPei.

Bestalde, uholdeen aurrean larrialdi-plan zehatz bat edo larrialdi-planen bat duten 8 udalerri daude.

#### ESKUALDE-ESPARRUA

Eskualdeetako erakunde publiko bakar batek ere ez du oraindik klima-aldaketaren aurka borrokatzeko planik edo estrategiarik garatu.

# B / JARDUKETAK

## UDAL-ESPARRUA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek luiziak saihestera bideratutako lanak egin dituzte gehienbat arlo honetan. Halaber, neurriak hartu dira uholdeen aurrean arriskuak minimizatzeko. Era berean, udal batzuek klima-aldaketari buruz sentsibilizatzeko jarduerak egin dituzte.

Azpimarratzeko modukoa da Donostiako Udaleko Ingurumen Zuzendaritzak egiten duen lana; izan ere, klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta Donostiako biztanleriako sektore desberdinen inplikazioa bilatzeko tresnak aztertu ditu, hala nola:

- Klima-aldaketara egokitzeko azterlan zehatzak egin ditu (hirigintzako garapen-eredu desberdinek Txomin auzo berrian izan ditzaketen inpaktuak, hiriko hondartzek etorkizunean izango duten bilakaerari buruzko azterlana, “Smart Mature Resilience” proiektuan parte-hartzea Tecnun unibertsitatearekin batera, etab.).
- Klima 2050 Ekintza Planari buruz herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzeko material didaktikoa egin du (erakusketa ibiltaria, hitzaldiak, klima-aldaketari buruzko belaunaldi-arteko tailerra, etab.).
- “Donostia -$CO_2$: familiak klimaren alde” proiektua dinamizatu du, energiaren kontsumo arrazionala sustatzeko eta etxeetako berotegi efektuko gas igorpenak gutxitzeko asmoz.

## ESKUALDE-ESPARRUA

UGGASA (Urola Garaiko garapen-agentzia) da azken 3 urteetan klima-aldaketari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egin duen garapen-agentzia bakarra.



## SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

### A / PLANGINTZA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal bakar batek ere ez du ingurumen-informazioari, -heziketari eta -sentsibilizazioari lotutako planik, estrategiarik edo programarik egin.

### B / JARDUKETAK

**15. grafikoa - SENTSIBIZALIZAZIOARI ETA HEZKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK 2016-2018 (%)**



## UDAL-ESPARRUA

Udalerri txikiei dagokienez, gehienek (%88) sentsibilizazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak gauzatzen dituzte hondakinen prebentzioari dagokionean. Erdiak baino gehiagok energiari loturiko informazio/sentsibilizazio/prestakuntza jarduerak antolatu dituzte, udalerrien %23k Eskolako Agenda 21 programan parte-hartzen duten ikastetxeak dituzte eta beste horrenbestek sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzte ingurumeneko gai orokorragoekin zerikusia duten beste esparru batzuetan (aste berdea, aste kulturala, etab.).

Udalerri ertainetako udal gehienek (%74) Eskolako Agenda 21 egitasmoaren heziketa-programa babesten dute, eta hainbat udalerri ertainek (%77) hondakinen prebentzioari buruzko sentsibilizazioa bultzatzeko kanpainaren bat egin dute. Udalerri ertainetako udalen ia erdiek ingurune naturalari buruzko kanpainak egin dituzte.

Udalerri handi ia guztiek, zehazki, %96k, Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen duten ikastetxeak dituzte. Udalek antolatu dituzten sentsibilizazio- eta informazio-kanpainen gaiak alderdi hauetan ardaztu dira batez ere: hondakinen prebentzioa (%88), energia (%75),  mugikortasuna (%75), ura (%58) eta natura- eta landa-ingurunea (%50).

## ESKUALDE-ESPARRUA

Oro har, garapen-agentzia eta mankomunitate guztiek egiten dituzte ingurumenaren arloko sentsibilizazio-kanpainak energiaren, hondakinen eta uraren inguruan.



## GOBERNANTZA ETA PARTE-HARTZEA

### A / PLANGINTZA ETA ARAUDIA

#### UDAL-ESPARRUA

1.000 biztanlera arteko udalerrien artean, soilik Orexak du herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantza bat. Kategoria horretako udalerri bakar batek ere ez du garatu tokiko gobernantza edo parte-hartze planik.

Udalerri ertainetatik 3 udal hauek dute parte-hartzeari buruzko araudi bat: Astigarragako, Elgetako eta Amasa-Villabonako udalek.

Udalerri handietan soilik 3 udal hauek (udalerri handien %6,5 dira) dute parte-hartzeari buruzko ordenantza edo plan bat: Legazpik, Azpeitiak eta Donostiak. Irungo Udala parte-hartzeari buruzko bere araudia prestatzen ari zen 2018an.



#### ESKUALDE-ESPARRUA

Eskualdeetako garapen-agentzia bakar batek ere ez du arlo honi buruzko planik idatzi.

# B / JARDUKETAK

***16. grafikoa - GOBERNATZA ETA PARTE-HARTZE ARLOETAN BURUTAKO JARDUEREN ETA UDALERRIEN TAMAINAREN ARABERAKO UDALERRIEN EHUNEKOA (2016-2018)***




## UDAL-ESPARRUA

Udalerri txikitan (%32), ertainetan (%58) eta handitan (%75), gehien gauzatzen den jarduketa da gai edo proiektu jakin bati buruz hitz egiteko soilik antolatutako parte-hartze prozesuak noizean behin egitea.

1.000 biztanletik beherako udalerrien %29k eta 7.000 biztanletik gorako udalerrien erdiek mahai sektorialen bat, fororen bat edo batzorderen bat dute herritarren parte-hartzea errazteko. Udalerri mota hauen artean, badira ere parte-hartze prozesuak, batez ere aurrekontu parte hartzaileekin zerikusia dutenak, zeinak maiz errepikatzen baitira eta udalerri batzuetan sendotzen ari baitira (%25 udalerri handietan eta %19 udalerri txikietan).

Udalerri txikien eta ertainen %13ak auzolanean aritzen dira.

## ESKUALDE-ESPARRUA

Aztertutako aldian nabarmentzekoa da “Tolosaldea Saretzen 2018-2025” plan estrategikoa idazteko Tolosaldea Garatzenek abian jarritako parte-hartze prozesua, eta baita Oarsoaldea garapen agentziak eskualdeko plan estrategikoa (2017-2025) egiteko antolatutakoa. Eskualde horietan, besteak beste, gaiari buruzko tailerrak eta bilerak egin ziren eragile sozioekonomikoek plan estrategiko berriekin zerikusia zuten ekarpenak egin zitzaten.





# 6 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDAL-POLITIKEN EKARPENA GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO ESTRATEGIAREN (GKAE) XEDEEI ETA GARAPEN IRAUNKORRERAKO 2030 AGENDAREN HELBURUEI (GIH)

## GKAEREN HELBURUAK

Garrantzitsua da Gipuzkoako Klima Aldaketaren kontrako Borroka Estrategiaren (aurrerantzean, GKAE 2050) helburuak gogoraraztea, jarduketa-xede eta -helburu espezifikoak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek egiten duten ekarpena zehaztu aurretik:

- Gipuzkoak 2030erako BEG isurpenak %40 murrizteko helburua ezartzen du. 2050erako, aldiz, berriro ere 2005eko isurpenak erreferentziatzat hartuta, gutxienez %80. Era berean, 2050ean Gipuzkoako ekonomia deskarbonizaziora (hau da, “zero isurpen” edo “isurpen negatiboetara”) irits dadin dauden aukerak aztertu eta beharrezko neurri guztiak hartuko dira.

- GKAEak guztizko kontsumoaren %80 energia berriztagarrietatik etorria izateko helburua finkatzen du 2050erako. Bitartean, tarteko-helburu bat ere finkatzen du: 2030erako energia berriztagarrien kontsumoa %30ekoa izatea.

- GKAEak oinarrizko helburu gisa ezartzen du lurraldearen erresilientzia bermatzea klima-aldaketaren inpaktuei dagokienez.

- GKAEak “justizia klimatikoa” eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta ahalbidetzeko helburua ezartzen du. Justizia klimatikoak giza eskubideak eta garapena lotzen ditu pertsonengan oinarritutako ikuspuntu bat hartuz, ahulenen eskubideak babestuz eta klima-aldaketaren inpaktuaren ondorioz sortutako zamak eta etekinak zuzentasunez partekatuz.

KLIMA 2050 BASQUE COUNTRY

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN EKARPENA KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO GIPUZKOAKO ESTRATEGIAREN JARDUKETA-XEDEEI ETA LERROEI

Lerrokadura-taula bat egin dugu udal politika publikoek KAAGEren jarduketa-xede eta lerro bakoitzari egiten dioten ekarpen-maila neurtzeko.

Lerrokadura egiteko hiru ekarpen-maila bereizi ditugu kontuan hartuta jarduketa edo neurri mota bakoitza garatu duten udalerrien ehunekoa.

**UDALERRIEN %30ERA ARTE**

**UDALERRIEN %30 ETA %60 BITARTEAN**

**UDALERRIEN %60TIK GORA**




*Irudia: Klima Aldaketaren Aurkako Gipuzkoako Estrategia. Iturria: GFA*

# 1X Karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| **1.1 JL** | **Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia eta Gipuzkoako Energia Behatokia garatzea.** |
| **1.2 JL** | **Energia-ereduaren aldaketa udalerri eta eskualdeetan sustatzea.** |
| **1.3 JL** | **Autokontsumorako energia berriztagarriaren sorkuntza banatua sustatzea: lurraldearen potentzialen analisia eta bertan aplika daitezkeen ereduak aztertzea.** |
| **1.4 JL** | **Familia eta jarduera ekonomikoen esparruan aurreztea eta efizientzia energetikoa sustatzea.** |
| **1.5 JL** | **Hirigintza eta eraikingintzan efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzea.** |
| 1.6 JL | Energia-eredu aldaketara zuzendutako tokiko ehun ekonomiko berritzailea sustatzea. |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (1.1. JL) | **7** |
| Energia Planak (1.1. JL) | **3 (6 eskualde)** |
| Herriko argiak edo udal-instalazioak kudeatzeko plan espezifikoak (1.5. JL) | **4** |
| Energiari buruzko araudia (herriko argiak, energia-eraginkortasuna, energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarritan inbertitzera zuzendutako diru-laguntzak) | **4** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | **%** UDALERRIAK |
|---|---|
| Herriko argien kontsumoa optimizatu (1.5 JL) | **80** |
| Argindarraren eta berokuntzako sistemen kontsumoaren optimizazioa udal-instalaziotan (1.5 JL) | **58** |
| Ikuskapenak herriko argietan eta udal-instalaziotan (1.5 JL) | **24** |
| Herriko argien eta udal-instalazioen segimendua eta erregulazioa (1.5 JL) | **22** |
| Udal-eraikinak birgaitzea (inguratzaile termikoa, etab.)(1.5 JL) | **12** |
| Energia berriztagarriak inplementatzeko eta subiranotasun energetikorako azterketak, bekak, azterlanak (1.2/1.3 JL) | **13** |

| | |
|---|---|
| Inbertsioak energia berriztagarritan udal-instalazioak energiaz hornitzeko (1.2/1.3 JL) | **19** |
| Herritarren kontsumo elektrikoaren segimendua (1.4 JL) | **3** |
| Ibilgailu elektrikoak edo hibridoak udal-flotan (1.5 JL) | **15** |
| Hobari fiskalak energia-arloan (1.4 JL) | **67** |
| Sentsibilizazioa, prestakuntza, diru-laguntzak, etab. (1.4 JL) | **53** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Mikro-sare termiko-elektrikoaren azterlana Adunako, Asteasuko eta Orexako udal-eraikinak energia berriztagarriz hornitzeko. |
| Eskualdeetako energia-planetan dauden eskualde-jarduketak (Debabarrena, Goierri, Oarsoaldea, Tolosaldea, Urola Erdia, Urola Garaia). |
| Subiranotasun energetikoari buruzko ekimenak: zentral hidroelektrikoaren erosketa, enpresa banatzaile eta hornitzaile propioak (Solaruze eta Oñati). |
| Herritarrek energia modu eraginkorragoan kontsumi dezatela sustatzeko ekimenak. |

# 2X Isurpenik gabeko garraio baterantz aurrera egitea

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| **2.1 JL** | **Gipuzkoan BEG isurpen urriko mugikortasun-plan integral bat egin.** |
| **2.2 JL** | **Mugikortasun ez motorduna sustatu.** |
| **2.3 JL** | **Garraio publikoaren kudeaketa-sistemak eta intermodalidadea hobetu.** |
| **2.4 JL** | **Pertsonen eguneroko mugikortasunari buruzko eskarien kudeaketaren efizientzia sustatu.** |
| **2.5 JL** | **Erregai fosilen ordez energia alternatiboak darabiltzaten ibilgailuetarako trantsizioan ekarpenak egin.** |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Mugikortasun Plana (2.1 JL) | **8 (2 eskualde)** |
| Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana (2.1 JL) | **8** |
| Mugikortasunari buruzko araudia (trafikoa arautu, aparkamendua arautu, etab.) | **16** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | **%** UDALERRIAK |
|---|---|
| Mugikortasun- eta irisgarritasun-azterlanak (2.1 JL) | **13** |
| Oinezkoen mugikortasuna hobetzeko jarduketak (2.4 JL) | **48** |
| Bizikleta bidezko mugikortasuna hobetzeko jarduketak (2.2 JL) | **36** |
| Garraio publikoaren erabilera sustatzeko eta zerbitzua hobetzeko ekintzak (2.3 JL) | **19** |
| Kanpoaldeko eta landa-eremuetako auzoetan garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko ekintzak (2.3 JL) | **19** |
| Ibilgailuen abiadura kontrolatzeko neurriak | **13** |
| Hobari fiskalak mugikortasun-arloan (2.5 JL) | **52** |
| Sentsibilizazioa, prestakuntza eta kanpainak | **29** |

| ADIBIDEAK |
| --- |
| Helduei zuzendutako ikastaroa bizikletan ibiltzen ikasteko Errenterian. |
| Bizikleten aparkalekuen eraikuntza Usurbilen, Hernanin, Errenterian eta Oñatin. |
| Lan-mahai sektorialak sortzea (esaterako, Hondarribiko Mugikortasun Mahaia sortzea). |
| Haurrek hirian zehar egiten dituzten joan-etorrietan aurkitzen dituzten oztopoei buruz Donostiako Udalak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera egindako azterlana. |

# 3X Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| 3.1 JL | Klima-aldaketa lurralde- eta hiri-antolamentuan integratzea. |
| **3.2 JL** | **Gipuzkoan azpiegitura berde sare bat sustatzea eta lurraldea iritsi-errazagoa egitea.** |
| 3.3 JL | Klima-aldaketa hondartzen, itsasadar eta dunen kudeaketan integratzea. |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Ez da informazio nahikoa bildu lurralde-plangintzaren eta lurralde-erabileren inguruan. | - |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Naturaguneen eta paisaiaren azterketak eta horiek babesteko jarduketak (3.2 JL) | **36** |
| Aisialdi-guneak sortzea eta mantentzea (3.2 JL) | **13** |
| Lurrak erostea edo lurrak erabiltzeko hitzarmenak (3.2 JL) | **9** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Bioingeniaritzako tekniken erabilpena eremu narriatuak leheneratzeko (Mutiloa). |
| Natura-ingurunean eta landa-ingurunean dauden aisialdi-guneen erabilera publiko ordenatu bat egiteko, lurrak erostea edo udal-lurren erabilera aldatzea (Irun). |
| Zizurkilen, lurren kudeaketa jasangarrirako, biodibertsitatea bermatuko duen kontratua sinatzea abere-sektorearekin. |

# 4X Natura ingurunearen erresilientzia handitzea

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| **4.1 JL** | **Basoen egitura- eta funtzio-aniztasuna hobetzea.** |
| **4.2 JL** | **Klima aldaketaren aurrean ahulak diren habitat eta espezieak babestea eta horien segimendua egitea.** |
| **4.3 JL** | **Ibaiertzeko ekosistemak lehengoratzea eta uztartzea.** |
| 4.4 JL | Akuiferoak babestea eta zaintzea: iturburuak eta errekarga-eremuak. |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Ibaiertzeko Paisaiaren Ekintza Planak (4.3 JL) | **6** |
| Paisaiaren Ekintza Planak (4.1/4.2 JL) | **16** |
| Araudia uraren zikloaren edo hodi-biltzailera doazen isurketen kudeaketaren inguruan. | **18** |
| Araudia ingurune naturalaren kudeaketaren inguruan. | **21** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | **%** UDALERRIAK |
|---|---|
| Enpresen isurketak kontrolatzea eta kudeatzea (4.2 JL) | **94** |
| Ibaia garbitzea eta aisialdia-guneak egokitzea (4.2 JL) | **28** |
| Ekosistema hidrikoen egoera aztertzea eta hobetzea hídricos (4.2/ 4.3 JL) | **30** |
| Urari eta ingurune hidrikoari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak | **26** |
| Naturaguneen eta paisaiaren azterlanak eta babes-jarduketak (4.2 JL) | **36** |
| Aisialdi-guneak sortzea eta mantentzea (4.1 JL) | **13** |
| Lurrak erostea edo lurrak erabiltzeko hitzarmenak (4.1 JL) | **9** |
| Baso-kudaketa jasangarria (4.1 JL) | **29** |
| Fauna eta flora espezie inbaditzaileak errotik kentzea eta espezie autoktonoak indartzea (4.2 JL) | **28** |
| Natura- eta landa-inguruneari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta azterlanak | **10** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Lurrak erostea edo udal-lurren erabilerak aldatzea kontserbazio-proiektutarako (Orendain, Irun). |
| Natura-ingurunean dauden lurrak arautzea eta antolatzea (Arrasate). |
| Donostiako errekak karakterizatzea eta horietako batzuetan leheneratze-lanak aurreikustea. |
| Kudeaketa jasangarriari buruzko prestakuntza-ikastaroak eta hitzarmenak lehen sektoreko jarduketetan (Bergara, Zizurkil eta Tolosaldea). |
| Hondarribian dauden espezieei eta ekosistemei buruzko karta-jokoa. |

# 5X Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| 5.1 JL | **Gipuzkoako nekazaritza-ustiaketak eta beren produktuen salmenta lokala babestea.** |
| 5.2 JL | **Inpaktu baxua duten nekazaritza eta basozaintzako praktiken alde egitea eta sektoreak karbono-isurleku lana egiteko gaitasuna hobetzea.** |
| 5.3 JL | **Aurreikusitako agertokietara moldatzea basoetako suteak itzaltzeko baliabide eta prozedurak.** |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Landa-garapena sustatzeko planak edo programak (Landa Garapen Agentziak) (5.1/5.2 JL) | **Eskualde guztiak** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Udal-lurrak lagatzea lehen sektorean lan egin nahi duten herritarrei (5.1/5.2 JL) | **10** |
| Tokiko produktuak sustatzea (5.2 JL) | **45** |
| Baso-kudeaketa jasangarria (5.3 JL) | **29** |
| Baratze sozialak (5.2 JL) | **29** |
| Lehen sektoreko bizi- eta lan-baldintzak hobetzea landa-eremuetan (5.2 JL) | **13** |
| Natura- eta landa-inguruneari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta azterlanak | **38** |
| Landa-ingurunean mugikortasuna hobetzea (landa-bideak konpontzea,...) (5.2 JL) | **76** |
| Landa-lurzoruaren azterlanak eta optimizazioa lurzoruaren erabileran (5.1 JL) | **6** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Lehen sektoreko etorkizuneko jarduueretarako lurzoruen ahalmenari buruzko azterlanak (Itsaso, Antzuola eta Legorreta). |
| Landa-lurren erabilerak berriro zehazteko parte-hartze prozesua (Anoeta). |
| "Lurbizi" proiektua martxan jartzea Oiartzunen. |

# 6X Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta zero isurpen lortzea tratamendurik gabe

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| 6.1 JL | **Hiri-hondakinen kudeaketarako plangintza eta Gipuzkoako Hiri Hondakinen eta Prebentzio eta Kudeaketarako Behatokia garatzea.** |
| 6.2 JL | **Hiri-hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta gaikako bilketa sustatzea.** |
| 6.3 JL | **Ekonomia zirkularra sustatzea.** |
| 6.4 JL | **Hiri-hondakinen kudeaketaren inguruko informazioa, sentsibilizazioa eta komunikazioa sustatzea.** |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Hondakinen prebentzio-planak (6.1 JL) | **3 (eskualde 1)** |
| Hondakinen kudeaketari buruzko araudia (6.1 JL) | **19 (7 eskualde)** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Azterlanak eta ekintzak hondakinen prebentzioaren inguruan (6.2 JL) | **21** |
| Azterlanak eta ekintzak hondakinen berrerabilpenaren inguruan (6.2 JL) | **13** |
| Hondakinen gaikako bilketa-sistemetan eraginkortasuna aztertzeko eta handitzeko neurriak (6.2 JL) | **49** |
| Biohondakinen kudaketa (6.2 JL) | **78** |
| Ekonomia zirkularrari buruzko azterlanak eta ekintzak (6.3 JL) | **31** |
| Konpostajeari lotutako hobari fiskalak (6.2 JL) | **37** |
| Sentsibilizazioa, prestakuntza, diru-laguntzak, etab. (6.2 JL) | **84** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Tarifa espezifiko bat kobratzea errefusaren bilketa-kopuruaren arabera Usurbilen. |
| Elikagaien alferrikako galerari buruzko eskualde-jarduketak Bidasoan-Txingudin. |
| Ekonomia zirkularrari buruzko diagnostiko bat egitea Tolosaldean. |
| Jaietan hondakinen murrizketa sustatzeko baliabideen eskaintza Sasietako mankomunitatearen aldetik. |

# 7X Arriskuei aurre hartzea

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| **7.1 JL** | **BEG isurpenen monitorizazioa eta segimendua.** |
| 7.2 JL | Arriskuen kartografia, modelizazioa eta monitorizazioa eguneratzea eta hobetzea. |
| 7.3 JL | Klima-aldaketak lurraldean izango dituen inpaktuen monitorizazioa eta segimendua. |
| **7.4 JL** | **Ur-hornidura bermatzea eta azpiegitura hidraulikoak klima-aldaketari egokitzea.** |
| **7.5 JL** | **Klima-aldaketari aurre egiteko plan integral bat definitzea.** |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Klima-aldaketaren aurkako plana (7.5 JL) | **7** |
| Suteen prebentzio eta alerten plana (7.5 JL) | **2** |
| Larrialdi-plana edo larrialdi-plan espezifikoa uholdeen aurrean (7.5 JL) | **8** |
| Klima-aldaketari buruzko araudia | **2** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | **%** UDALERRIAK |
|---|---|
| Ur-kanalizazioen hobekuntza (7.4 JL) | **78** |
| Udaleko eta udalerriko instalazioetako ur-kontsumoaren segimendua eta eraginkortasuna hobetzea. (7.4 JL) | **29** |
| Luizien prebentzioa (areken garbiketa, etab.). (7.4 JL) | **18** |
| Uholdeen arriskuak minimizatzea (7.4 JL) | **8** |
| Sentsibilizazioa eta prestakuntza-kanpainak uraren inguruan (7.4 JL) | **26** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Suteak ekiditeko asmoz, larreak hobetzeko plana idaztea eta larreak egokitzea. |
| Donostiako hondartzek etorkizunean izango duten bilakaerari buruzko azterlana. |
| Esparru desberdinei dagokienez udalerriaren erresilentzia neurtzeko eta bideratzeko proiektu pilotua Tolosan. |

# 8X Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| 8.1 JL | Klima-aldaketaren inguruko berrikuntza eta dibulgazioa babestea. |
| 8.2 JL | Klima-aldaketari buruzko jakintza zientifikoa handitu eta zabaltzeko babesa ematea. |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Ez dira identifikatu. | - |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Ez dira kuantifikatu. | - |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Esparru desberdinei dagokienez udalerriaren erresilentzia neurtzeko eta bideratzeko proiektu pilotua (Tolosa). |
| Donostia: klima aldaketaren ondorioei eta egokitzapenari buruzko hainbat azterlan eta balorazio. |

# 9X Gipuzkoako Administrazio Publikoa arduratsu, eredu eta erreferente da klima-aldaketaren arloan

JARDUKETA-LERROAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| **9.1 JL** | **Isurpenik gabeko sektore publikoaren bila Gipuzkoan.** |
| **9.2 JL** | **Gipuzkoan klima-aldaketari egokitutako gobernantza-eredu bat garatzea.** |
| **9.3 JK** | **Klima-aldaketari buruzko hezkuntza- eta komunikazio-plan bat garatzea.** |
| 9.4 JK | Hedabide eta sare sozialei zuzendutako KAAGEaren komunikazio-estrategia bat definitu eta garatzea. |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Plan edo estrategia erosketa publiko berdean | **3** |
| Araudia parte-hartzean | **8** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Kontsumoa optimizatzea herriko argietan (9.1 JL) | **80** |
| Argindarraren eta berokuntzako sistemen kontsumoaren optimizazioa udal-instalaziotan (9.1 JL) | **58** |
| Ikuskapenak herriko argietan eta udal-instalaziotan (9.1 JL) | **24** |
| Herriko argien eta udal-instalazioen segimendua eta erregulazioa (9.1 JL) | **22** |
| Udal-eraikinak birgaitzea (inguratzaile termikoa, etab.) (9.1 JL) | **12** |
| Inbertsioak energia berriztagarritan udal-instalazioak energiaz hornitzeko (9.1 JL) (fotovoltaikoa, termikoa, biomasa...) | **19** |
| Ibilgailu elektrikoak edo hibridoak udal-flotan (9.1 JL) | **15** |
| Ingurumen-irizpideak kontratazio-agirietan sartzea (9.1 JL) | **26** |
| Ingurumen-irizpideak papera erosteko eta kontsumitzeko garaian (9.1 JL) | **31** |
| Udal-ekitaldien kudeaketa jasangarria (9.1 JL) | **6** |
| Ingurumen-ikuskapenak eta egiaztagiriak (9.1 JL) | **6** |
| Erosketa Berde Publikoaren kudeaketa (9.1 JL) | **5** |

| | |
|---|---|
| Hobari fiskalak energiaren arloan (9.1 JL) | **67** |
| Hobari fiskalak mugikortasunaren arloan (9.1 JL) | **52** |
| Hobari fiskalak hondakinen arloan (9.1 JL) | **37** |
| Beste hobari fiskal batzuk (9.1 JL) | **8** |
| Ingurumen-irizpideak beste produktu batzuk erosteko garaian (9.1 JL) | **6** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak energiaren inguruan (9.3 JL) | **53** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak mugikortasunaren inguruan (9.3 JL) | **29** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak uraren eta ingurune hidrikoaren inguruan (9.3 JL) | **26** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak hondakinen inguruan (9.3 JL) | **84** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak klima-aldaketaren inguruan (9.3 JL) | **5** |
| Natura- eta landa-inguruneari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak (9.3 JL) | **38** |
| Ingurumen-heziketarako ekipamenduak (9.3 JL) | **15** |
| Eskolako Agenda 21 (9.3 JL) | **62** |
| Ingurumen Heziketa programak (Eskolako Agenda 21etik kanpo) (9.3 JL) | **10** |
| Aste berdeak, aste kulturalak, etab. (9.3 JL) | **24** |
| Noizean behingo parte-hartze prozesuak (9.2 JL) | **53** |
| Mahai sektorial, foro edo batzorde egonkorrak (9.2 JL) | **27** |
| Finkatutako maiztasun batekin errepikatzen diren parte-hartze prozesuak (aurrekontu parte-hartzaileak, etab.) (9.2 JL) | **14** |
| Tokiko Agenda 21eko foroak (9.2 JL) | **1** |
| Auzolana (9.2 JL) | **10** |

## ADIBIDEAK

Zarauzko eta Donostiako hondartzek EMAS ziurtagiria dute.

Fiskalitate berde energetikoak Tolosaldeko udaletan duen eragin ekonomikoari buruzko azterketa.

Zerbitzu desberdinen (bulegoen garbiketa, lorategiak, bulegoko-materiala, etab.) kontratazio-agirietan ingurumen-irizpideak sartzea Errenterian, Donostian, Legazpin, etab.

Udal-langileei zuzendutako ikastaroa Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen inguruan Irunen.

## 2030 AGENDAREN HELBURUAK (GIH)

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak 2000-2015 aldirako finkatutako Milurtekoaren Garapen Helburuak berrartzen ditu, eta bultzada berri bat ematen dio gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoa duten bost eremutan eragiten duten Garapen Iraunkorraren 17 Helburuak lortzeko konpromisoari.

Garapen Iraunkorraren 17 Helburuak eta horiek garatzen dituzten 169 xedeak banaezinak dira, eta barne hartzen dituzte Garapen Iraunkorraren hiru dimentsioak (gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsioak).

Hurrengo taulan 17 helburuak ikus daitezke aipatutako garrantzizko 5 eremuen barruan:

| Garrantzizko eremuak | Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH) | |
|---|---|---|
| PERTSONAK | • Pobreziaren amaiera<br>• Gosearen amaiera/Elikadura<br>• Bizitza osasuntsua | • Heziketa inklusiboa<br>• Genero-berdintasuna |
| PLANETA | • Ura eta saneamendua<br>• Kontsumo eta ekoizpen iraunkorra | • Klima-aldaketa<br>• Itsasoko baliabideak<br>• Ekosistemak |
| OPAROTASUNA | • Hazkunde ekonomikoa eta enplegua<br>• Azpiegiturak eta berrikuntza | • Energia<br>• Desberdinkeriaren murrizketa<br>• Hiriak eta hiri-kokalekuak |
| BAKEA | • Bakea eta justizia | |
| ITUNAK | • Itunak/Garapenerako lankidetza | |

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARAPEN IRAUNKORRERAKO 2030 AGENDAREN HELBURUEI EGINDAKO EKARPENA

17 GIHak banatuta dauden 5 eremuetatik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Garapen iraunkorraren aldeko tokiko politika publikoek 3 eremu hauetako 8 helburuei egindako ekarpena zehaztu dugu: pertsonak, planeta eta oparotasuna. Kontuan hartuta egindako diagnostikoaren helburua garapen iraunkorraren ingurumen-ikuspuntuan batez ere ardaztu zela, ez da informazio garrantzitsurik bildu gainerako GIHekin lotutako gai gehienetan, sozioekonomikoak direlako.

Horiek horrela, lerrokadura-taula bat egin dugu politika horiek ingurumen-gaiekin eta klima-aldaketaren kontrako borrokarekin zerikusi gehiago duten 8 GIHei egindako ekarpen-maila neurtzeko:

**2. GIH.**
GOSEA AMAITZEA, ELIKAGAI-SEGURTASUN ETA ELIKADURA HOBEA LORTZEA ETA NEKAZARITZA JASANGARRIA BULTZATZEA.

**12. GIH.**
KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE JASANGARRIAK BERMATZEA.

**6. GIH.**
URAREN ERABILGARRITASUNA ETA KUDEAKETA JASANGARRIA NAHIZ GUZTIONTZAKO SANEAMENDUA BERMATZEA.

**13. GIH.**
NEURRI URGENTEAK HARTZEA KLIMA-ALDAKETAREN ETA HAREN ONDORIOEN AURKA EGITEKO.

**7. GIH.**
ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOA BERMATZEA GUZTIONTZAT.

**14. GIH.**
OZEANOAK, ITSASOAK ETA ITSAS BALIABIDEAK MANTENTZEA ETA MODU JASANGARRIAN ERABILTZEA GARAPEN JASANGARRIARI BEGIRA.

**11. GIH.**
HIRIAK ETA GIZA KOKAGUNEAK INKLUSIBOAK, SEGURUAK, ERRESILIENTEAK ETA JASANGARRIAK IZATEA LORTZEA.

**15. GIH.**
LEHORREKO BIZITZA BABESTEA, LEHENGORATZEA ETA MODU JASANGARRIAN ERABILI DADILA SUSTATZEA, BASOAK MODU JASANGARRIAN KUDEATZEA, BASAMORTUTZEAREN AURKA BORROKATZEA, LURREN DEGRADAZIOA INBERTITZEA ETA BIODIBERTSITATEAREN GALERA GELDITZEA.

Lerrokadura egiteko hiru ekarpen-maila bereizi ditugu kontuan hartuta jarduketa edo neurri mota garatu duten udalerrien ehunekoa.

**UDALERRIEN %30ERA ARTE**

**UDALERRIEN %30 ETA %60 BITARTEAN**

**UDALERRIEN %60TIK GORA**

2 GOSERIK EZ IZATEA

# 2. GIH.

GOSEA AMAITZEA, ELIKAGAI-SEGURTASUN ETA ELIKADURA HOBEA LORTZEA ETA NEKAZARITZA JASANGARRIA BULTZATZEA.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

| | |
|---|---|
| 7. | **Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzea.** |
| 8. | **Landako eta kostako eremuak azpiegitura eta zerbitzu egokiz hornitu, hiri-inguruneko bizi-baldintza bertsuak bermatzeko modukoak eta populazioari eutsiko zaiola ziurtatzeko modukoak** |
| 9. | **Lehen sektorea gaztetu, etorkizuneko bermea izan dezan.** |
| 10. | **Berrikuntza eta ikerketa sustatzea nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.** |
| 11. | Nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea bultzatzea. |

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Landa-garapena sustatzeko planak edo programak (Landa Garapen Agentziak) | **Eskualde guztiak** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Udal-lurrak lagatzea lehen sektorean lan egin nahi duten herritarrei (7H/11H) | **10** |
| Tokiko produktuak sustatzea (7H/11H) | **45** |
| Baratze sozialak (11H) | **29** |
| Lehen sektoreko bizi- eta lan-baldintzak hobetzea landa-eremuetan (8H) | **13** |
| Natura- eta landa-inguruneari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta azterlanak (7H/11H) | **38** |
| Landa-ingurunean mugikortasuna hobetzea (landa-bideak konpontzea,...) (8H) | **76** |
| Landa-lurzoruaren azterlanak eta optimizazioa lurzoruaren erabileran (7H/11H) | **6** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Tokiko produktuak sustatzeko azokak antolatzea (Errenteria, Hondarribia, Zizurkil, etab.). |
| Udalerriko bertako ikastetxeetako haurtzaindegietan eta jangeletan tokiko produktuak kontsumitzea (Ezkio, Tolosa, Hernani, etab.). |
| Lurrak lehen sektoreko profesionalei lagatzea, tokiko kooperatibak sortzen laguntzea, agroaldeak bultzatzea (Hondarribia, Oiartzun, etab.). |
| "Jan Tolosaldea" proiektua bultzatzea, zeinaren helburua tokiko produktuen kontsumoan oinarritzen den sistema bat sustatzea den. |
| Tokian tokiko kontsumoa sustatzeko "Beterri KM0 Bertakoen Sarea" ekimena bultzatzea, nekazaritza-ekoizpena kontsumitzaileei hurbiltzeko asmoz. |

6 EDATEKO URA ETA SANEAMENDUA

# 6. GIH.

URAREN ERABILGARRITASUNA ETA KUDEAKETA JASANGARRIA NAHIZ GUZTIONTZAKO SANEAMENDUA BERMATZEA.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

**33. Uraren kalitatea bermatzeko eta xahutzea, espekulatzea eta kutsatzea eragozteko ur politika bultzatzea.**

**34. Ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko azpiegitura hidraulikoak garatu eta eraiki, dagoen plangintzaren arabera. Uraren kanonaren bidez biltzen den diruaren % 5 hornidura eta saneamendurako lankidetza proiektuetara zuzentzea, garapen bidean dauden herrialdeetan.**

35. 2015-2021 aldirako Plan Hidrologikoa berraztertzea.

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Araudia uraren zikloaren edo hodi-biltzailera doazen isurketen kudeaketaren inguruan. | **18** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | **%** UDALERRIAK |
|---|---|
| Enpresen isurien kontrola eta kudeaketa (33H/34H) | **94** |
| Ur-kanalizazioen hobekuntza (33H/34H) | **78** |
| Udaleko eta udalerriko instalazioetako ur-kontsumoaren segimendua eta eraginkortasuna hobetzea (33H/34H) | **29** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak ur kontuetan (33H) | **26** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Ur-ihesak detektatzeko eta hornidura-sarean dauden galerak murriztera bideratutako neurri zehatzak inplementatzeko proiektuak (Andoain, Oiartzun, Pasaia, Txingudiko Zerbitzuen Erlea Proiektua, etab.). |
| Iturrien emariak murriztea ura aurreztea sustatzeko (Anoeta). |

| |
|---|
| Ura aurrezteko udal-ordenantza aplikatzea (Eskoriatza). |
| Kutsatuta egon daitezkeen erreken jarraipena (Irun). |
| Deba eta Ego ibaiak leheneratzeko eta balioan jartzeko "Bizigura Deba ibaia" eskualde-programa (Debegesa URArekin elkarlanean). |
| Udalerrian drainatze-sistemak non jarri zehazteko azterlana eta balorazioa (Legazpi). |

7 ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSATZAILEA

# 7. GIH.

ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOA BERMATZEA GUZTIONTZAT.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

36. Gasaren alde egitea, trantsizio-energia gisa, energia berriztagarriak neurri handiagoan inplementatzeko bidean; eta nazioarteko konexio energetikoa sostengatzea gas eta elektrizitatearen horniduran.

**37. Teknologiaren eta enpresen garapena sostengatzea energia-iturri berriztagarri eta jasangarrien erabilera sustatzeko.**

**38. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko proiektuak bultzatzea.**

**39. Gasolioa garraiotik gero eta neurri handiagoan ezabatzea, garraioaren gasifikazioa (lehorrekoa eta itsasokoa) eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatuz.**

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Energia Iraunkorrerako Ekintza Planak | **7** |
| Energia Planak | **3 (6 eskualde)** |
| Herriko argiak edo udal-instalazioak planifikatzeko plan espezifikoak | **4** |
| Energiari buruzko araudia (herriko argiak, energia-eraginkortasuna, energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarritan inbertitzera zuzendutako diru-laguntzak) | **4** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Kontsumoa optimizatzea herriko argietan (38H) | **80** |
| Argindarraren eta berokuntzako sistemen kontsumoaren optimizazioa udal-instalaziotan (38H) | **58** |
| Ikuskapenak herriko argietan eta udal-instalaziotan (38H) | **24** |
| Herriko argien eta udal-instalazioen segimendua eta erregulazioa (38H) | **22** |
| Udal-eraikinak birgaitzea (inguratzaile termikoa, etab.) (38H) | **12** |
| Energia berriztagarriak inplementatzeko eta subiranotasun energetikorako azterketak, bekak, azterlanak (37H) | **13** |

| | |
|---|---|
| Inbertsioak energia berriztagarritan udal-instalazioak energiaz hornitzeko (37H) | **19** |
| Herritarren kontsumo elektrikoaren segimendua (38H) | **3** |
| Ibilgailu elektrikoak edo hibridoak udal-flotan (39H) | **15** |
| Hobari fiskalak energiaren arloan (38H) | **67** |
| Sentsibilizazioa, prestakuntza, diru-laguntzak, etab. | **53** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Herriko argiak pixkanaka berritzea energia-eraginkortasun- eta energia berriztagarrien bidezko autohornikuntza-irizpideen arabera (Deba, Abaltzisketa, Itsasondo, Berastegi, Debagoienako udalerriak, etab). |
| Pobrezia energetikoari buruzko diagnostikoak (Usurbil). |
| Eskualdeetako energia-planak dituzten eskualdeetako garapen-agentziek garatutako jarduketak. |

11 HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK

# 11. GIH.

HIRIAK ETA GIZA KOKAGUNEAK INKLUSIBOAK, SEGURUAK, ERRESILIENTEAK ETA JASANGARRIAK IZATEA LORTZEA.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

**61. Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea.**

62. Kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea.

63. Euskararen erabilera sustatzea.

**64. Larrialdien aurreko prebentzio- eta alerta-sistema indartzea, baita herritarren autobabesa ere.**

**65. Hiriko zaharberritze, biziberritze eta berriztapena sustatzea.**

66. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea.

**67. Garraio publiko jasangarri eta intermodala bultzatzea.**

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Tokiko Agenda 21en Ekintza-planak | **83** |
| Mugikortasun Plana | **8 (2 eskualde)** |
| Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana | **8** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Mugikortasun- eta irisgarritasun-azterlanak | **13** |
| Oinezkoen mugikortasuna hobetzeko jarduketak | **48** |
| Bizikleta bidezko mugikortasuna hobetzeko jarduketak | **36** |
| Garraio publikoaren erabilera sustatzeko eta zerbitzua hobetzeko ekintzak | **19** |
| Kanpoaldeko eta landa-eremuetako auzoetan garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko ekintzak (2.3 JL) | **19** |
| Ibilgailuen abiadura kontrolatzeko neurriak | **13** |
| Hobari fiskalak mugikortasunaren arloan | **52** |
| Sentsibilizazioa, prestakuntza eta kanpainak | **29** |

ADIBIDEAK

**Hirigintza jasangarriari lotutako neurriak:**

- Akuiferoak berriz urez betetzen direla bermatzeko drainatze-sistema jasangarriak inplementatzea udalak etorkizunean hartuko dituen hirigintzako erabakietan (Alegia, Legazpi).
- Eibarko J.A.Mogel auzoa osorik birgaitzea (2012-2018).

**Mugikortasun jasangarriari lotutako neurriak:**

- Trafikoa baretzeko eta oinezkoei lehentasuna emateko neurriak (Donostia, Eibar, Usurbil, etab.).
- Bizikleta elektrikoen zerbitzua udal-langileentzat (Errenteria).
- Etxetik ikastetxera oinez joateko ibilbide seguruak diseinatzea (Donostia, Elgoibar, Oiartzun, etab.).

12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA

# 12. GIH.

KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE JASANGARRIAK BERMATZEA.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

**68. Ekonomia zirkularraren alde egitea.**

**69. Ingurumen aldetik eredugarria den administrazio publikoaren konfigurazioan aurrera egitea.**

**70. Informazio azkar eta eraginkorra eskaintzea kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen.**

71. Turismo jasangarriaren bikaintasuna sustatzea.

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Plan edo estrategia erosketa publiko berdean | **3** |
| Araudia parte-hartzean | **8** |
| Hondakinen prebentzio-planak | **3 (eskualde 1 )** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Ekonomia zirkularrari buruzko azterlanak eta ekintzak (68H) | **31** |
| Ingurumen-irizpideak kontratazio-agirietan sartzea (69H) | **26** |
| Ingurumen-irizpideak papera erosteko eta kontsumitzeko garaian (69H) | **31** |
| Udal-ekitaldien kudeaketa jasangarria (69H) | **6** |
| Ingurumen-ikuskapenak eta egiaztagiriak (69H) | **6** |
| Erosketa Publiko Berdearen kudeaketa (69H) | **5** |
| Hobari fiskalak energiaren inguruan (69H) | **67** |
| Hobari fiskalak mugikortasunaren inguruan (69H) | **52** |
| Hobari fiskalak hondakinen inguruan (69H) | **37** |
| Beste hobari fiskal batzuk (69H) | **8** |
| Ingurumen-irizpideak beste produktu batzuk erosteko garaian (69H) | **6** |

| | |
|---|---|
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak energiaren inguruan (70H) | **53** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak mugikortasunaren inguruan (70H) | **29** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak uraren eta ingurune hidrikoaren inguruan (70H) | **26** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak hondakinen inguruan (70H) | **84** |
| Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak klima-aldaketaren inguruan (70H) | **5** |
| Natura- eta landa-inguruneari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak (70H) | **38** |
| Ingurumen-heziketarako ekipamenduak (70H) | **15** |
| Eskolako Agenda 21 (70H) | **62** |
| Ingurumen Heziketa programak (Eskolako Agenda 21etik kanpo) (70H) | **10** |
| Aste berdeak, aste kulturalak, etab. (70H) | **24** |
| Noizean behingo parte-hartze prozesuak (70H) | **53** |
| Mahai sektorial, foro edo batzorde egonkorrak (70H) | **27** |
| Finkatutako maiztasun batekin errepikatzen diren parte-hartze prozesuak (aurrekontu parte-hartzaileak, etab.) (70H) | **14** |
| Tokiko Agenda 21eko foroak (70H) | **1** |
| Auzolana (70H) | **10** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Tolosaldea Garatzenen koordinaziopean ekonomia zirkularrari buruz Tolosaldean egindako diagnostikoa (2018-2019). |
| Donostiako jatetxeetan elikagaiak alferrik ez galtzeko 2018an hasitako kanpaina. |
| Konpostaje komunitarioa egiteko udal-programak (Asteasu, Donostia, Errenteria, Hernani, Lezo, etab.). |

13 KLIMA BABESTEKO EKINTZA

# 13. GIH.

NEURRI URGENTEAK HARTZEA KLIMA-ALDAKETAREN ETA HAREN ONDORIOEN AURKA EGITEKO.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

72. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea.

**73. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa sustatzea.**

**74. Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.**

**75. Eraikuntza jasangarria, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatzea.**

**76. Klima-aldaketari egokitzeko ikuspegia integratzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onesteko prozesuan eta lurralde- eta hiri-plangintzako tresnetan.**

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Klima-aldaketaren aurkako plana | **7** |
| Suteen prebentzio eta alerten plana | **2** |
| Larrialdi-plana edo larrialdi-plan espezifikoa uholdeen aurrean | **8** |
| Klima-aldaketari buruzko araudia | **2** |
| Energia Iraunkorrerako Ekintza Planak | **7** |
| Energia Planak | **3 (6 eskualde)** |
| Herriko argiak edo udal-instalazioak kudeatzeko plan espezifikoak | **4** |
| Energiari buruzko araudia (herriko argiak, energia-eraginkortasuna, energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarritan inbertitzera zuzendutako diru-laguntzak) | **4** |
| Mugikortasun Plana | **8 (2 eskualde)** |
| Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana | **8** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | % UDALERRIAK |
|---|---|
| Kontsumoa optimizatzea herriko argietan (73H) | **80** |
| Argindarraren eta berokuntzako sistemen kontsumoaren optimizazioa udal-instalaziotan (73H) | **58** |
| Ikuskapenak herriko argietan eta udal-instalaziotan (73H) | **24** |
| Herriko argien eta udal-instalazioen segimendua eta erregulazioa (73H) | **22** |
| Udal-eraikinak birgaitzea (inguratzaile termikoa, etab.) (73H) | **12** |
| Energia berriztagarriak inplementatzeko eta subiranotasun energetikorako azterketak, bekak, azterlanak (74H) | **13** |
| Inbertsioak energia berriztagarritan udal-instalazioak energiaz hornitzeko (74H) | **19** |
| Herritarren kontsumo elektrikoaren segimendua (73H) | **3** |
| Ibilgailu elektrikoak edo hibridoak udal-flotan (74H) | **15** |
| Hobari fiskalak energiaren arloan (73H/74H) | **67** |
| Sentsibilizazioa, prestakuntza, diru-laguntzak energiaren arloan | **53** |
| Garraio publikoaren erabilera sustatzeko eta zerbitzua hobetzeko ekintzak (75H) | **19** |
| Hobari fiskalak mugikortasunaren arloan (75H) | **52** |
| Sentsibilizazioa, prestakuntza eta kanpainak mugikortasunaren inguruan | **29** |
| Luizien prebentzioa (areken garbiketa, etab.) (76H) | **18** |
| Uholdeen arriskuak minimizatzea (76H) | **8** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Dunen sistema egonkortzea higadura-prozesuak saihesteko (Orio, Hondarribia). |
| Klima-aldaketari buruzko proiektu europarretan parte hartzea (Donostia, Tolosa, Zarautz, etab.). |
| "Legazpi Klima 2030" planaren irakurketa errazaren bertsioa. |

14 URETAKO BIZITZA

# 14. GIH.

OZEANOAK, ITSASOAK ETA ITSAS BALIABIDEAK MANTENTZEA ETA MODU JASANGARRIAN ERABILTZEA GARAPEN JASANGARRIARI BEGIRA.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

77. Arrantza jasangarri eta lehiakorra sustatzea.
78. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean.
79. **Lehorretik itsasora doazen isurketen kudeaketa jasangarria.**
80. **Kostaldea babestea lurzoruaren erabilerak arautzearen bidez.**

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Ibaiertzeko Paisaiaren Ekintza Planak | **6** |
| Paisaiaren Ekintza Planak | **16** |
| Araudia uraren zikloaren edo hodi-biltzailera doazen isurketen kudeaketaren inguruan. | **18** |
| Araudia ingurune naturalaren kudeaketaren inguruan | **21** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | **%** UDALERRIAK |
|---|---|
| Enpresen isurketen kontrola eta kudeaketa | **94** |
| Ibaien garbiketak eta aisiarako eremuen egokitzapena | **28** |
| Ekosistema hidrikoen egoeraren azterketa eta hobekuntza | **30** |
| Sentsibilizazio-kanpainak eta prestakuntza uraren eta ingurune hidrikoaren inguruan | **26** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Hondartzak ondo kudeatzeko ingurumen-ziurtagiriak (Deba, Donostia, Zarautz). |
| Saneamendu-azpiegiturei lotutako inbertsioak: mankomunitateak –Añarbe, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, Txingudiko Zerbitzuak–. |
| Isurketen kontrola: mankomunitateak –Añarbe, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, Txingudiko Zerbitzuak–. |

15 LEHORREKO BIZITZA

# 15. GIH.

LEHORREKO BIZITZA BABESTEA, LEHENGORATZEA ETA MODU JASANGARRIAN ERABILI DADILA SUSTATZEA, BASOAK MODU JASANGARRIAN KUDEATZEA, BASAMORTUTZEAREN AURKA BORROKATZEA, LURREN DEGRADAZIOA INBERTITZEA ETA BIODIBERTSITATEAREN GALERA GELDITZEA.

HELBURUAK — letra lodiz Gipuzkoako udaletako tokiko politikekin lerrokatzen direnak —.

**81. Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea lurzoruaren erabilerak arautzearen bidez.**

**82. Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumenaren babes eta kontserbazioan duten erantzunkidetasunean aurrera eginez.**

**83. Biodibertsitatea babestea.**

**84. Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu-planak garatzea.**

**85. Nekazaritza ekologikoa sustatzea.**

**86. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea nekazaritza azpisektorean.**

| LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEN PLANGINTZA ETA ARAUDIA | UDALERRI-**KOPURUA** |
|---|---|
| Ibaiertzeko Paisaiaren Ekintza Planak | **6** |
| Paisaiaren Ekintza Planak | **16** |
| Araudia uraren zikloaren edo hodi-biltzailera doazen isurketen kudeaketaren inguruan. | **18** |
| Araudia ingurune naturalaren kudeaketaren inguruan | **21** |
| Landa-garapena sustatzeko planak edo programak (Landa Garapen Agentziak) | **Eskualde guztiak** |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK GARATUTAKO JARDUKETAK | **%** UDALERRIAK |
|---|---|
| Naturaguneen eta paisaiaren azterketak eta horiek babesteko jarduketak (83H/84H) | **36** |
| Ekosistema hidrikoen egoeraren azterketa eta hobekuntza (83H) | **30** |
| Sentsibilizazio-kanpainak eta prestakuntza ingurune hidrikoaren inguruan (82H) | **26** |
| Aisialdi-guneak sortzea eta mantentzea (81H) | **13** |
| Lurrak erostea edo lurrak erabiltzeko hitzarmenak (81H) | **9** |

| | |
|---|---|
| Baso-kudeaketa jasangarria (81H) | **29** |
| Fauna eta flora espezie inbaditzaileak errotik kentzea eta espezie autoktonoak indartzea (83H) | **28** |
| Natura- eta landa-inguruneari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta azterlanak (82H) | **38** |
| Udal-lurrak lagatzea lehen sektorean lan egin nahi duten herritarrei (85H) | **10** |
| Baso-kudeaketa jasangarria (81H) | **29** |
| Baratze sozialak (85H) | **29** |
| Landa-lurzoruaren azterlanak eta optimizazioa lurzoruaren erabileran (86H) | **6** |

| ADIBIDEAK |
|---|
| Euskara Sailak antolatutako Jose Antonio Loidi beka hidrologiaren eta botanikaren arloetan ikerkuntza sustatzeko (Irun). |
| Elosegi parkeko biodibertsitatea kontserbatzeko eta zabaltzeko proiektua (Tolosa). |
| Saguzarrari lotutako parkea eta ibilbidea Azpeitian. |
| Ibai-tarteak leheneratzeko lanak (Errenteria, Lezo, etab.). |






# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMEN ZUZENDARITZAREN EKINTZEK KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO GIPUZKOAKO ESTRATEGIAREN XEDEEI (KAAGE) ETA AGENDA 2030EN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUEI (GIH) EGINDAKO EKARPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia da gure lurraldean ingurumena kudeatzeko eta babesteko politikak definitzeko eta sustatzeko ardura duen organoa.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren barne egitura zerbitzu bakar baten inguruan antolatzen da eta barnean ditu Iraunkortasun Atala, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaziorako Unitatea, Hondakinen eta Hondartzen Unitatea eta Aldaketa Klimatikorako teknikari arduradun bat, horietako bakoitza bere eginkizun espezifikoekin.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren programa nagusiak hauek dira:

- HIRI HONDAKINAK ETA EKONOMIA ZIRKULARRA.
- HONDARTZA-ITSASERTZAREN KUDEAKETA INTEGRATUA.
- IRAUNKORTASUNA-TA21.
- GIPUZKOA NATURALDIA.
- ENERGIA IRAUNKORRA.
- INGURUMEN INPAKTUA ETA AZPIEGITURA BERDEAK.
- KLIMA ALDAKETA.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren 2017-2019 aldiko jardunak ekarpen zuzena eta zeharkakoa izan du Klima Aldaketaren Aurkako Gipuzkoako Estrategian eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen lorpenean, jarraian adierazitako moduan:

## INGURUMEN ZUZENDARITZAREN EKINTZAREN EKARPENA, GIPUZKOAKO KAA ESTRATEGIA ETA 2030 AGENDAKO GIH LORTZEKO

| INGURUMEN ZUZENDARITZAREN JARDUERA 2018 Y 2019 | 1X | 2X | 3X | 4X | 5X | 6X | 7X | 8X | 9X | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETA ESTRATEGIAREN XEDEAK** | | | | | | | | | 2030 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK* | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **GIPUZKOAKO IRAUNKORTASUNAREN BEHATOKIAREN PROGRAMA** | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| TOKIKO ETA ESKUALDEKO IRAUNKORTASUN POLITIKEN JARRAIPENA EGITEKO AZTERLANAK. TOKIKO IRAUNKORTASUN POLITIKEN DIAGNOSTIKOA | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | | | | | | | ● |
| GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK LORTZEKO ETA TA21A GARATZEKO UDALEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK | | | ● | ● | ● | | ● | ● | ● | | | | | | ● | | | | | ● | ● | ● | | ● | | ● |
| TA21 EKINTZA PLANEN EBALUAZIORAKO UDALEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA ZERBITZUA | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | ● | | | | | | ● |
| INGURUMENAREKIN LOTUTAKO GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEN BILAKAERAREN JARRAIPENA GIPUZKOAN | | | | | | | | | ● | | | ● | ● | | ● | ● | | | | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| UDALSAREA 2030 SAREAN PARTE HARTZEA | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | | | | | | | ● |
| **KLIMA ALDAKETAREN PROGRAMA** | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO GIPUZKOAKO ESTRATEGIAREN GARAPENA (GIPUZKOA KLIMA 2050) | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | | ● | | ● | ● | ● | ● | ● | | ● | ● | ● | | ● | | |
| GIPUZKOA KLIMA 2050 ESTRATEGIAREN ADIERAZLE KOADROAREN ETA JARRAIPEN TXOSTENEN DEFINIZIOA ETA KALKULUA | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | | | | | | | | | | | | ● | | | | |
| KLIMA ALDAKETAREN ALORREKO ZAURGARRITASUNAREN ETA ARRISKUEN INGURUKO AZTERLANA (AURREIKUSIA). | | | ● | | | | ● | | ● | | | | | | | | | ● | | ● | | ● | | ● | | |
| GIPUZKOA-NATURKLIMA KLIMA ALDAKETAREN FUNDAZIOAREN JARDUNA GAINBEGIRATZEA. KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAREN BEHATOKIA; EKONOMIA ZIRKULARRAREN HUB-A ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HUB-A. BEHIN BETIKO EGOITZAREN PROIEKTUA | ● | | | | | ● | | | ● | | | | | | | ● | | | | | ● | ● | | | | ● |
| FORU INSTALAZIOAK KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA | ● | | | | | | ● | | ● | | | | | | | ● | | ● | | ● | | ● | | | | |
| HONDARTZA-ITSASERTZAREN BIDEOMETRIA FORU SAREAREN EZARPENA ETA GARAPENA (HAREATZEN ETA ITSASERTZAREN BILAKAERA MORFODINAMIKOA). AZTIREKIN LANKIDETZA | | | ● | ● | | | ● | | ● | | | | | | | | | ● | | ● | | ● | ● | | | |
| KLIMA ALDAKETAREN INGURUKO IKERTZAILEEI ZUZENDUTAKO BEKAK | | | | | | | | ● | ● | | | | ● | | | | ● | ● | | | | ● | | | | |
| KLIMA ALDAKETAREN INGURUKO INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | | | ● | | | ● | | | | ● | ● | ● | | | | |
| BESTE ERAKUNDE BATZUEK BULTZATUTAKO EGOKITZE PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA: KOSTAEGOKI, URBAN KLIMA, ETC. | | | ● | ● | | | ● | ● | ● | | | | | | | | | ● | | ● | ● | ● | ● | | | ● |

*XEDEEN deskribapena:*

**1X.** KARBONO GUTXIKO ENERGIA-EREDU BATEN ALDE EGITEA.
**2X.** ISURPENIK GABEKO GARRAIO BATERANTZ AURRERA EGITEA.
**3X.** LURRALDEAREN ERAGINKORTASUNA ETA ERRESILIENTZIA AREAGOTZEA
**4X.** NATURA INGURUNEAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA.
**5X.** LEHEN SEKTOREAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA ETA HAREN EMISIOAK MURRIZTEA.
**6X.** HIRI-HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEA ETA ZERO ISURPEN LORTZEA TRATAERARIK GABE
**7X.** ARRISKUEI AURREA HARTZEA
**8X.** BERRIKUNTZA, HOBEKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA BULTZATZEA
**9X.** GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ARDURATSU, EREDU ETA ERREFERENTE DA KLIMAALDAKETAREN ARLOAN

***HELBURUEN deskribapena:*

1. POBREZIAREN AMAIERA
2. ZERO GOSE
3. OSASUNA ETA ONGIZATEA
4. KALITATEZKO HEZKUNTZA
5. GENERO BERDINTASUNA
6. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA
7. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
8. LANA ETA EKONOMIA HAZKUNTZA
9. BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK
10. EZBEDINKETAREN MURRIZKETA
11. HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK
12. KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE IRAUNKORRAK
13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
14. ITSAS AZPIKO BIZIA
15. LEHORREKO FLORA ETA FAUNA
16. BAKEA ETA JUSTIZIA
17. HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK

## INGURUMEN ZUZENDARITZAREN EKINTZAREN EKARPENA, GIPUZKOAKO KAA ESTRATEGIA ETA 2030 AGENDAKO GIH LORTZEKO

| GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETA ESTRATEGIAREN XEDEAK** | | | | | | | | | INGURUMEN ZUZENDARITZAREN JARDUERA 2018 Y 2019 | 2030 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK* | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1X | 2X | 3X | 4X | 5X | 6X | 7X | 8X | 9X | **HIRI HONDAKINEN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN PROGRAMA** | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| | | | | | ● | | | | GIPUZKOAKO INGURUMEN GUNEA (GIG) ERAIKITZEKO LAGUNTZA ETA ALDI BATERAKO IRTENBIDEA (GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA) | | | | | | | | | ● | | | | | | | | |
| | | | | | ● | | | | 2019-2020 HONDAKIN PLANAREN PRESTAKETA ETA GARAPENA | | | | | | | | | | | ● | ● | ● | | | | |
| | | | | | ● | | | | GIPUZKOAKO HONDAKINEN PREBENTZIO ETA KUDEAKETARAKO BEHATOKIA ETA BEHATOKIAREN MAHAIAREN DINAMIZAZIOA (GFA-MANKOMUNITATEAK-GHK). HIRI HONDAKINEN SORRERAREN DATU PLATAFORMAREN MANTENTZEA ETA GARAPENA | | | | | | | | | | | | ● | | | | | |
| | | | | | ● | | | | GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAN (GHK) PARTE HARTZEA ETA HAREN FINANTZAKETA | | | | | | | | | ● | | | | | | | | |
| | | | | | ● | | ● | | MANKOMUNITATEEI, UDALEI, TEKNOLOGIA ETA HEZKUNTZA ZENTROEI, ENPRESEI ETA ELKARTEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK ETA LANKIDETZA HITZARMENAK, HONDAKINEN PREBENTZIOA, BERRERABILTZEKO PRESTAKETA, GAIKAKO BILKETA, BIRZIKLATZEA ETA BALIOZTAPENA SUSTATZEKO JARDUERAK BURUTZEKO | | | | | | | | | | | ● | ● | | ● | ● | | |
| | | | | | ● | | ● | | ELIKAGAIEN ZARRASTELKERIA PREBENITZEKO PROGRAMA (ELIKAGAIEN BANKUA, BASQUE CULINARY CENTER, DEUSTOTECH, IMPACT HUB ETA BESTE ERAGILE BATZUK) | | | | ● | | | | | ● | | ● | ● | | | | | |
| | | | | | ● | | | | HIRI HONDAKINEN BILKETA ADIMENTSUKO SISTEMEN PILOTUAREN EZARPENA | | | | | | | | | ● | | ● | ● | | | | | |
| | | | | | ● | | | | EKONOMIA ZIRKULARRA SUSTATZEKO ENPRESA KLUSTERREN BULTZADA ETA DINAMIZAZIOA: GK RECYCLING (BIRZIKLATZEAREN INGURUKOA; 59 KIDE) ETA GK GREEN FASHION (MODA IRAUNKORRAREN INGURUKOA; 22 KIDE) | | | | | | | | ● | ● | | | ● | | | | | |
| | | | | | ● | | | | HONDAKINEN ALORREKO INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA HEZKUNTZA PROGRAMA (PREBENTZIOAREN EUROPAKO ASTEA, ETAB.). | | | | ● | | | | | | | ● | ● | | | | | |
| | | | | | ● | | ● | | EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALORREKO IKERTZAILE GAZTEEI ZUZENDUTAKO BEKAK: HONDAKINEN PREBENTZIOA ETA KUDEAKETA, ETA EKODISEINUA | | | | ● | | | | | ● | | | | | | | | |
| | | | | | ● | | | | SAKABANATUTAKO ZABORRA PREBENITZEKO ETA MURRIZTEKO PROGRAMA (ITSASERTZA, IBAIAK ETA LURRALDEA). | | | | | | | | | | | ● | | | ● | ● | | |
| | | | | | ● | | | | INGURUMEN BAIMENAK ETA IZAPIDEAK: SAILKATUTAKO JARDUERAK ETA BETELANETARAKO BAIMENAK | | | | | | | | | | | ● | ● | | | | | |

*XEDEEN deskribapena:*

**1X.** KARBONO GUTXIKO ENERGIA-EREDU BATEN ALDE EGITEA.
**2X.** ISURPENIK GABEKO GARRAIO BATERANTZ AURRERA EGITEA.
**3X.** LURRALDEAREN ERAGINKORTASUNA ETA ERRESILIENTZIA AREAGOTZEA
**4X.** NATURA INGURUNEAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA.
**5X.** LEHEN SEKTOREAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA ETA HAREN EMISIOAK MURRIZTEA.
**6X.** HIRI-HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEA ETA ZERO ISURPEN LORTZEA TRATAERARIK GABE
**7X.** ARRISKUEI AURREA HARTZEA
**8X.** BERRIKUNTZA, HOBEKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA BULTZATZEA
**9X.** GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ARDURATSU, EREDU ETA ERREFERENTE DA KLIMAALDAKETAREN ARLOAN

***HELBURUEN deskribapena:*

1. POBREZIAREN AMAIERA
2. ZERO GOSE
3. OSASUNA ETA ONGIZATEA
4. KALITATEZKO HEZKUNTZA
5. GENERO BERDINTASUNA
6. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA
7. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
8. LANA ETA EKONOMIA HAZKUNTZA
9. BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK
10. EZBEDINKETAREN MURRIZKETA
11. HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK
12. KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE IRAUNKORRAK
13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
14. ITSAS AZPIKO BIZIA
15. LEHORREKO FLORA ETA FAUNA
16. BAKEA ETA JUSTIZIA
17. HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK

## INGURUMEN ZUZENDARITZAREN EKINTZAREN EKARPENA, GIPUZKOAKO KAA ESTRATEGIA ETA 2030 AGENDAKO GIH LORTZEKO

| GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETA ESTRATEGIAREN XEDEAK* | | | | | | | | | INGURUMEN ZUZENDARITZAREN JARDUERA 2018 Y 2019 | 2030 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK** | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1X | 2X | 3X | 4X | 5X | 6X | 7X | 8X | 9X | HONDARTZEN ETA ITSASERTZAREN KUDEAKETA INTEGRATURAKO PROGRAMA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| | | ● | | | ● | ● | | | HONDARTZEN KUDEAKETA INTEGRATUKO PLANAREN GARAPENA ETA BESTELAKO HOBEKUNTZA AZTERLANAK (KOSTUAK, INGURUMEN ETA KALITATE ZIURTAGIRI INTEGRATUA | | | | | | | | | | | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| | | | | | | | | | HONDARTZEN GARBIKETA ETA GARBIKETAREN ETA GORABEHEREN GAINBEGIRATZEA (HONDARRIBIA, ORIO, ZARAUTZ, GETARIA, ZUMAIA, DEBA ETA MUTRIKU). ANIMALIAK ATERATZEKO PROTOKOLOA | | | ● | | | | | | | | ● | | | ● | | | |
| | | | | | | | | | DONOSTIAKO HONDARTZEN GARBIKETARI EGINDAKO EKARPENA | | | ● | | | | | | | | ● | | | ● | | | |
| | | | | | | | | | IRISGARRITASUNA HOBETZEKO PROIEKTUA | | | | | | | | | ● | | ● | | | | | | |
| | | | | | | | | ● | GIPUZKOAKO HONDARTZEN LURRALDE MAHAIA DINAMIZATZEA ETA SUSTATZEA ETA UDALEN KOORDINAZIOA | | | | | | | | | | | ● | | | | | | ● |
| | | | | | | | | ● | BESTELAKO ERAGILE INSTITUZIONALEKIN LANKIDETZA | | | | | | | | | | | ● | | | | | | ● |
| | | | | | | | | | HONDARTZEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKAINTZEN DUEN WEB PLATAFORMA: WEBCAM SAREA ETA INFORMAZIO METEOROLOGIKOA, URAREN KALITATEA, BAINATZEKO SEGURTA-SUNA, ZERBITZUAK, ETAB. | | | | ● | | | | | | | ● | | | | | | |
| | | | | | | ● | | | HONDARTZA-ITSASERTZAREN BIDEOMETRIA FORU SAREAREN EZARPENA ETA GARAPENA (ERABILTZAILEEN DENTSITATEA, OLATU ETA KORRONTEEN MAPAK, SOROSPENERAKO LAGUNTZA ETA HAREATZEN ETA ITSASERTZAREN BILAKAERA MORFODINAMIKOA). AZTIREKIN LANKIDETZA. | | | | | | | | | ● | | | | ● | ● | | | |
| | | | ● | | | | | | LIFE LEMA PROIEKTUAREN GARAPENA, ITSASOKO HONDAKINAK JASOTZEKO SISTEMA ADIMENTSUA SORTZEKO HELBURUA DUENA | | | | | | | | | ● | | ● | | | ● | | | |
| | | | ● | | ● | | | | HONDARTZETAN BURUTZEN DEN INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA: UDAKO KANPAINA IBILTARIAK. | | | | ● | | | | | | | ● | ● | | ● | ● | | |
| | | | ● | | ● | | ● | | OSPAR GARBIKETA KANPAINARI EMANDAKO LAGUNTZA, BESTE ERAGILE BATZUEKIN LANKIDETZAN | | | | | | | | | | | ● | | | ● | ● | | |

** XEDEEN deskribapena:*

**1X.** KARBONO GUTXIKO ENERGIA-EREDU BATEN ALDE EGITEA.
**2X.** ISURPENIK GABEKO GARRAIO BATERANTZ AURRERA EGITEA.
**3X.** LURRALDEAREN ERAGINKORTASUNA ETA ERRESILIENTZIA AREAGOTZEA
**4X.** NATURA INGURUNEAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA.
**5X.** LEHEN SEKTOREAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA ETA HAREN EMISIOAK MURRIZTEA.
**6X.** HIRI-HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEA ETA ZERO ISURPEN LORTZEA TRATAERARIK GABE
**7X.** ARRISKUEI AURREA HARTZEA
**8X.** BERRIKUNTZA, HOBEKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA BULTZATZEA
**9X.** GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ARDURATSU, EREDU ETA ERREFERENTE DA KLIMAALDAKETAREN ARLOAN

***HELBURUEN deskribapena:*

1. POBREZIAREN AMAIERA
2. ZERO GOSE
3. OSASUNA ETA ONGIZATEA
4. KALITATEZKO HEZKUNTZA
5. GENERO BERDINTASUNA
6. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA
7. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
8. LANA ETA EKONOMIA HAZKUNTZA
9. BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK
10. EZBEDINKETAREN MURRIZKETA
11. HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK
12. KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE IRAUNKORRAK
13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
14. ITSAS AZPIKO BIZIA
15. LEHORREKO FLORA ETA FAUNA
16. BAKEA ETA JUSTIZIA
17. HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK

## INGURUMEN ZUZENDARITZAREN EKINTZAREN EKARPENA, GIPUZKOAKO KAA ESTRATEGIA ETA 2030 AGENDAKO GIH LORTZEKO

| GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETA ESTRATEGIAREN XEDEAK* | | | | | | | | | INGURUMEN ZUZENDARITZAREN JARDUERA 2018 Y 2019 | 2030 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK** | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1X | 2X | 3X | 4X | 5X | 6X | 7X | 8X | 9X | ENERGIA IRAUNKORRAREN PROGRAMA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| ● | | ● | | | | | ● | ● | GIPUZKOAKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN ESTRATEGIA PRESTATZEA | | | | ● | | | ● | ● | ● | | ● | ● | ● | | | | ● |
| ● | | | | | | | ● | ● | GIPUZKOAKO POBREZIA ETA ZAURGARRITASUN ENERGETIKOAREN BEHATOKIA | ● | | | | ● | | ● | | | ● | | ● | ● | | | | |
| ● | | ● | | | | | ● | | "ENERGIA BERRIZTAGARRIEN POTENTZIALAREN INGURUKO AZTERLANA (TEKNOLOGIA ENERGETIKOEN ETA HAUEN NEGOZIO EREDUEN INPAKTUAREN AZTERKETA). | | | | | | | ● | ● | ● | | | | ● | | | | |
| ● | | | | | | | ● | | ARGITU PROGRAMA: ETXEBIZITZEI ETA SALTOKI TXIKIEI ZUZENDUTAKO EFIZIENTZIA ENERGETIKOAREN ETA ZAURGARRITASUN ENERGETIKOAREN MURRIZKETAREN INGURUKO AHOLKULARITZA | | | | | | | ● | | | | | ● | ● | | | | |
| ● | | | | | | | | ● | ENERGIA IRAUNKORREKO ESKUALDEETAKO PLANEN SUSTAPENA | | | | | | | ● | ● | | | ● | ● | ● | | | | ● |
| ● | | | | | | | | ● | ENERGIA IRAUNKORREKO LURRALDE MAHAIAREN DINAMIZAZIOA | | | | | | | ● | | | | | | ● | | | | ● |
| ● | | | | | | | | ● | FORU SEKTORE PUBLIKOKO ENERGIA KUDEAKETA INTEGRALERAKO SISTEMA (ERAIKINAK, INSTALAZIOAK ETA IBILGAILUAK): PLANGINTZA ETA AUDITORETZAK, ZIURTAPENAK, GAINBEGIRATZEA (FAKTURAZIOA ETA TELENEURKETA KONTAGAILUAK, ENERGIA HOBEKUNTZARAKO PROIEKTUAK ETA OBRAK, ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PARKEA, PRESTAKUNTZA). | | | | | | | ● | | ● | | ● | ● | ● | | | | |
| ● | | | | | | | ● | | SENTSIBILIZAZIO ETA PRESTAKUNTZA PROGRAMA (LANKIDETZA USURBILGO LANBIDE ESKOLAREKIN), ENERGIA URTEKO JARDUNALDIAK ETA BESTE EKITALDI BATZUK | | | | ● | | | ● | ● | ● | | ● | | ● | | | | ● |
| ● | | | | | | | ● | | EFIZIENTZIA ENERGETIKORAKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIETARAKO TOKIKO ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK | | | | | | | ● | | | | ● | | ● | | | | |
| ● | | | | | | | ● | | ENERGIAREN ALORREKO IKERTZAILE GAZTEEI ZUZENDUTAKO BEKAK | | | | ● | | | ● | ● | ● | | | | ● | | | | |

** XEDEEN deskribapena:*

**1X.** KARBONO GUTXIKO ENERGIA-EREDU BATEN ALDE EGITEA.
**2X.** ISURPENIK GABEKO GARRAIO BATERANTZ AURRERA EGITEA.
**3X.** LURRALDEAREN ERAGINKORTASUNA ETA ERRESILIENTZIA AREAGOTZEA
**4X.** NATURA INGURUNEAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA.
**5X.** LEHEN SEKTOREAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA ETA HAREN EMISIOAK MURRIZTEA.
**6X.** HIRI-HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEA ETA ZERO ISURPEN LORTZEA TRATAERARIK GABE
**7X.** ARRISKUEI AURREA HARTZEA
**8X.** BERRIKUNTZA, HOBEKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA BULTZATZEA
**9X.** GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ARDURATSU, EREDU ETA ERREFERENTE DA KLIMAALDAKETAREN ARLOAN

***HELBURUEN deskribapena:*

1. POBREZIAREN AMAIERA
2. ZERO GOSE
3. OSASUNA ETA ONGIZATEA
4. KALITATEZKO HEZKUNTZA
5. GENERO BERDINTASUNA
6. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA
7. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
8. LANA ETA EKONOMIA HAZKUNTZA
9. BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK
10. EZBEDINKETAREN MURRIZKETA
11. HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK
12. KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE IRAUNKORRAK
13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
14. ITSAS AZPIKO BIZIA
15. LEHORREKO FLORA ETA FAUNA
16. BAKEA ETA JUSTIZIA
17. HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK

# INGURUMEN ZUZENDARITZAREN EKINTZAREN EKARPENA, GIPUZKOAKO KAA ESTRATEGIA ETA 2030 AGENDAKO GIH LORTZEKO

| INGURUMEN ZUZENDARITZAREN JARDUERA 2018 Y 2019 | GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETA ESTRATEGIAREN XEDEAK** | | | | | | | | | 2030 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK* | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1X | 2X | 3X | 4X | 5X | 6X | 7X | 8X | 9X | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| **INGURUMEN INPAKTUAREN ETA LEHEN-GORATZEAREN ESPARRUKO PROGRAMA** | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| PLANEN ETA PROIEKTUEN INGURUMEN EBALUAZIOA | ● | ● | ● | ● | | | ● | | ● | | | ● | | | ● | ● | | ● | | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| INGURUMEN INPAKTUAREN JARRAIPENA BURUTZEKO AZTERLANAK | ● | ● | ● | ● | | | ● | | ● | | | ● | | | ● | ● | | ● | | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| INGURUMEN ETA KLIMA ALDAKETAREN INGURUKO IRIZPIDEEN APLIKAZIOA LURRALDE ANTOLAMENDURAKO | ● | ● | ● | | | | ● | | | | | | | | | ● | | | | ● | | ● | | | | |
| GIPUZKOAKO AZPIEGITURA BERDEAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA | | | ● | ● | ● | | ● | | | | | ● | | | ● | | | ● | | ● | | ● | ● | ● | | |
| EREMU DEGRADATUAK BERRESKURATZEKO PROIEKTUAK ETA OBRAK | | | ● | ● | | | ● | | | | | | | | | | | | | ● | | ● | | ● | | |
| **NATURARA HURBILTZEKO PROGRAMA: GIPUZKOA NATURALDIA** | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| AZTERLAN ETA ANALISI SOZIOLOGIKOAK | | | | ● | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | ● | | |
| ARGITALPENAK | | | | ● | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | ● | | |
| WEBGUNEA ETA LINEAKO BALIABIDEAK | | | | ● | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | ● | | |
| URTEKO NATURALDIA EKITALDI PROGRAMAREN DISEINUA ETA GARAPENA (DOKUMENTALAK, ZINEMA, HITZALDIAK, ETAB.). | | | | ● | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | ● | | |
| EGOITZEN KOORDINAZIOA: TOLOSA, AZPEITIA, OÑATI, ERRENTERIA, EIBAR, AQUARIUM-DONOSTIA, GEOGARAPEN (MUTRIKU, DEBA, ZUMAIA). | | | | ● | | | | | | | | | ● | | | | | | | | | | | ● | | |
| **BESTE BATZUK** | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| INGURUMEN FISKALITATEA: SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA MURRIZTEKO INGURUMEN EGOKITASUNARI BURUZKO ZIURTAGIRIAK EMATEA | ● | ● | | | | ● | | ● | ● | | | ● | | | ● | ● | ● | ● | | ● | ● | ● | | | | |
| INGURUMENEKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN WEB PLATAFORMAREN KUDEAKETA | | | | | | | | | ● | | | | ● | | | ● | | | | ● | ● | ● | | | | |

*XEDEEN deskribapena:*

**1X.** KARBONO GUTXIKO ENERGIA-EREDU BATEN ALDE EGITEA.
**2X.** ISURPENIK GABEKO GARRAIO BATERANTZ AURRERA EGITEA.
**3X.** LURRALDEAREN ERAGINKORTASUNA ETA ERRESILIENTZIA AREAGOTZEA
**4X.** NATURA INGURUNEAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA.
**5X.** LEHEN SEKTOREAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA ETA HAREN EMISIOAK MURRIZTEA.
**6X.** HIRI-HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEA ETA ZERO ISURPEN LORTZEA TRATAERARIK GABE
**7X.** ARRISKUEI AURREA HARTZEA
**8X.** BERRIKUNTZA, HOBEKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA BULTZATZEA
**9X.** GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ARDURATSU, EREDU ETA ERREFERENTE DA KLIMAALDAKETAREN ARLOAN

***HELBURUEN deskribapena:*

1. POBREZIAREN AMAIERA
2. ZERO GOSE
3. OSASUNA ETA ONGIZATEA
4. KALITATEZKO HEZKUNTZA
5. GENERO BERDINTASUNA
6. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA
7. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
8. LANA ETA EKONOMIA HAZKUNTZA
9. BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK
10. EZBEDINKETAREN MURRIZKETA
11. HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK
12. KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE IRAUNKORRAK
13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
14. ITSAS AZPIKO BIZIA
15. LEHORREKO FLORA ETA FAUNA
16. BAKEA ETA JUSTIZIA
17. HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK



# 8

# ONDORIOAK

Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokiaren ikuspuntutik Gipuzkoako lurralde historikoko egoeraren eta iraunkortasun politiken joeraren inguruan burututako diagnostikotik eratorritako ondorio nagusiak hauek dira:

1. **Ukaezina da Tokiko Agenda 21 (TA21) ekimenak eragin positiboa izan duela Gipuzkoako udalerri eta eskualdeetako tokiko iraunkortasun politiken prestaketan eta garapenean.** Udal gehienek iraunkortasun politiken –eta ingurumen politikaren barne zeuden alderdi ugariren– integrazioari ekin zioten beren TA21 prozesuak abian jarri zirenean. TA21aren ezarpenaren ondorioz, udalek ingurumenaren hobekuntza eta garapen iraunkorra helburu zituzten baliabide teknikoak eta aurrekontu baliabideak sortu zituzten, udal kudeaketaren jardun esparru berriak garatu zituzten –mugikortasun iraunkorrak, energia, klima aldaketa, bioaniztasuna, erosketa berdea, etab.– eta ezaguera eta esperientzia berriak eskuratu zituzten. Hori guztia dela eta, TA21, garapen iraunkorrerako gobernamendu tresna gisa, zenbait udalerritan bakarrik indarrean egon arren, iraunkortasunaren aldeko tokiko ekintzek bizirik diraute eta indar handiarekin gainera.

2. **TA21 oraindik ere indarrean dago Gipuzkoako udalerri ugaritan.** Ez da alde nabarmenik aurkitu TA21 indarrean duten udalerrien portzentajeen eta 2015. urtean “TOKIKO AGENDAREN 15 URTE GIPUZKOAN: TA21 berritu baterako gakoak garapen iraunkorrerako gobernamendu-eredu gisa” dokumenturako burutu zen diagnostikoaren artean. Horrek esan nahi du, proiektuak erabat garatzeko aurkitutako zailtasun eta arazoen aurrean (ikus “TOKIKO AGENDAREN 15 URTE GIPUZKOAN” dokumentuaren 3.3 atala), tresna baliagarria izan dela –eta oraindik ere badela– garapen iraunkorreko tokiko politiken plangintzarako, garapenerako eta partaidetzarako. Edonola ere, TA21aren tokiko ekintza planak berrikusteko eta eguneratzeko prozesuen kopuruan murrizketa bat antzeman da eta, beraz, datozen urteotan, indarrean dauden TA21en pixkanakako murrizketa bat gertatuko dela uste da.

3. **Diagnostikoari esker eskuratutako datuak oinarri hartuta, udal TA21aren jarraipena baldintzatzen duen ageriko faktore nagusia udalerriaren tamaina da, eta horrek dakarren baliabide tekniko eta ekonomikoen eskuragarritasuna.** Honela, 7.000 biztanletik gorako udalerrien % 67k (hauen % 92k gutxienez ere teknikari arduradun bat du ingurumen/iraunkortasun sailerako) TA21a indarrean mantentzen du. Aldiz, Gipuzkoan dauden 1.000 biztanletik beherako 31 udalerrien artean, portzentaje hori % 41era murrizten da.

4. **Tokiko garapen iraunkorrarekin lotutako gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren alorreko alderdiak plan edo estrategia beraren baitan sartzeko helburua zuten plangintza integraleko planteamenduak bertan behera uzteko nolabaiteko joera antzeman da.** Horren ordez, ekintza eta

plangintzaren ikuspuntu sektorialagoa ezarri da, garapen iraunkorraren elementuak modu independentean eta bakoitza bere aldetik jorratzen dituena. Baliteke Nazio Batuen Erakundeko 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) betetzeko xedea duten tokiko politikak pixkanaka garatzearekin batera, izaera integraleko planak berriz ere suspertzea, baina, oraingoz, GIH berak ere ikuspegi partzial batetik jorratzen ari dira –nagusiki gizartearen edo ingurumenaren ikuspuntutik–.

5. **Klima aldaketaren aurkako borroka (KAB) protagonismo nabarmena eskuratzen ari da ingurumenaren eta iraunkortasunaren inguruko tokiko politiken esparruan.** Hala ere, protagonismo hori oraindik ez da plangintzan nabaritu; berez, klima aldaketaren aurkako borrokarako programa edo plan espezifikoak eskasak dira oraindik Gipuzkoako tokiko eta eskualdeko esparruetan (7 udalerrik bakarrik dute KAB plan espezifikoren bat). Edonola ere, udalerriek neurri handi batean ulertu dute presakoa dela klima aldaketaren aurka borrokatzea eta berotegi efektuko gasen isurpenak arintzeko ekintzek –batez ere energiaren eta mugikortasunaren arloetan– iraunkortasunerako tokiko jardunaren zati handi bat hartu dute. Momentuz, klima aldaketari egokitzeko helburua duten ekintzek protagonismo txikiagoa izan dute, ondorioak arintzeko ekintzekin alderatuta.

6. **Aipagarria da udalek eta eskualdeetako erakundeek energiaren iraunkortasunaren arloan burututako ahalegin garrantzitsua.** Aztertu diren gaien artean, hau da plan gehien dituenetako bat eta bereziki azpimarratzekoa da eskualdeetako agentziek energia planak garatzeko egin duten lana, Energiaren Foru Programaren sostengua jaso duena. Halaber, hau izan da ere jarduketa gehien gauzatu dituen arloetako bat, bereziki energia eraginkortasunari dagokionez eta, neurri txikiagoan, energia berriztagarrien ezarpenari dagokionez. Oraindik ez da gehiegi garatu udalen aldetiko energia eraginkortasunaren araudia, baina jada hasi dira udal ordenantzak prestatzen eraikinen eta argiteriaren energia eraginkortasunaren inguruan. 4/2019 Lege berriak, otsailaren 21ekoak, EAEko Energia Iraunkortasunari buruzkoak, nahitaezkotzat jotzen du energia plangintza udalerri guztientzat, beraz, plan hauen ezarpena eta garapena nabarmen zabalduko dira datozen urteotan.

7. **Mugikortasun iraunkorraren alorrean ere udal ekintza ugari izan dira aztertutako urteetan, bereziki oinezkoen eta bizikletarien mugikortasuna hobetzeko jarduketen esparruan, eta baita sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainen esparruan ere.** Era berean, udalerri handietako askok alor honetako plangintza espezifikoa dute. Kasu honetan, 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, EAEko Energia Iraunkortasunari buruzkoak, nahitaezkotzat jotzen du hiri mugikortasunaren plangintza burutzea 5.000 biztanletik gorako udalerrientzat eta foru aldundiei gainerako lurraldearen hiriarteko mugikortasuna barne hartzen duten mugikortasun planak ezartzeko betebeharra egozten die. Ondorioz, seguruenik ugaritu egingo dira datozen urteotan mugikortasun iraunkorragoa lortzeko helburua duten jarduketak, bai tokiko mailan zein eskualde eta lurralde historikoaren esparruetan ere.

8. **Ia udalerri guztiek garatu dituzte uraren kudeaketa (hornidura eta saneamendua) eta hondakinen kudeaketa (bilketa eta tratamendua) hobetzeko jarduketak, tradizionalki tokiko administrazioarekin lotura izan duten ingurumen zerbitzuak izanda.** Jarduera hauek, oro har, ordenantza bidez arautu dira, bai udal ordenantza bidez eta baita, bereziki, kudeaketaren zati handi bat daramaten mankomunitateek eta partzuergoek onartutako arauen bidez ere. Hondakinei dagokienez, oso nabarmena da biohondakien kudeaketa hobetzeko (udalerrien % 81) eta gaikako bilketa sustatzeko (udalerrien % 61) burututako jardueren kopurua. Aldiz, berriagoak eta mugatuagoak dira hondakinen prebentzioa eta ekonomia zirkularra sustatzeko jarduerak.

9. **Ingurune naturalaren eta landa ingurunearen antolamenduarekin eta kudeaketarekin lotutako jardueren kasuan, desberdindu behar dira tokiko nekazaritza sektorea eta landa ingurunerako sarbideak eta zerbitzuak hobetzeko xedea duten politikak, alde batetik, eta ingurune naturalaren eta bioaniztasunaren zaintza eta kudeaketarako politikak, bestetik.** Lehenengoen kasuan, sarritan burutu dira tokiko produktuak sustatzeko (udalerrien % 45) eta landa inguruneko mugikortasuna hobetzeko (udalerrien % 76) ekintzak. Ingurune naturalaren edo bioaniztasunaren zaintza eta hobekuntzari dagokionez, izaera erabat kontserbazionista duten ekintzak oraindik ez dira gehiegi zabaldu, baina udalak, pixkanaka, ahalduntzen ari direla eta erantzukizunak hartzen ari direla nabaritu da, mendi publikoen eta landa espazio naturalen kudeaketaren esparruan. Hainbat udalek habitaten eraberritzea –hezeguneak, baso autoktonoak, ibaiertzak–, landare inbaditzaileen desagerraraztea eta ingurune naturalaren azterketak eta inbentarioak helburu dituzten jarduketak burutu dituzte. Plangintzaren esparruan, aipatzekoak dira erabilitako planteamenduen eta ikuspegien aniztasuna eta heterogeneotasuna. Honela, udal mendien kudeaketarako planak, ondare naturala zaintzeko udal estrategiak eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legetik eratorritako zaintza plan bereziak aurkitu ditugu, besteak beste. Halaber, hainbat udalerrik paisaiaren inguruko ekintza planak garatu dituzte.

10. **Oraindik ere alderdi ugari daude garatzeke erosketa publiko berdearen eta fiskalitate berdearen alorretan.** Gero eta sarriago sartzen dira ingurumen irizpideak kontratazio agirietan eta produktu jakinen erosketan, hala nola energia eta papera, baina oraindik ere ez da jardunbide hedatua. Espero da, kontratazio publikorako arau berriekin, erosketa berdeko irizpideen aplikazioa areagotzea administrazio guztien aldetik, baita tokiko erakundeen aldetik ere. Hobari fiskalen aplikazioa maiz gertatzen da energiaren (% 67), mugikortasunaren (% 52) eta hondakinen (% 37) esparruetan.

11. **Sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak ohikoak dira udalerri gehienetan, batez ere energiaren eta hondakinen inguruan.** Eskolako Agenda 21 ezarri egin da udalerrien % 62ren hezkuntza zentroetan. Erabakiak hartzeko orduan **herritarrek duten partaidetza aztertuta**, aipagarria da TA21arekin lotutako foro gehienak desagertu direla (udalerrien % 1ean bakarrik mantentzen dira) eta udalerri gehienetan ez dagoela izaera iraunkorreko partaidetza mahairik edo fororik (% 27). Askoz ere sarriago antolatzen dira plan edo proiektu jakinekin lotutako partaidetza prozesuak, udalen % 53k burututako moduan.

12. **Udal politikek Klima Aldaketaren Gipuzkoako Estrategiari egindako ekarpena aztertu ondoren, ondorioztatu da iraunkortasunaren aldeko tokiko ekintzen zati handi bat Estrategia honen helburuekin bat datorrela.** Lehenago aipatu moduan, oso nabarmentzekoa da energia eraginkortasunaren (Estrategiaren 1. xedea), mugikortasunaren alderdi jakinen (2. xedea), hondakin uren kudeaketaren (3. xedea) eta hondakinen kudeaketaren (6. xedea) arloetan burututako lana. Aldiz, tokiko mailan ezarpen eskasa izan duten eta Estrategian definitutako helburuak erabat bete ahal izateko sustatu beharko diren hainbat alor antzeman dira. Besteak beste:

    - Autokontsumorako energia berriztagarriaren sorkuntza banatua sustatzea eta hirigintza eta eraikingintzan energia berriztagarriak bultzatzea. (1. xedea).
    - Hirigintzaren ikuspuntutik mugikortasun eskaria murrizten saiatzea eta erregai alternatiboak darabiltzaten ibilgailuetarako trantsizioan ekarpenak egitea. (2. xedea).
    - Azpiegitura berdearen kontzeptua integratzea –klima aldaketara egokitzeko, ingurune naturalaren erresilientzia hobetzeko eta ekosistema zerbitzuak optimizatzeko elementu gisa– udalerrietako eta

eskualdeetako planteamendu eta kudeaketetan (3. eta 4. xedeak)

- Hondakinen prebentzioa eta ekonomia zirkularra sustatzea helburu dituzten udal estrategiak eta jarduerak hobetzea. (6. xedea).

- Klima aldaketatik eratorritako arriskuak integratzea udalerrien egitura antolamenduan eta antolamendu xehatuan. Klima aldaketaren efektuak kontuan hartzea udal azpiegiturak diseinatzeko orduan (7. xedea).

- Erosketa berderako irizpideak garatu eta udal kontratuetan integratzea (9. xedea).



# 9 BIBLIOGRAFIA


- *Gipuzkoako Tokiko Agenda 21eko ekintza-planen ebaluazio-txostena, 2015. urtea (Gipuzkoako Jasangarritasun Behatokia).*
- *Tokiko agenda 21en 15 urte Gipuzkoan: A21 berritu baterako gakoak garapen iraunkorrerako gobernamendu-eredu gisa (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Saila, 2016).*
- *Diru laguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2018ko deialdia: Gipuzkoako Lurralde Historikoko iraunkortasuna bultzatzen duten jarduerak egiten eta ingurumena hobetzen duten udalei, mankomunitateei, eskualdeko erakundeei, elkarteei eta enpresei zuzendutakoak (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Saila, 2018).*
- *Klima Aldaketaren Aurkako Gipuzkoako Estrategia (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Saila, 2018). Euskal Ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari (Eusko Jaurlaritza, 2018).*



# ERANSKINA

## JARDUNBIDE EGOKIEN KASUAK

Eranskin honek garapen jasangarriarekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako arlo desberdinetan Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek egin dituzten ekintzen adibideak ditu. Atzemandako jardunbide egokiak aukeratzeko orduan, irizpide hauek hartu dira kontuan:

**Tokiko garapen jasangarriari lotutako arloetan proiektuak edo jarduketak izan duen eragina.** Hauek dira arloak:

- ENERGIA.
- MUGIKORTASUNA.
- URA ETA IBAIKO EKOSISTEMAK.
- HONDAKINEN PREBENTZIOA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA.
- NATURA-INGURUNEA ETA LANDA-INGURUNEA.
- EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDE PUBLIKOA.
- KLIMA-ALDAKETA ETA ARRISKUAREN KUDEAKETA.
- GOBERNANTZA ONA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA.
- INGURUMEN-HEZIKETA ETA -SENTSIBILIZAZIOA.

**Jarduketaren izaera berritzailea udalerriaren tamainaren ikuspuntutik.**

Proiektua garatu den bitartean atzeman diren jardunbide egoki gehienek Energiaren arloarekin dute zerikusia. Kontuan hartuta eskualde mailako energia-planak dituzten eskualdeetako garapen-agentziek betetzen duten papera, trantsizio energetikoarekin, hau da, karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitearekin lotutako eskualdeetako jardunbide egokiak eta baita energiaren sozializazioarekin lotutako ekimenak ere jaso ditugu.

| ENERGIA | |
|---|---|
| ABALTZISKETA | 9 farola ordezkatu dira “smart” teknologiako plaka fotovoltaikoak dituzten beste argi batzuengatik. |
| ADUNA | Udal-eraikinak energia berriztagarriz hornitzeko mikro-sare bat instalatzea bideragarria ote den jakiteko azterlana (argindarra eta beroa). |
| BERROBI | Pellet bidezko berokuntza-sistema jarri dute Gaztelekuan (2017). |

| | |
|---|---|
| **OREXA** | Udal-eraikinak energia berriztagarriz hornitzeko mikro-sare termiko-elektrikoaren azterlana. |
| **ITSASONDO** | Plaka fotovoltaikoak dituzten 144 farola jarri dituzte herriko argien sarean (hurbiltze sentsoreekin dabiltza). |
| **AIZARNAZABAL** | Herriko argien intentsitatea kontrolatzeko sistema jarri dute. |
| **LEINTZ-GATZAGA** | Panel termikoen instalazioa gatz museoan, erabilera anitzeko gelako energia iturri moduan. |
| **ASTEASU** | Udal-eraikinak energia berriztagarriz hornitzeko mikro-sare elektriko eta tekniko bat instalatzea bideragarria ote den jakiteko azterlana eta mikro-sarea instalatzeko lanak martxan jartzea. |
| **BERASTEGI** | Eguzki-farolak jarri dira udalerriko 3 auzotan (eguzki-farola horiek jarri aurretik ez zegoen inolako argiteria-motarik auzo horietan).<br>• Izotzalde auzoa (14 eguzki-farola bi gune desberdinetan banatuta).<br>• Aiztunalde auzoa (11 eguzki-farola). |
| **ZALDIBIA** | Udal-bulegoak barne hartuko dituen eraikin berria PASSIVHAUS irizpideen arabera eraikiko da. |
| **USURBIL** | Pobrezia energetikoari buruzko diagnostikoa. |
| | Energiaren kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko inbertsioak diruz laguntzea. |
| | Lankidetza Usurbilgo Lanbide Eskolarekin Musika Eskolan Geotermia sistema bat jartzeko. |
| **ORIO** | Udal-igerilekuko uraren berotasuna berreskuratzeko eta berritzen den ura berriro berotzeko SediREC sistema jarri da. |
| **LEZO** | Udal-igerilekuko uraren berotasun-soberakina berreskuratzeko sistema jarri da. |
| **DEBA** | Itziarko Burugorri udal-eraikinean zegoen galdara biomasa-galdara batengatik ordezkatu da. Eraikin hori, herritarrei arreta emateko bulegoa barne hartzeaz gain, Itziarko biztanleek erabil dezakete eta taberna bat du. |
| **SORALUZE** | 2017ko abuztuan Udalak udalerrian kokatutako zentral hidroelektrikoa eskuratu zuen (orduz geroztik azpiegitura energetiko horren jabetza udalarena da osorik) zentral horretan sortzen den energiarekin herriko argiak zein eta udal-eraikinak energiaz horniko. Urtean 815.000 Kw inguru sortzen dira, eta udalaren kontsumo energetikoa 560.000 Kw/urte izan ohi da. |
| **LEGAZPI** | Energia berriztagarriei buruzko Bizitek azoka teknologikoa. |
| | Bikuña kiroldegian igerilekuko aire-girotuko uraren energia termikoa berreskuratzeko gailua jarri da (2016). |
| **URRETXU** | Igerilekuko ur-sakonera murriztea, eguzkiak ere ura berotu dezan. |

| | |
|---|---|
| **AZPEITIA** | Udal-igerilekua egokitzeko eta energia aurrezteko lanak (ikuskapen energetikoa, monitorizazio energetikoa, fatxada eta teilatua egokitzea, inguratzailea hobetzea eta eguzki-plakak jartzea, geotermia). |
| **DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN** | "Donostia-CO2 Familiak klimaren alde" egitasmoaren barruan, Udalak erronka bat proposatu zien hiriko etxeei, 2018ko apirilean, maiatzean eta ekainean energiaren kontsumo eraginkorrago batekin konprometitu zitezen. Guztira, 28 etxek onartu zuten erronka, non elektrizitatearen kontsumoa ez ezik, bestelako aldagaiak ere aintzat hartu baitziren, hala nola etxebizitzaren azalera, bertan bizi diren pertsona kopurua eta ur beroko edo berokuntzako sistema. gaur egun 300 familia biltzen ditu 2010ean abian jarri zen "Donostia-CO2 Familiak klimaren alde" egitasmoak. |
| | REPLICATE proiektua (Renaissance of Places with Innovative Citizenship and Technology). Mugikortasun jasangarriaren inguruko jarduerak:<br>• 2 autobus elektriko erosi dira.<br>• Udal-flota berritzeko, 4 auto elektriko eta 8 moto elektriko erosi dira, eta berriz kargatzeko guneak jarri dira.<br>• 7 taxi elektriko erosi dira.<br>• Ibilgailu elektrikoak sustatu dira hiri-mugikortasun behar gehien duten kolektiboen artean. |
| **ERRENTERIA** | Ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko bi gune jarri dira. |
| | Udal -fiskalitate berdeari buruzko laburpen bat du udalak web-gunean eskegita. |
| | Oarsoaldeko Informazio Energetikoko Sistema jarri du martxan zerbitzu publikoen ur- eta energia-kontsumoen segimendua egiteko eta horiek kudeatzeko, eta udal-langileei zuzenduta dagoen kudeaketa energetiko eraginkorrari buruzko prestakuntza-ikastaroan parte hartu du. |
| | 50/50 eskualde-proiektua bultzatu da 2018-2019 ikasturtean udalerriko ikastetxe batean. |
| **OIARTZUN** | Hobari eta zerga-salbuespen guztiak laburbiltzen dituen taula bat du udal web-gunean eskegita (ingurumen- eta gizarte- arlokoak, besteak beste). |
| | 50/50 proiektua martxan jarri da 2018-2019 ikasturtean udalerriko bi ikastetxetan. |
| | Udalak landa-auzoetarako garraio publikoa eskaintzen duten taxietako bat ordezkatu du (taxi-busa) eta ibilgailu elektriko bat erosi du. |
| | Eskualdeko Informazio Energetikoko Sistema jarri du martxan zerbitzu publikoen ur- eta energia-kontsumoen segimendua egiteko eta horiek kudeatzeko, eta udal-langileei zuzenduta dagoen kudeaketa energetiko eraginkorrari buruzko prestakuntza-ikastaroan parte hartu du. |

| | |
|---|---|
| **PASAIA** | 50/50 proiektua sustatu da 2018/2019 ikasturtean ikastetxe batean. |
| | Eskualdeko Informazio Energetikoko Sistema jarri du martxan zerbitzu publikoen ur- eta energia-kontsumoen segimendua egiteko eta horiek kudeatzeko, eta udal-langileei zuzenduta dagoen kudeaketa energetiko eraginkorrari buruzko prestakuntza-ikastaroan parte hartu du. |
| **IRUN** | Hiri garraio publikoko flota osoa etorkizunean elektrikoa izateko, Udalak autobusak kargatzeko bi gune jartzeko beharrezkoak diren hargune elektrikoak egokitzeko lanak egin eta 4 ibilgailu elektriko erosi ditu. |
| | Kanpoko inguratzaile termikoa hobetzeko lanak eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko beste jarduketa batzuk udal eraikin hauetan: udal-aterpetxea, Artaleku kiroldegia, Behobiako auzo-elkartearen lokala, Udal Musika Eskola eta Udal Euskaltegia. |
| | Etxebizitzatan eta merkataritza-establezimendutan eraginkortasun energetikoa hobetzera zuzendutako diru-laguntzak. |
| | Energia berriztagarrien ahalmen-azterketa (2018, 2019). |
| **OÑATI** | Subiranotasun energetikoari buruzko egitasmoa: zentral hidroelektrikoa erostea, enpresa banatzaile eta komertzializatzaile propioak. |
| | Energia berriztagarrien ikerketarako beka. |
| | Energetikoki eraginkorrak diren etxebizitzen proiektu bat garatzeko hitzarmena enpresekin eta unibertsitatearekin. |
| **EIBAR** | Azitain industrialdean energia berriztagarriz elikatutako bero-sare eta argindar-sare banatuak ezartzeko bideragarritasun-azterketa egin da. |
| **ELGOIBAR** | 50/50 proiektuaren antzeko proiektu bat gauzatzen ari dira herriko 2 ikastetxe publikotan. |

| **ESKUALDEAK TRANTSIZIO ENERGETIKORANTZ** | |
|---|---|
| **DEBABARRENA** | Eskualdeko Informazio Energetikoko Sistema eta energia-behatokia ezarri zen udal ekipamendu eta zerbitzu publikoen energia-kontsumoa zein den jakiteko. |
| | Enpresei zuzendutako eraginkortasun energetikoari buruzko ikastaroa eta bisitak enpresa parte-hartzaileetara (8 guztira) prozesuaren segimendua egiteko. |
| | 2013an egin zen Debabarrenako Estrategia Energetikoaren berrikuspen partziala jarri da martxan. |
| | Eibarko Azitain industrialdean energia berriztagarriz elikatutako bero-sare eta argindar-sare banatuak ezartzeko proposamenaren bideragarritasun-azterketa egin da. |

| | |
|---|---|
| | 5 eta 50 langile artean dituzten enpresatan energia aurrezteko programa. Enpresaren diagnostiko energetikoan (instalazioak, ekipoak eta kontsumoak), enpresako langileei zuzendutako orientazio energetikoan, eraginkortasun energetikoko neurriak abian ez jartzearen kostua baloratzean eta enpresa parte-hartzaile bakoitzaren ekintza-plan energetikoa egitean datza. |
| | Herritarrei birgaitze jasangarriari buruzko informazioa emateko zerbitzua, zeina Debegesak 2010. urteaz geroztik ematen duen. |
| | Eibarreko J.A. Mogel auzoa osorik birgaitzea (2012-2018): lehen fasean 150 etxebizitza birgaitu ziren eta bigarren fasean 83. Herritarren inplikazio handia duen proiektua da. |
| **DEBAGOIENA** | Debagoienako kanpoko argiak berritzeko proiektua: 2.870 argi-puntu edo farola ordezkatu eta Led teknologia jarriko da. Ondorioz, egungo egoerarekin alderatuta, kanpoko argien energia-kontsumoa %71 murriztuko da. Bestalde, aldatutako instalazioek 764.910 kg CO2 isurtzen dute gaur egun, eta ordezkapenaren ondoren, isuri hori 241.627 kiloetaraino murriztuko da, 523.284 kg. hain zuzen. |
| **OARSOALDEA** | Eskualdeko bizitegi-eraikin partikularrak energetikoki karakterizatzeko 2016an egindako azterlana. Aipatutako azterlana egin ondoren (400 bisita egin ziren eta erosotasun energetikoko arazoak izan zitezkeenak atzeman ziren, familiak bizi diren eraikinen ezaugarri orokorrak aztertu ziren, etab.), eraginkortasun irizpideak kontuan hartuz etxebizitza-parkean eraikuntza-birgaikuntza hobetzeko jarduketen proposamen bat egin zen. |
| | 50/50 proiektua jarri da martxan 2018-2019 ikasturtean eskualdeko 4 ikastetxe publikotan (1 udalerriko), garapen-agentziaren koordinaziopean. |
| | Eskualdeko 4 udaletako langileei zuzendutako kudeaketa energetikoari buruzko prestakuntza. |
| | Oarsoaldeko Informazio Energetikoko Sistema ezarri da eskualdeko udal batzuetan, udal-zerbitzuen eta instalazioen ur- eta energia-kontsumoa kudeatzeko. |
| | Energiaren erabilera intentsiboa egiten duten industrien kontsumo-mapa. |
| | Energiaren sozializazio-jarduerak (ikastetxeei zuzendutako film laburren lehiaketa, etab.). |

<table>
<tr><td rowspan="2">TOLOSALDEA</td><td>Tolosaldea Garatzen:<ul><li>Eskualdeko basoetako biomasa-aprobetxamenduaren hasierako azterketa (2017, 2018), Tolomendirekin batera.</li><li>Industrialdetako enpresatan eta udal-eraikinetan plaka fotovoltaikoaren instalazioaren ahalmen-azterketa (2017).</li><li>Herritarrei energiari buruzko informazioa eta aholkularitza eman zaie (informazio-gune ibiltaria, tailerrak, eskualdeko zinematan emandako bideo dibulgatzaileak, etab.).</li><li>Fiskalitate berde energetikoari buruzko azterketa eskualdeko udalerri guztietan (2017 eta 2018).</li><li>Fiskalitate berde energetikoak eskualdeko udaletan zer nolako eragin ekonomikoa izan duen jakiteko azterketa (2018).</li></ul></td></tr>
<tr><td>Tolomendi:<ul><li>Lurgintzarekin batera, Abeltzaintza ustiategitan ikuskapen energetikoak egin eta eraginkortasun energetikoa lortzeko neurriak hartu dira esnea hozteko sistemetan, argiterian, ur beroan, etab.</li><li>Baliabideen azterketa (aerosorgailuak, plaka fotovoltaikoak, etab.). Biolur-lurgintzarekin batera, nekazaritza ekologikoko ustiategitan energia autoesufizientzia lortzeko dituzten baliabideak neurtu dira.</li><li>Goierriko eta Tolosaldeko landa-garapen elkarteek erosten duten makineria, lehen sektoreko eragileei eskainitakoa, energetikoki eraginkorra da.</li></ul></td></tr>
<tr><td rowspan="2">UROLA ERDIA</td><td>Etxe argiak" egitasmoa, Azpeitian, Azkoitian eta Zestoan, non 22 familia parte hartu duten. Etxeen diagnostiko energetiko bat egin da eta baita familia horiek abian jarri dituzten energia aurrezteko jarraibideen segimendua ere. Halaber, fitxa energetikoak egin dira familia parte-hartzaileak bizi diren etxebizitzen termografia bidez.</td></tr>
<tr><td>Udal-eraikuntzak hornitzeko energia berriztagarrien erabileraren ahalmen-azterketa.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">UROLA GARAIA</td><td>50/50 proiektuaren diseinua eskualdeko ikastetxe batzuetan martxan jartzeko.</td></tr>
<tr><td>Udal-eraikuntzen aztereta termikoa.</td></tr>
<tr><td>Herritarrei zuzendutako energia aholkularitza-zerbitzua.</td></tr>
<tr><td>Urola Garaiko etxebizitzetarako egindako Eraginkortasun Energetikoko Ziurtagirien azterketa eta segimendua.</td></tr>
<tr><td>Eraginkortasun-proposamenak dituzten instalazio termikoen eraginkortasun energetikoko azterketak eta 8 udal-eraikinetan energia berriztagarriak jartzeko bideragarritasun-azterketa.</td></tr>
</table>

| MUGIKORTASUNA | |
|---|---|
| **ALTZO** | Bizikleta-bidea egin dute plazatik pilotalekura doan errepidean. Jende asko dabilen bidegorria da, eta errepidean margotu zen gidariek ibilbide hori bizikletan egiten duten pertsonen presentzia errespeta dezaten. |
| **ITSASONDO** | Bizikleten udal gordailu bat egokitu dute frontoiaren ondoan. Udalak bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoa eskaintzen du (txartel pertsonal bidez dabil). |
| **ZERAIN** | Espaloi bat eraiki dute Segura eta Zerainen artean, bi herri horietako biztanleek errepidea erabiltzen baitzuten ibilbide hori egiteko. |
| **USURBIL** | Espazio publikoa berrantolatzeko ekintzak. |
| | Bizikletentzako aparkalekuak eta garbitzeko makinak jartzea. |
| **HERNANI** | 2018an udalerrian jarri ziren bizikletak aparkatzeko eremuak diseinatu dituzte lanbide-heziketako ikasleek. Ekimen hau Eskolako Agenda 21eko heziketa-programaren baitan garatu zen. |
| | Elizatxo eskola inguruan oinezkoei lehentasuna eman zaie eta motorra duten ibilgailuen sarbidea debekatu da. |
| **ERRENTERIA** | Udal-langileentzat bizikleta elektrikoen zerbitzua. |
| | Helduek bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa. |
| | Bizikletentzako udal-aparkalekuen zerbitzua herrigunean zabaltzea. |
| **DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN** | Oinezkoek lehentasuna duten tokitan bizikletan nola ibili ikasteko ikastaroa. |
| | EHUrekin batera, haurrek mugitzeko dituzten oztopoen inguruko ikerketa. |
| | Loiolako Erriberatan proiektu pilotua, erdigunera sartzeko mugen ezarpenaren inguruan. |
| | Cyclelogistics europar proiektua Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planak garatzeko. Egindako jarduketak: |
| | Oinezkoen eremua errepideetatik berreskuratzea. |
| | “Donostia Transport” mugikortasun aktiboa sustatzeko app-a sortzea. |
| | Mikrokontsolidazio zentroak sortzea (bizikleta bidezko merkataritza-garraiorako aparkalekua). |
| | Merkantzien Hiri Banaketaren foroko bilerak. |

| | |
|---|---|
| | Bizikletaren behatokia:<br>1. Emakumeen eta gizonen arteko bizikleta-mugikortasunaren arteko banaketa zehazteko bizikleta-kontaketa bisuala.<br>2. Eremu publikoan bizikletak abandonatzearen eta bizikleta-aparkalekuetako betetze-mailaren ikerketa.<br>3. Bidegorri sarearen, horri lotutako azpiegituren eta bizikleta-mugikortasunaren inguruko galdeketa herritarrei.<br>4. Oinezkoek hiriko bizikleta-mugikortasunaren eta espazio publikoaren erabileraren inguruan duten pertzepzioaren gaineko ikerketa.<br>5. Bizikleta hirian mugitzeko garraiobide gisa erabiltzen duten emakumeek hiriko mugikortasunaren inguruan duten pertzepzioaren ikerketa kualitatiboa. |
| **OIARTZUN** | Eskolara oinez joateko ibilbide seguruak sustatzen dituen “Oinbusa”ekimena berrabiaraztea. Diseinatutako ibilbide seguruetan zehar jarritako seinale berrietan ikastetxeetako ikasleek parte hartu zuten eta Oinbusa zerbitzua zentroko ingurumen-batzordea osatzen zuten bigarren mailako ikasleek azaldu zuten gelaz gela. |
| | "Xorrola" udal bus-zerbitzua hobetzeko asmoz herritarrei egindako inkesten bidezko azterketa. |
| **PASAIA** | Bizikleta udal-zerbitzua martxan jartzea. |
| **HONDARRIBIA** | Mugikortasun Mahaia sortzea eta mugikortasun-irizpideak kontuan hartuta herriko mugikortasuna hobetzeko proposamenak batera lantzea. |
| **IRUN** | Bizikleta-bide zati berrien eraikuntza bidegorrien hiri-sarea osatzen joateko. |
| | Europako Mugikortasun Astean zehar mugikortasun jasangarriari lotutako objektuen bigarren eskuko azoka antolatu da. |
| **OÑATI** | Bizikleta erabiltzen duten pertsonentzako baliabideen hobekuntza (aparkaleku berriak, doikuntzak egiteko guneak...). |
| | Industrialdeetako irisgarritasuna aztertzeko ikerketa. |
| | Herrian oinez ibiltzearen onuren gainean sentsibilizazio-kanpaina. |
| **EIBAR** | Oinezkoen eta ibilgailuen baterako existentzia-guneen eraikuntza. |
| | Mugikortasun Iraunkorraren Astea (hiriko garraio publikoa doan egun batean, bizikletaren bigarren eskuko azoka, bizikletaren mantenimenduari buruzko ikastaroak, etab.). |

## URA ETA IBAIKO EKOSISTEMAK

| | |
|---|---|
| **ANOETA** | Ur-emaria murriztu da udalerriko iturri publiko guztietan ura aurrezteko. |
| **LEZO** | Herrigunea zeharkatzen duen errekako (Olatzar) zati baten lehengoratze-lanetan bioingeniaritza-lanak egitea. |
| **LEGAZPI** | Azterlan bat egin da akuiferoaren drainatze-sistema bat jartzeko (estalki berde bat parkean urak akuiferoa draina dezan) Latxartegi haur-parkean eta, ondoren, martxan jarri da (2018). |
| | Azterketa eta balorazio bat egin da udalerrian drainatze-sistema jasangarriak non jarri atzemateko. A21aren Foroko zenbait saio parte-hartzaile egin dira gaia lantzeko. |
| | Drainatze-sistema bat eta estalki berde bat jarri dira Laubide auzoan (2018). |
| **ANTZUOLA** | Ura aurrezteko eta berrerabiltzeko sistema bat duen ur-parke berria. |
| **ESKORIATZA** | Udalak ura aurrezteko ordenantza bat du 2009. urteaz geroztik. |
| **MENDARO** | Udalak laguntza ematen dio ibaia garbitzeko urtero egiten den ekimenari, non ikastolako, Gaztelekuko eta ludotekako eragileek parte hartzen duten. |
| **ANDOAIN** | Ihesak atzemateko azterketa egin da eta hornidura-sarean galerak murrizteko neurriak hartu dira. |
| **LASARTE-ORIA** | Ur-ekosistemen ingurumen-azterketa. |
| | Oria ibaitik hurbil dauden berdeguneen eta hezegunearen lehengoratzea. |
| **DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN** | Donostiako errekastoen karakterizazioa egin du eta zenbait errekasto leheneratzeko lanak egiteko asmoa du Udalak. |
| **ERRENTERIA** | Oiartzun ibaiaren interpretazio zentroa ireki da Fanderiako errotan. |
| | Oiartzun ibaiaren eta zenbait erreken lehengoratze-lanak egitea, ibai horren paisaia-planaren testuinguruan. |
| **OIARTZUN** | Azken 3-4 urteetan Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ibaian dauden 5 presetatik 4 eraitsi dituzte. Bosgarren presaren eraispenarekin amaitzea falta da (1. fasea burutu da). |
| | Geofono bat erosi da ihesak atzemateko. |
| **PASAIA** | Irrati bidezko ur-kontagailuak jarri dituzte ur-ihesak detektatzeko, ur-kontsumoaren segimendua egiteko, etab. |
| | Informazio Energetikoko Sistema jarri dute udal-instalazioen eta -eraikinen ur- eta energia-kontsumoen segimendu eraginkorra egiteko. |

| | |
|---|---|
| **IRUN** | Uruneko mindak direla eta kutsatuta egon daitezkeen errekastoen segimendua. |
| | Irungo Udaleko Euskara Sailak Jose Antonio Loidi beka antolatzen du 2000. urteaz geroztik hidrologiaren eta botanikaren arloetan euskarazko ikerketa sustatzeko. |
| **OÑATI** | Aranzadi Zientzia Elkarearekin batera, beka bat eskaintzen da anfibioen eta narrastien azterketetarako. |
| **GOIERRI + TOLOSALDEA** | 2012. eta 2017. urteen artean, Goieki eta Tolosaldea Garatzen garapen-agentziek landare inbaditzaileak kentzeko eta ibaiertzetako basoak leheneratzeko lanak egin dituzte. |
| **DEBABARRENA** | Deba eta Ego ibaiak berreskuratzeko eta balioan jartzeko “Bizigura Deba ibaia” izeneko eskualde-programa (Debegesak eta URA Euskal Agentziak sinatutako hitzarmenaren barruan kokatzen da). Ibaien kalitatea hobetzeko jarduketak egiten dira urtero. |
| | Deba ibaiaren eta bere ibaiertzaren diagnostikoa eta ondorengo paisaiaren ekintza-plana idazteko Deban eta Mutrikun egindako eta Debegesak koordinatutako parte-hartze prozesua. |



| HONDAKINEN PREBENTZIOA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA | |
|---|---|
| **ADUNA** | Herri-guneko auzo-konposta egiteko 2 guneen hobekuntza-lanak (konpostagailuak kendu eta konpostajea egiteko etxolak jarri dira, besteak beste, biohondakinen bolumen handiagoa kudeatzeko). |
| **LEZO** | Sortutako errefusaren bilketa-kopuruaren araberako tarifa espezifiko bat kobratzen du Udalak. Ontzi-hustuketa bakoitzarengatik tasa bat kobratzen du. |
| **USURBIL** | Hondakinen prebentziorako “Zero Zabor” planaren idazketa. |
| | Festetan plater eta edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea. |
| **HERNANI** | Auzo-konposta egiteko gune gehiago jartzea (45 gune daude udalerrian). |
| | Puntu garbiak jarri dira etxeko hondakin arriskutsuak eta Garbigunera eraman daitezkeen bestelako hondakinak biltzeko. |
| | Gabonei begira bideo bat egin da arduraz erosteko irizpideen inguruan herritarrak sentsibilizatzeko (gomendioak bilgarri gutxiago dituzten produktuak erosteko, etab.). |
| **LEGAZPI** | Hondakinen dokumentu zuzentzailea egin da (2017) eta hondakinen gaiari lotutako batzorde politikoa sortu da. |
| **DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN** | Elikagaien xahuketaren aurkako udal-estrategiaren barruan, jatetxeetan janaria alferrik ez botatzeko kanpaina jarri du martxan 2018an. |
| | Etxeko eta auzoko konpostaje-programa: urtero segimendu-bisitak egiten dira autokonpostajea egiten duten etxe gehienetara eta, halaber, auzo-konpostaje guneen segimendua egiten da. |
| | Pixoihal berrabilgarrien aldeko udal-programa (2011. urteaz geroztik). |
| | Festetan edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea. |
| | Ur-pitxerrak banatu dira jatetxe eta tabernatan plastikozko botilen erabilera saihesteko. |
| **OÑATI** | Materia organikoa kudeatzeko sistema desberdinen (autokonpostajea, auzo-konpostajea eta konpost-fabrika bat) bideragarritasun teknikoari eta ekonomikoari buruzko azterlana. Azkenean, konpost-fabrikaren aukera baztertu zen, eta, udalerrian, etxeko konpostajearen (banakako konpostagailuak -500 familiak parte hartzen dute-), auzo-konpostajearen (200 familia) eta gainerako familiek egiten duten atez ateko bilketaren bidez kudeatzen dira biohondakinak. |
| **BIDASOA-TXINGUDI** | 2018an zehar Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak bideragarritasun-azterketa bat egin du eskualdeko jatetxeetan elikagaien xahuketaren kontrako kanpaina bat egiteko. |
| | Mankomunitateak elikagaien xahuketa saihesteko materiala banatu du gastronomia-elkarteetan. |

| | |
|---|---|
| **GOIERRI** | Pixoihalak kudeatzeko proiektu pilotua. |
| | Festetan hondakinen murrizketa sustatzeko baliabideak eskaini ditu Sasietako Mankomunitateak. |
| **TOLOSALDEA** | Ekonomia zirkularrari buruzko diagnostiko bat egin da Tolosaldean Tolosaldea Garatzen agentziaren koordinaziopean (2018). |
| | Artilearen hondakina oilo simaurrarekin batera tratatzen ari dira Nafarroako enpresa batean. Azterketa bat egiten ari dira hondakina lehengai bihurtu ahal izateko, ekonomia zirkularreko proiektu baten barruan. |
| **DEBABARRENA** | Kontsumo arduratsuari buruzko gida bat eta hondakinen prebentzio-gida bat argitaratu du Mankomunitateak. |



## NATURA-INGURUNEA ETA LANDA-INGURUNEA

| | |
|---|---|
| **ALKIZA** | Hernio-Gatzume KBEaren biodibertsitatea kontserbatzera eta zabaltzera zuzendutako jarduketak:<br>• Babestuta dagoen basa-faunaren kontserbazioa (baso-kiropteroen eta intsektu saproxilikoen populazioen kontserbazio-egoera hobetzea).<br>• Batasunaren intereseko habitat naturalak kontserbatzeko kudeaketa (baso-habitaten kontserbazio-egoera onari lotutako egiturazko osagaien inbentarioa).<br>• Konektagarritasun ekologikoaren aldeko jarduketak (heskaiak eta ekotonoak sortzea eta baso-larre trantsizio-eremuaren egiturazko konplexutasuna hobetzea).<br>• Herritarrei zuzendutako sozializazioa eta komunikazioa, besteak beste, Fagus Alkiza Zentroaren bidez, KBEaren biodibertsitatearen kontserbazio-egoeraren inguruan. |
| **ORENDAIN** | Udalak 100 urte inguruko pinu-sail partikular bat erosi zuen 2018an, eta proiektu pilotu bat martxan jarri nahi du pinuak kentzeko eta bertako espezieak landatzeko. |
| | Udalak lur batzuk erosi ditu eta sagardotegiei eskaini dizkie lur horietan sagardoa egiten jarraitzeko). |
| **OREXA** | Larre komunitarioak sortu dira eta urtero mantentzen dira ganaduaren laguntzarekin. |
| **ITSASO** | Udal-ekitaldiak bertako produktuez hornitzen dira. |
| | Landa-lurzoruaren azterketa lurzoru horien erabilera-ahalmena eta bideragarritasun ekonomikoa ezagutzeko. |
| **ITSASONDO** | Ultzaman onddoak biltzeko gune espezifiko bat sortzea basoa modu jasangarrian kudeatzeko, onddoen bilketa kontrolatzeko, turismoa sustatzeko, etab. |
| **MUTILOA** | Mañastegi-zahar eta Troi inguruan luizi bat konpondu da bioingeniaritza-tekniken bidez, eta, besteak beste, bertako landaredia sartu da. |
| **ZERAIN** | Zeraingo ondare kulturala eta naturala barne hartzen duen Paisaia Kulturala proiektua landu da. Urtero bisita tematikoak egiten dira paisaia kultural hau ezagutzera emateko: museo etnografikoa, zerrategi hidraulikoa, Aizpittako bisitariaren zentroa, ibilbide gidatuak naturatik, etab. |
| **EZKIO** | Udal haurtzaindegian bertako produktuak kontsumitzen dira 2015. urteaz geroztik. |
| **AIZARNAZABAL** | “Jan Sano eta Bizi Pozik” bertako produktuen azoka antolatzen da 2012. urteaz geroztik. |
| **LEINTZ-GATZAGA** | “Labidea” udal-ekipamenduaren lizitazioan, bertako produktuen eskaintzari lotutako irizpideak sartu ziren. |

| | |
|---|---|
| **ANOETA** | Udalerriko lehen sektorearen errealitatea ezagutzeko eta landa-lurretan ze jarduketa abiatu daitezkeen erabakitzeko parte-hartze prozesu bat egin da. Sentsibilizazio kanpaina bat antolatu zen honen harira, bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko asmoz, eta, besteak beste, bisitak antolatu ziren bertako baserrietara (60 pertsonek parte hartu zuten). |
| **ZIZURKIL** | Otadia larre bihurtzeko, Udalak kontratuak sinatu ditu partikularrekin lur horiek kudeatzeko eta erabilera desberdinak bermatzeko abeltzaintzaren zein biodibertsitatearen eta paisaiaren ikuspuntutik. |
| | Bertako produktuen azoka berezia antolatzen da urtero (21 urte daramatzate). |
| **LEGORRETA** | Udalak landa-lurzoruari buruzko azterketa bat egin du Goimen landa-garapen agentziarekin. Azterketa horri esker, gutxiegi erabiltzen diren lurzoruen bankua sortuko da, eta baliteke horiek lehen sektoreko jardueratara bideratzea. |
| | Ekonomia zirkularreko baterako proiektua Gabiria, Ezkio-Itsaso, Zumarraga eta Legazpiko udalerrien artean, lurren bankuko ekoizle berrien produktuak ikastetxeetako jangeletara eramateko. |
| **ANTZUOLA** | Landa-lurzoruaren inbentarioa lurzoru horien ahalmena eta landa-lurren erabileraren bideragarritasuna aztertzeko (2016). |
| **ELGETA** | Egoarbitza basoaren garbiketa-lanak auzolanean (2016, 2017). Udalak bertako zuhaitzak landatu zituen belardia da eta aisialdira bideratuta dago. Larrea mantentzeko lanak Udalak egiten ditu herritarren parte hartze aktiboarekin. |
| **TOLOSA** | Udalerriko ekosistemei buruzko azterketa eta hegaztien gidaren argitalpena. |
| | Elosegi parkeko biodibertsitatea zaintzeko eta herritarrei zabaltzeko proiektua. |
| | Santa Lucian mintegi bat eta baratzeak sortu dituzte nekazari berriek ustia ditzaten. Produktuak ikastetxeetako jangeletara bideratu nahi dira. Momentuz, kontsumo-talde baten bidez kudeatzen dira. |
| **HERNANI** | 2012. urteaz geroztik, Udalak bertako produktuak eta sasoikoak erosten ditu udal-haurtzaindegirako. Herriko nekazari batek nekazaritza ekologikoko elikagaiez hornitzen du. Elikagai jakinik ez duenean, horiek produktu ekologikoak saltzen dituen herriko denda batean erosten dira. Haurtzaindegiak sukaldea du. |
| **URRETXU** | Herriko zuhaitz eta zuhaixken inbentarioa (2016). |
| **AZPEITIA** | Herriko ekoizpena eta kontsumoa bultzatzeko ekimenak (“Azpeitia txartela” proiektua, “Elikagunea” bertako produktuen azokaren ondoan, herriko merkataritza bultzatzeko kanpaina, etab.). |
| | Saguzarraren parkea eta ibilbide gidatua (2016). |
| **ERRENTERIA** | Behemendi landa-garapen agentziarekin batera, produktu ekologikoen azoka eta lehen sektoreko eragileen azoka antolatzen da (10 urtetik gora daramatzate antolatzen). |

| | |
|---|---|
| **OIARTZUN** | Udalak "Lurbizi" proiektua jarri zuen martxan Behemendirekin batera. Udalak lur batzuk eman zizkien kooperatiba bati eta elkarte bati lehen sektoreko jarduerak egiteko. 2016an, Oiartzungo 3 nekazari gazte hasi ziren lur horiek lantzen, eta, horrez gain, gaixo psikikoak gizarteratzeko proiektuan parte hartzen duten eragileek ere lur horietan jarduten dute. |
| **PASAIA** | Ulia mendiko Plan Berezia idatzi dute eta 2019an hori onartzeko parte-hartze prozesua hasiko dute Donostiako Udalarekin batera. |
| **HONDARRIBIA** | Arma Plaza Fundazioak, Unibertsitateko irakasleen parte hartzeari esker, Hondarribiako espezieak eta ekosistemak ezagutzeko karta-jokoa egin du (herriko ikastetxeetan banatuko da). |
| | Udalak Lanbideren, Behemendiren eta Bidasoa bizirik garapen-agentziaren laguntzarekin Hondarribiako agroaldea martxan jarri zuenetik (2014), laguntza ematen du lurren nekazaritza-ustiapenerako sortzen doazen beharrei erantzuteko. |
| | 2017, 2018: Bertako Produktuaren Astea. |
| | 2014tik Udalak bertako produktuen azoka antolatzen du astean bi egunetan leku desberdinetan. |
| **IRUN** | Irungo Udaleko Euskara Sailak Jose Antonio Loidi beka antolatzen du hidrologiaren eta botanikaren arloetan euskarazko ikerketa sustatzeko. 2000. urteaz geroztik existitzen da, eta 2008. urtera arte urtero antolatzen zen arren, gaur egun bi urtez behin antolatzen da. |
| | 2016an Udalak lursail bat erosi zuen Lapurriturrin (Aiako Harria parke naturala eta KBE). Lesakako Udalarena zen eta onura publikoko eremu izatera pasako da. Biodibertsitatea kontserbatzeko, urmaelak sortu dira anfibioentzat eta garbiketa lanak egin dira. |
| | 2017an Udalak lur bat erosi zuen Aiako Harria parke naturalean, Irun eta Oiartzun arteko mugan, aisialdi-gune bat egokitzeko. Udalak udalerrian dituen 5 aisialdi-guneak berrantolatu nahi ditu 3 baino ez izateko. |
| **ARRASATE MONDRAGON** | Etxezarreta lurraren erosketa, epe laburrean ingurune babestu bihurtzeko. |
| **BERGARA** | Landa-auzoetan dauden premiak ezagutzeko prozesu parte-hartzailea (2016). |
| | Basoak dituzten lurren jabeei zuzendutako baso-kudeaketari buruzko oinarrizko ikastaroa. |

| | |
|---|---|
| **TOLOSALDEA** | “Jan Tolosaldea” proiektua bultzatu da bertako produktuen kontsumoan oinarrituriko elikadura-sistema bat sustatzeko. Horretarako, honakoa egiten ari dira:<br>• Udalerrietako azokak berrantolatu eta ekoizle/erosleen behar berriei egokitu.<br>• Ostalaritzan bertako produktuen erabileraren azterketa egin da. Bertako produktuak erabiltzen dituzten jatetxeak bultzatu eta ezagutzera eman nahi dira.<br>• Ikastetxe publikoetako jangeletan bertako produktuen erabilera bultzatzeko proiektua.<br>• Landaketak eta ereiteak lurra goldatu beharrik gabe egiteko teknikak bilatu. Gipuzkoako beste landa-garapen agentzia batzuk ere, Behemendi esaterako, teknika horien bila dabiltza.<br>• Mindak arduraz kudeatzeko ekimenak (besteak beste, minda ez aireztatzeko, eta ondorioz, NO3 airera ez isurtzeko teknikak). |
| **GOIERRI** | Jantoki desberdinetan (ikastetxeak, egoitzak, etab.) produktu ekologikoak kontsumitzeko proiektua bultzatu da. (Ormaiztegi, Beasaingo Murumendi ikastetxea, Segura, etab.). |
| **BETERRI-BURUNTZALDEA** | “Beterri KM0 Bertakoen Sarea" tokiko kontsumoa sustatzeko ekimena bultzatu da, kontsumitzaileei bertako nekazaritzaren ekoizpena hurbiltzeko. |
| **UROLA KOSTA** | Eskualdeko ekoizleen gida argitaratu dute. |
| **UROLA ERDIA** | Eskualdeko erosketa-ohiturei buruzko azterketa (2016, 2017). |

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA

| | |
|---|---|
| **ADUNA** | Erosketa eta kontratazio berderako eta elikadura jasangarrirako irizpideak sartu dira Uztartza aterpetxe-taberna-jatetxea ustiatzeko lizitazioaren baldintza-agirietan. Ekipamendu hori ikastetxeko ikasleentzako jangela ere bada. |
| **URNIETA** | Erosketa eta kontratazio publiko berderako irizpideak sartu dira lorezaintza-zerbitzuaren eta kiroldegia berritzeko lanen lizitazioan. |
| **AIA** | Erosketa berdeko irizpideak kontuan hartuta erosi dute fotokopiagailua. |
| **ORIO** | Ingurumen-irizpideak sartu dituzte lorezaintza-zerbitzuaren lizitazioan. |
| **ESKORIATZA** | Udalerrian antolatzen diren ekitaldiak era jasangarrian kudeatzeko jarraibideak. |
| | Ingurumen-irizpideak sartu dituzte lorezaintza-zerbitzuaren eta kale-garbiketa zerbitzuaren baldintza-agirietan. |
| **LASARTE-ORIA** | Ekodiseinuko irizpideak kontuan hartuta erosi dituzte altzari batzuk. |
| **LEGAZPI** | Jasangarritasun-irizpideak sartu dira ekitaldi batzuen antolaketan. |
| | Udaletxean eta organismo autonomoetan paperaren erosketari buruzko jarraibideak. |
| | Ahalegin berezia egin da erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak sartzeko (kontratazio-lege berriak eskatzen dituen irizpideez harantzago). |
| **ZARAUTZ** | Hondartzak EMAS ziurtagiria eskuratu du. |
| **DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN** | Erosketa eta kontratazio publiko berderako irizpideak sartzeko jarraibide teknikoak. |
| | Erosketa eta kontratazio publiko berderako irizpideak sartzeko aholkularitza Ingurumen Sailetik gainerako sailetara. |
| | Ingurumen-irizpideak baldintza-agirietan sartzeari dagokionez, segimendu kualitatiboa egiten da. |
| **ERRENTERIA** | Udala lanean ari da IHOBEk Erronka Garbia ziurtagiria eman diezaion Atlantikaldia kulturen arteko topaguneari eta musika-jaialdiari. |
| **OIARTZUN** | Atez-atekoarekin biltzen den papera eta kartoia, 20 kilometroko inguruan dauden enpresei saltzen die Udalak. |
| **HONDARRIBIA** | Udalak lehen aldiz sartu ditu ingurumen-irizpideak udal-instalazioen garbiketa-zerbitzuaren baldintza-agirietan. Kontratu berria 2018an sartu zen indarrean. |
| **IRUN** | Udal-langileei zuzendutako erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko ikastaroa (2016). |
| **EIBAR** | Erosketa eta kontratazio publiko berdearen programa bat egin dute (2018). |
| **ARRASATE-MONDRAGON** | Obra eta zerbitzuen kontratazioan ingurumen-irizpideak kontuan hartzeko espediente kudeatzaile bat jarri da martxan. |

## KLIMA-ALDAKETA ETA ARRISKUAREN KUDEAKETA

| | |
|---|---|
| **BERASTEGI** | Suteak ekiditeko larreen hobekuntza- eta egokitzapen-plana. |
| **ORIO** | Higadura saihesteko, dunen sistema egonkortzea. |
| **TOLOSA** | Udalerriak arlo ezberdinen aurrean duen erresilientzia neurtzeko eta bideratzeko azterketa pilotua egin du Tecnum unibertsitateak. |
| **ZARAUTZ** | HADAS proiektuan parte hartu dute: klima-aldaketaren kudeaketa osorako eredua diseinatzea, tokiko jasangarritasun-politiken barruan. |
| **DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN** | Udalak "Smart Mature Resilience" proiektuan parte hartu du, besteak beste, Nafarroako unibertsitateko Tecnum Ingenieritza Eskolarekin eta Donostiako Plan Estrategikoaren bulegoarekin batera. Proiektu horren bidez, udalerrien erresilientzia-maila ebaluatu da, eta hiri batek erresilentziarako bidean zeharkatu behar dituen egoerak zehaztu ahal izateko "heldutasun-eredu" bat garatu eta baliozkotu da. Proiektuaren ondorioetako bat da Ihobek finantzatutako "Erresilentziaren Gida", zeinaren helburua baita hiriak krisi baten ondorioen aurrean eutsi, xurgatu, erantzun eta suspertu ahal izatea, eta baita azpiegitura kritikoak eta oinarrizko funtzioak nola babestu eta/edo leheneratu planifikatzea ere. |
| | Hiriko azpiegiturak klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeari buruzko ikerketa (2017, 2018). |
| | Naturan oinarritutako egokitzapen-aukerei eta egokitzapen-irtenbideei buruzko azterketa. |
| | 27. industrialdean dagoen ubide baten inguruko azterketa eta modelizazio-proiektua, klima-aldaketak hiriko saneamendu-sarean izan ditzakeen inpaktuak baloratu ahal izateko. |
| | Txomin auzo berriaren hiri-garapen eredu ezberdinek klima-aldaketaren egokitzapenaren ikuspuntutik zer nolako ondorio jasango lituzkeen aztertzeko ikerketa egin zuen Udalak 2017an, Tecnaliarekin batera. Alderdi desberdinak hatu dira kontuan, hala nola biodibertsitatea, drainatzea eta tenperatura. |
| | IHOBEk bultzatutako HADAS proiektuan parte hartzea "Klimatek 2017" proiektuen barruan, zeinak klima-aldaketara egokitzera zuzendutako berrikuntza- eta erakusketa-proiektuak baitira. Tokiko iraunkortasun politiken barruan klima-aldaketara egokitzeko kudeaketa osorako eredua garatzea du helburua proiektu honek eta Euskadiko lau udalerritan abiatu da. |

| GOBERNANTZA ONA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA | |
|---|---|
| **ADUNA** | Tokiko produktu eta zerbitzuen azoka antolatu du Udalak, aste kulturalaren barruan, auzolanari esker (jarduketa hau udalerriko bizilagun batzuek bultzatu zuten garia ereiteko ekimenaren emaitza da). |
| | Parte-hartze saioak ingurumen-edukia duten ordenantzak eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko. |
| **LEINTZ-GATZAGA** | Gatz museoaren kudeaketa-ereduari buruz erabakitzeko parte-hartze prozesua 2017an. Hiru saio egin ziren, eta guztira 73 pertsonek hartu zuten parte (banakakoak eta herriko talde desberdinetakoak). Lehen saioan, udalerriari buruzko diagnostiko bat egin zen; bigarren saioan, gatzaren iturriaren kudeaketa aurkeztu eta ekarpenak jaso ziren; eta azken saioan, udalerriaren etorkizuneko erronketan eta gatzaren iturriaren kudeaketan sakondu zen. |
| **IBARRA** | Udalak TA21eko Ekintza-planaren urtez urteko segimendua eta hurrengo urtera begirako programazioa lantzeko protokoloa zehaztu du. |
| **URNIETA** | EAEko beste 12 udalekin batera, gobernantza onaren esparruan (ELOGE) bikaintasuneko zigilu europarra ezartzeko esperientzia pilotuan parte-hartzea. Urnieta eta Irun azkenean zigilua lortu duten Gipuzkoako bi udalerriak izan dira. |
| **ORIO** | “Topagune berdea” izeneko ingurumen-gaietan parte hartzeko gunea, non sektore desberdinetako ordezkariek parte hartzen baitute. |
| **TOLOSA** | Partaidetzari buruzko sail espezifiko bat sortu dute udal-organigramaren barruan. |
| | “Tolosatzen”: 2019ko aurrekontuak adosteko saio parte-hartzaileak antolatu zituzten 2018ko udazkenean (aurrez aurreko 17 bilera eta on-line ekarpenak egiteko aukera). |
| **BEASAIN** | Dolarea parkean energia berriztagarriekin auto kontsumorako proiektua zehazteko parte-hartze prozesua prestatzen ari dira. Prozesua 2019an hasiko da. |
| | EAEko beste 12 udalekin batera, gobernantza onaren esparruan (ELOGE) bikaintasuneko zigilu europarra ezartzeko esperientzia pilotuan parte-hartzea. |
| **ORDIZIA** | Herri-galdeketa egin dute hondakinen gaikako bilketa-sistema mota aukeratzeko. |
| **HERNANI** | Santa Barbara mendiko harrobi zaharrari etorkizunean zein erabilera eman erabakitzeko parte-hartze prozesua. |
| | Aurrekontu parte-hartzaileen egonkortzea. |
| **ERRENTERIA** | Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren egonkortzea (gutxi gorabehera urtean 3 aldiz elkartzen da, eta ingurumenari lotutako elkarteak, sektoreak eta udal-ordezkariak daude ordezkatuta). |

| | |
|---|---|
| **LEGAZPI** | Good local adapt: klima-aldaketara egokitzeko irtenbideen inguruan galdetu zaie herritarrei, eta drainatze-sistemen azterketari eta balorazioari buruzko parte-hartze prozesua bat garatu da. |
| | TA21eko foroaren egonkortzea. |
| | “Legazpi klima 2030” planaren irakurketa errazerako bertsioa eta etxeko hondakinen bilketa-sistemari buruzko informazio praktikoa 6 hizkuntzatan. |
| | EAEko beste 12 udalekin batera, gobernantza onaren esparruan (ELOGE) bikaintasuneko zigilu europarra ezartzeko esperientzia pilotuan parte-hartzea. |
| **AZPEITIA** | Azoka berritzeko parte-hartze prozesua. Mahai sektorialak antolatu ziren, eta mahai horretan parte hartu zuten eragileei esker, azoka berriaren eta “Elikagunea” dendaren egitura diseinatu zen; azken hau, gertuko produktuak saltzeaz gain, informazio/sentsibilizazio gunea da. |
| **ZARAUTZ** | Herritarren partaidetza udalaren barruan zeharkako alderdi bat balitz bezala ulertzea lortu dute. |
| **DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN** | Aholku-batzorde sektorial gisa lan egiten duten herritarren parte-hartze organoen egonkortzea (adibidez: Ingurumeneko Aholku Batzordea). Ingurumeneko Aholku Kontseiluari dagokionez, osoko bilkuraz gain, gaikako mahai sektorialez osatuta dago eta horietako bakoitza gutxienez urtean behin biltzen da. |
| | DSS 2050 estrategiaren segimendurako 2 batzorde ditu Udalak: 2018. urtean sortutako batzorde berezia eta 2016. urtean sortutako egokitzapenerako batzordea. |
| | *Cyclelogistics europar proiektua Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planak garatzeko. Egindako jarduketak: Merkantzien Hiri Banaketaren foroko bilerak dinamizatzea.* |
| **ERRENTERIA** | Herritarrentzako leihatila bakarra sortu dute. |
| | Hondakinei buruz eztabaidatzeko batzorde politikoa dago. |
| **OIARTZUN** | “Elkar-hartzen” parte-hartze prozesuaren barruan, auzo-batzarrak eta gaikako batzordeak antolatu ziren. |
| **PASAIA** | Zeharkako edukia duten gaietan, ekimenetan etab. lan-taldetan elkarlanean aritzeko ohitura dute Udalean. |
| **HONDARRIBIA** | Udalak 2017ko urrian "Gobernu Onaren Kodea" onartu zuen, non zehazten baitira jarduera-politiko instituzionalean udal gobernu-taldeko kideek jarraitu behar dituzten irizpideak. |
| | 2017an Mugikortasun Mahaia sortu zuen Udalak, eta 2018an, bilerak egin zituen aldizka. 2019an zehar, ekarpenak egingo dizkio Udala diseinatzen ari den Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planari. |

| | |
|---|---|
| **IRUN** | Udala partaidetzari buruzko udal-araudia lantzen hasi zen, herritarren parte-hartzearekin, 2016 urtean, eta 2018an amaitu du horren idazketa. 2019aren hasieran, herritarrei dei egingo zaie berriro, araudiaren testuari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. |
| | Udal aurrekontu parte-hartzaileen prozesua gauzatzen du Udalak duela zenbait urtetatik hona, eta urtez urte aurrekontu horien betetze-mailaren berri ematen du. |
| | Irun izan da bikaintasuneko zigilu europarra lortu duten Gipuzkoako bi udalerrietako bat. |
| **ARRASATE MONDRAGÓN** | Azokaren inguruko parte-hartze prozesua (2016, 2017). |
| **OÑATI** | 2016an, herritarren partaidetzari buruzko sail espezifikoa sortu zuen Udalak. |
| **ELGOIBAR** | Moruko paisaia-planaren edukia ezagutzera emateko asmoz, parte-hartze saioak antolatu zituen Udalak ikastetxeetan. |



**INGURUMEN-HEZIKETA ETA -SENTSIBILIZAZIOA**

| | |
|---|---|
| **ALKIZA, HERNANI, ORENDAIN, TOLOSA, DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN.** | "Baso eskola" metodologia Gipuzkoako lurralde historikoko udalerrietako ikastetxeetan. |
| **ARRASATE - MONDRAGÓN, ASTIGARRAGA, AZPEITIA, BERGARA, DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN, OÑATI, TOLOSA.** | Ingurumen-baliabideen zentroak:<br>• Udaleko Ingurumen Eskola (Arrasate).<br>• Ingurugiro Etxea (Azpeitia).<br>• Laboratorium (Bergara).<br>• Ristina Enea Fundazioaren Ingurumen Baliabideen Zentroa (Donostia).<br>• Natur Eskola (Oñati).<br>• Tolosako Ingurumen Zentroa (Tolosa). |



Gipuzkoako
Iraunkortasunaren Behatokia
Observatorio de la
sostenibilidad de Gipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua